- Entidades que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco y su volumen total de operaciones en el ejercicio anterior no hubiera sido superior a 7 millones de euros.

- Entidades que operen exclusivamente en el País Vasco y su volumen total de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 7 millones de euros, independientemente de su domicilio fiscal.

- Entidades que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco, su volumen total de operaciones hubiera excedido en el ejercicio anterior de 7 millones de euros y no hubieran realizado en Territorio Común el 75% o más del total de sus operaciones.

Se entenderán domiciliadas fiscalmente en el País Vasco las personas jurídicas y demás entidades sometidas al Impuesto sobre Sociedades que tengan en el País Vasco su domicilio social, siempre que en el mismo esté efectivamente centralizada su gestión administrativa y la dirección de sus negocios. En otro caso, cuando se realice en el País Vasco dicha gestión o dirección. En los supuestos en que no pueda establecerse el lugar del domicilio de acuerdo con estos criterios, se atenderá al lugar donde radique el mayor valor de su inmovilizado.

Del mismo modo, los entes sin personalidad jurídica, cuando su gestión y dirección se efectúe en el País Vasco. Si con este criterio fuese imposible determinar su domicilio fiscal, se atenderá al territorio donde radique el mayor valor de su inmovilizado.

Los sujetos pasivos del Impuesto vendrán obligados a comunicar a ambas

dizkiete, baldin eta egoitzaren aldaketak honako zerga ordainarazteko eskumenean aldaketaren bat badakar. Kontrako frogarik ez bada, pertsona juridikoen zerga-egoitza ez dela aldatu uste izango da baldin eta aldaketaren aurreko edo ondoko urtean batere jarduerarik egiten ez badute edo jarduerari uzten badiote. Aldi berean, Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango du.

Administraciones los cambios de domicilio fiscal que originen modificaciones en la competencia para exigir este impuesto. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que no se ha producido cambio de domicilio fiscal de las personas jurídicas, cuando en el año anterior o siguiente a dicho cambio devengan inactivas o cesen en su actividad. A su vez, el cambio de domicilio del contribuyente se podrá promover por cualquiera de las Administraciones.

Bestalde, eragiketen zenbatekotzat honakoa hau joko da (14. artikulua): subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta, ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Por otra parte, se entenderá por volumen de operaciones (artículo 14) el importe total de las contraprestaciones, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido y el recargo de equivalencia, en su caso, obtenido en un ejercicio por el sujeto pasivo en las entregas de bienes y prestaciones de servicios realizadas en su actividad.

Aipatutako eragiketa-kopurua, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren itunean aipatzen dena, bost urtean behin edo sarriago eguneratuko da (seigarren xedapen gehigarria), Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartuko dituen erabakien bidez.

La cifra del volumen de operaciones señalada, y a la que también se refiere la concertación del Impuesto sobre el Valor Añadido será actualizada (disposición adicional sexta), por acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico, al menos cada 5 años.

Balio Erantsiaren gaineko zergaren araudian hala definituta daudenak joko dira ondasun-ematetzat eta zerbitzu-prestaziotzat.

Tendrán la consideración de entregas de bienes y prestaciones de servicios, las operaciones definidas como tales en la normativa del IVA.

Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, urte osoari dagokiona kalkulatuko da ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta. Jarduera hasi berria denean, lehenengo ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoari begiratuko zaio, eta lehenengo ekitaldia urtebete baino laburragoa izan bada, urte osoari dagokiona kalkulatuko da ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta. Harik eta ekitaldi horretako eragiketak zenbat izan diren eta non egin diren jakin arte, halakotzat hartuko dira, ondore guztietarako, subjektu pasiboak aurrez kalkulatzen dituenak, jardueraren hasierako ekitaldian ustez egingo dituen eragiketen arabera.

Si el ejercicio anterior fuese inferior a un año, el volumen de operaciones será el resultado de elevar al año las operaciones realizadas. En caso de inicio de la actividad se atenderá al volumen de las operaciones realizadas en el primer ejercicio, y si éste fuese inferior a un año, será el resultado de elevar al año las operaciones realizadas durante el ejercicio. Hasta que se conozcan el volumen y el lugar de realización de las operaciones en este ejercicio, se tomarán como tales, a todos los efectos, los que el sujeto pasivo estime en función de las operaciones que prevea realizar durante el ejercicio de inicio de la actividad.

Eragiketak egiteko tokia erabakitzerakoan, honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira (16. artikulua):

En lo que respecta a la determinación del lugar de realización de las operaciones (artículo 16), se entenderán realizadas en el País Vasco las siguientes:

a) Ondasun-emateak

a) Entregas de bienes

Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzailearen esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzailearen esku jartzeko garraiatu egin behar badira, igorpena edo garraiaketa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da.

Las entregas de bienes muebles corporales cuando se realice desde territorio vasco la puesta a disposición del adquirente. Cuando los bienes deban ser objeto de transporte para su puesta a disposición del adquirente, las entregas se entenderán realizadas en el lugar en que se encuentren aquéllos al tiempo de iniciarse la expedición o el transporte.

Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta ondasunak eman behar dituenak berak eraldatu baditu, ondasun horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada.

Si se trata de bienes transformados por quien realiza la entrega, se entenderá efectuada en territorio vasco si se realizó en dicho territorio el último proceso de transformación de los bienes entregados.

Emateak direla-eta industriako elementuren batzuk Euskaditik kanpora instalatu behar badira, emate horiek euskal lurraldean egindakotzat hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira: gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin behar dira; eta instalatu edo muntatzeko kostuak ezin du kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa izan.

Si se trata de entregas con instalación de elementos industriales fuera del País Vasco, se entenderán realizadas en territorio vasco si los trabajos de preparación y fabricación se efectúan en dicho territorio y el coste de la instalación o montaje no excede del 15% del total de la contraprestación.

Energia elektrikoa ekoizten dutenen emateak, energia hori sortzen duten zentroak euskal lurraldean baldin badaude.

Las entregas realizadas por los productores de energía eléctrica, cuando radiquen en territorio vasco los centros generadores de la misma.

Ondasun higiezinen emateak, ondasunok Euskadiko lurraldean baldin badaude.

Las entregas de bienes inmuebles, cuando los bienes estén situados en territorio vasco.

b) Zerbitzuak egitea

b) Prestaciones de servicios

Zerbitzuak euskal lurraldean egindakotzat hartuko dira, hain zuzen ere lurralde horretatik abiatuta ematen badira.

Las prestaciones de servicios se entenderán realizadas en territorio vasco, cuando se efectúen desde dicho territorio.

Ondasun higiezinekin zerikusi zuzena duten zerbitzuak direnean, ondasun horiek euskal lurraldean kokatuta baldin badaude hartuko dira, zerbitzu horiek, Euskadin egindakotzat.

Cuando las prestaciones estuvieran directamente relacionadas con bienes inmuebles, se entenderán realizadas en el País Vasco si dichos bienes radican en territorio vasco.

Aseguru-eragiketak eta kapitalizazio-eragiketak, era berean, aurreko paragrafoetan xedatutakotik kanpora daude. Halako kasuetan, 32. artikuluan jasotako arauak bete beharko dira.

Asimismo, se exceptúan de lo dispuesto en los dos apartados anteriores las operaciones de seguro y capitalización, respecto de las cuales se aplicarán las reglas contenidas en el artículo 32.

c) Honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira, eragiketak egiten dituen subjektu pasiboak zerga-egoitza euskal lurraldean baldin badauka: nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo

c) Se entenderán realizadas en el País Vasco las operaciones, cuando el sujeto pasivo que las realice tenga su domicilio fiscal en territorio vasco en los casos de entregas realizadas por explotaciones agrícolas,

arrantzako ustiategiek edo arrantzuntzi-armadoreek egindako produktu-emateak, produktuak naturalak baldin badira, eraldatzeko prozesurik jasan ez baldin badute eta ustiategien edo armadoreen landaketa, ustiapen edo harrapaketetatik baldin badatoz zuzenean.

forestales, ganaderas o pesqueras y armadores de buques de pesca de productos naturales no sometidos a procesos de transformación que procedan directamente de sus cultivos, explotaciones o capturas.

Modu berean, garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere. Orobat, garraiobideak alokatzea.

Del mismo modo, para los servicios de transporte, incluso de mudanza, remolque y grúa, así como, los arrendamientos de medios de transporte.

d) Zehaztutako irizpideen arabera, atzerrian egindakotzat hartzen diren eragiketak administrazio batari edo besteari eratxikiko zaizkio, gainerako eragiketetan erabiltzen den proportzio berberarekin.

d) Las operaciones que con arreglo a los criterios establecidos se consideren realizadas en el extranjero se atribuirán, en su caso, a una u otra Administración en igual proporción que el resto de las operaciones.

e) Balio Erantsiaren gaineko Zerga araupetzen duen legeriaren arabera jasotako eragiketak egiten ez dituzten erakundeek, zerga-egoitza Euskadin baldin badaukate, foru-aldundiei ordainduko dizkiete tributuak.

e) Las entidades que no realicen las operaciones definidas conforme a la normativa reguladora del Impuesto sobre el Valor Añadido tributarán a las Diputaciones Forales del País Vasco cuando tengan su domicilio fiscal en territorio vasco.

Zerga honetan ere zehazten da ordainarazpenerako lotura-puntuak (15. artikulua), Balio Erantsiaren gaineko Zergan bezala; izan ere, zerga-egitateak bi lurraldeetan sor ditzakete subjektu pasiboek, eta horrek Zerga likidatzearen emaitza Administrazio artean banatzea dakar.

En este Impuesto, como en el Impuesto sobre el Valor Añadido, se especifica, también, el punto de conexión a los efectos de su exacción (artículo 15), debido a que los sujetos pasivos pueden generar hechos imponibles en ambos territorios, lo que motiva que se produzca un reparto del resultado de la liquidación del Impuesto entre Administraciones.

Foru-aldundiei dagokie, ez beste inori, zerga-egoitza Euskadin duten subjektu pasiboei Sozietateen gaineko Zerga ordainaraztea, baldin eta horiek aurreko ekitaldian eginak dituzten eragiketen bolumena gehienez ere 7 milioi eurokoa bada.

Así, corresponderá de forma exclusiva a las Diputaciones Forales la exacción del Impuesto sobre Sociedades de los sujetos pasivos que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco y su volumen de operaciones en el ejercicio anterior no hubiere excedido de 7 millones de euros.

Aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi euro baino handiagoa denean, subjektu pasiboek, zerga-egoitza edonon dutela ere, foru-aldundiei, Estatuko Administrazioei edo bi administrazio horiei ordainduko diete tributua, egindako eragiketen zenbatekoaren heinean. Proportzioa ehunekoetan emango da, bi hamartarrekin biribilduta.

Los sujetos pasivos cuyo volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiere excedido de 7 millones de euros tributarán, cualquiera que sea el lugar en que tengan su domicilio fiscal, a las Diputaciones Forales del País Vasco, a la Administración del Estado o a ambas Administraciones en proporción al volumen de operaciones. Éste se expresará en porcentaje y redondeado con dos decimales.

Zergaren ikuskapena berriz, (19. artikulua), lurraldearen arabera eskumena daukan foru-

En cuanto a la inspección del Impuesto (artículo 19), ésta se realizará por la

aldundiak egingo du, subjektu pasiboak Euskadin badu zerga-egoitza.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eginak dituen eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa bada eta eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egina bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, zerga-egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiak egingo du baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eginak dituen eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan eta eragiketa guztiak euskal lurraldean eginak badira.

Modu horretan, Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko lotura-puntuak definitzen dira. Horrela, eragiketa-zenbatekoak eta zerga-egoitzak zehaztuko dute aplikatu beharreko zerga-araudia eta zer administraziok ordainaraziko eta ikuskatuko duen hura.

Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el sujeto pasivo tenga su domicilio fiscal en el País Vasco.

No obstante, la inspección de los sujetos pasivos cuyo volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 7 millones de euros y en dicho ejercicio hubieran realizado en territorio de régimen común el 75% o más de su volumen de operaciones corresponderá a la Administración del Estado.

Asimismo, la inspección de los sujetos pasivos cuyo domicilio fiscal radique en territorio de régimen común, su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 7 millones de euros y hubiera realizado la totalidad de sus operaciones en territorio foral, se realizará por la Diputación Foral competente por razón del territorio.

De esta forma, quedan definidos los puntos de conexión a aplicar en el Impuesto sobre Sociedades, para los que el domicilio fiscal y el volumen de operaciones determinan la normativa del Impuesto a aplicar y la Administración o Administraciones competentes para su exacción e inspección.

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES **ARAU, ORDAINARAZPEN ETA IKUSKATZE-AHALMENA BANATZEKO IRIZPIDEAK** CRITERIO DE REPARTO DE LA CAPACIDAD NORMATIVA, EXACCIONADORA Y DE INSPECCIÓN					
IZAN LITEZKEEN HIPOTESIAK / SUPUESTOS POSIBLES			**AHALMENA** / CAPACIDAD		
ZERGA-EGOITZA DOMICILIO FISCAL	**ERAGIKETEN ZENBATEKOA** VOLUMEN DE OPERACIONES	**% EAEko ERAGIK. ZENBATEKOA** % VOLUMEN OPERACIONES CAE	**ARAUTZEKOA** NORMATIVA	**ORDAINARAZTEKOA** DE EXACCIÓN	**IKUSKATZEKOA** DE INSPECCIÓN
LURRALDE ERKIDEA TERRITORIO COMÚN	**<= 7 milioi euro** <= 7 mill. euros	----	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN
ARABA / ÁLAVA	**<= 7 milioi euro** <= 7 mill. euros	----	**ARABA** / ÁLAVA	**ARABA** / ÁLAVA	**ARABA** / ÁLAVA
BIZKAIA	**<= 7 milioi euro** <= 7 mill. euros	----	**BIZKAIA**	**BIZKAIA**	**BIZKAIA**
GIPUZKOA	**<= 7 milioi euro** <= 7 mill. euros	----	**GIPUZKOA**	**GIPUZKOA**	**GIPUZKOA**
LURRALDE ERKIDEA TERRITORIO COMÚN	**> 7 milioi euro** > 7 mill. euros	<100%	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN	**Eragiketa-zenb. prop.** Proporc. vol. operac.	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN
	> 7 milioi euro > 7 mill. euros	100%	**LE > erag. zenb.** T.H. > volum. operac.	**Eragiketa-zenb. prop.** Proporc. vol. operac.	**LE > erag. zenb.** T.H. > volum. operac.
ARABA / ÁLAVA	**> 7 milioi euro** > 7 mill. euros	>25%	**ARABA** / ÁLAVA (1)	**Eragiketa-zenb. prop.** Proporc. vol. operac.	**ARABA** / ÁLAVA
	> 7 milioi euro > 7 mill. euros	<=25%	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN	**Eragiketa-zenb. prop.** Proporc. vol. operac.	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN
BIZKAIA	**> 7 milioi euro** > 7 mill. euros	>25%	**BIZKAIA** (1)	**Eragiketa-zenb. prop.** Proporc. vol. operac.	**BIZKAIA**
	> 7 milioi euro > 7 mill. euros	<=25%	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN	**Eragiketa-zenb. prop.** Proporc. vol. operac.	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN
GIPUZKOA	**> 7 milioi euro** > 7 mill. euros	>25%	**GIPUZKOA** (1)	**Eragiketa-zenb. prop.** Proporc. vol. operac.	**GIPUZKOA**
	> 7 milioi euro > 7 mill. euros	<=25%	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN	**Eragiketa-zenb. prop.** Proporc. vol. operac.	**LURRALDE ERKIDEA** TERRITORIO COMÚN

(1) Sozietate batek eragiketen zenbatekoaren %100a Lurralde Historiko bakar batean egiten badu Lurralde horren araudia baizik ez zaio ezarriko nahiz eta Sozietateak bere zerga-egoitza beste Lurralde batean izan.

(1) En el caso de que el 100% del volumen de operaciones se hubiera realizado en un sólo Territorio Histórico, se aplicará la normativa correspondiente a dicho territorio, con independencia del territorio donde tenga la Sociedad su domicilio fiscal.

KOADROA / CUADRO II.1

Sozietateen gaineko Zerga dela-eta egin beharreko atxikipenak eta konturako ordainketak (17. artikulua) administrazio batari edo besteari egingo zaizkio, Itunean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruz ezarritako irizpideen arabera.

Tributuak bi administrazioei ordaindu behar dizkieten subjektu pasiboek, bestalde, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren araberako proportzioan egingo dituzte zergaren zatikako ordainketak, eta zergaren azken aitorpen-likidazioan zehaztutako proportzioa aplikatuko da. Dena dela, beste proportzio bat aplikatu ahal izango da, bategite, banaketa eta aktibo-ekarpenen kasuan, bai eta lurralde erkidean edo foru-lurraldean jarduera hastean, amaitzean, zabaltzean edo murriztean ere, baldin eta aldakuntza nabarmena badakar irizpide orokorraren arabera kalkulatutako proportzioan (ehuneko 15 puntu edo gehiagoko aldaketa lurraldeetako edozeini

Las retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre Sociedades (artículo 17) corresponderán a una u otra Administración conforme a los criterios establecidos a tal efecto en el Concierto para el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Los sujetos pasivos que deban tributar a ambas Administraciones ingresarán el pago fraccionado del Impuesto en proporción al volumen de operaciones realizado en cada territorio, aplicándose la proporción determinada en la última declaración-liquidación del Impuesto. Podrá aplicarse una proporción diferente en los casos de fusión, escisión y aportación de activos, así como de inicio, cese, ampliación o reducción de actividad en territorio común o foral que implique una variación significativa (alteración de 15 o más puntos porcentuales en proporción aplicable a cualquiera de los territorios) de la proporción calculada según el criterio general.

aplikatzeko proportzioan).

Bestaldetik, Euskadik ezarriko du interes ekonomikoko elkartzeen eta enpresen aldi baterako enpresa-elkarteen tributua-araubidea (20. artikulua), halakoak osatzen dituzten erakunde guztiak foru-arautegiaren mende dauden kasuetan.

Erakundeok bazkideei egotziko diete lurralde batean zein bestean egindako eragiketetan dagokien zatia, eta bazkideek kontuan hartuko dute egotzi zaien zati hori, euren eragiketen proportzioa zehazterakoan.

Ekonomia Ituna indarrean jarri aurretik eratutako ekonomia-intereseko elkartzeei eta enpresen aldi baterako enpresa-elkarteei aplikatu beharreko tributu-araubidea Euskadiri dagokiona bera izango da, baldin eta Euskadiko lurralde-eremua gainditzen ez badute (bosgarren xedapen iragankorra).

Talde fiskalak zerga-baterakuntzaren foru-araubidearen mende egongo dira baldin eta sozietate edo establezimendu iraunkor nagusia eta mendeko guztiak foru-arautegiaren mende badaude banako tributu-ordainketaren araubidean, eta lurralde erkideko zerga-baterakuntzaren araubidearen mende egongo dira, aldiz, sozietate nagusia eta mendeko guztiak lurralde erkideko tributu-araubidearen mende badaude banako tributu-ordainketaren araubidean (20. artikulua).

Hori dela eta, talde fiskaletik kanpokotzat joko dira beste araubidearen mende dauden sozietateak, halakorik badago. Estatuaren unean uneko arautegia bera erabiliko da, betiere, talde fiskala, sozietate nagusia, mendeko sozietateak, nagusitasun-maila eta taldearen barne-eragiketak definitzeko.

Arau hauek erabiliko dira talde fiskalei zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzeko:

Taldea osatzen duten sozietateek, Itunean aipatutako arau orokorrak betez, banako tributu-ordainketaren araubideari dagokion aitorpena aurkeztuko dute. Aurreko lerroaldean xedatutakoaren kalterik gabe, sozietate nagusiak talde fiskalaren kontabilitate-orri bateratuak

Por otra parte, el régimen tributario de las agrupaciones de interés económico y uniones temporales de empresas (artículo 20), corresponderá al País Vasco cuando la totalidad de las entidades que las integren estén sujetas a normativa foral.

Estas entidades imputarán a sus socios la parte correspondiente del importe de las operaciones realizadas en uno y otro territorio, que será tenida en cuenta por éstos para determinar la proporción de sus operaciones.

El régimen tributario aplicable a las agrupaciones de interés económico y las uniones temporales de empresas constituidas con anterioridad a la entrada en vigor del Concierto Económico (disposición transitoria quinta) será el correspondiente al País Vasco cuando no superen su ámbito territorial.

Y por lo que respecta a los grupos fiscales (artículo 20) estarán sometidos al régimen de consolidación fiscal foral, cuando la sociedad dominante y todas las dependientes estuvieran sujetas a normativa foral en tributación individual, y estarán sujetos al régimen de consolidación fiscal de territorio común, cuando la sociedad dominante y todas las dependientes estuvieran sujetas a normativa común en régimen de tributación individual.

A estos efectos, se considerarán excluidas del grupo fiscal las sociedades que estuvieran sujetas a la otra normativa. En todo caso, se aplicará idéntica normativa a la establecida en cada momento por el Estado para la definición de grupo fiscal, sociedad dominante, sociedades dependientes, grado de dominio y operaciones internas del grupo.

Para la aplicación del régimen de tributación consolidación fiscal de los grupos de fiscales se seguirán las reglas siguientes:

Las sociedades integrantes del grupo presentarán, de conformidad con las normas generales del Concierto, la declaración establecida para el régimen de tributación individual, sin perjuicio de que la sociedad dominante presentará a cada una de las Administraciones los estados

aurkeztuko dizkie administrazio biei.

Talde fiskalak lurraldeetako bakoitzean eginak dituen eragiketen zenbatekoaren heinean ordainduko dio tributua administrazioetako bakoitzari. Hori dela eta, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, talde fiskaleko sozietateek lurralde horretan egindako eragiketak batu egingo dira, eta gero taldearteko bidezko kenketak egingo dira.

Talde fiskalek, baldin eta 2002ko urtarrilaren 1a baino lehen zerga-baterakuntzako araubidean eta arautegi erkidearen edo foru-arautegiaren arabera ordaintzen bazuten tributua, tributu-ordainketaren araubide horri eutsi ahal izango diote 2006ko abenduaren 31 arte, maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak onetsitako Ekonomia Itunaren 25. artikuluan xedatutakoa dela bide. Betiere, artikulu hori beraiei aplikatu ahal izateko, zerga-baterakuntzaren alorrean 2001eko abenduaren 31n indarrean zegoen arautegian ezarritako baldintzak bete behar dituzte (seigarren xedapen iragankorra).

Enpresak batzeko eta banatzeko eragiketetan, Sozietateen gaineko Zergaren atalean (14. artikulua) aipatzen diren tributu-irizpideei jarraituta, kasuan kasuko tributu-onurak bi administrazioek onetsi behar baldin badituzte, foru-aldundiek aplikatuko duten araudia une bakoitzean lurralde erkidean indarrean egongo denaren berdina izango da, eta kasuan kasuko administrazio-espedienteak izapidetuko dira administrazio bakoitzean (47. artikulua).

3.c. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga itundutako tributua da, eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berak erabiliko dira hura eraentzeko (21. artikulua).

Hala ere, atzerriko egoiliarrak diren pertsona edo erakundeek Euskadin dituzten establezimendu iraunkorrei zerga honi buruzko arautegi autonomoa aplikatuko zaie, Sozietateen gaineko Zergan ezarritakoarekin

contables consolidados del grupo fiscal.

El grupo fiscal tributará a una y otra Administración en función del volumen de operaciones realizado en uno y otro territorio. A estos efectos, el volumen de operaciones realizado en cada territorio estará constituido por la suma o agregación de las operaciones que cada una de las sociedades integrantes del grupo fiscal efectúen en el mismo, antes de las eliminaciones intergrupo que procedan.

Los grupos fiscales que con anterioridad a 1 de enero de 2002 estuvieran tributando con normativa común o foral en régimen de consolidación fiscal (disposición transitoria sexta), por aplicación de lo dispuesto en el artículo 25 del Concierto Económico aprobado por la Ley 12/1981, de 13 de mayo, podrán mantener dicho régimen de tributación hasta el 31 de diciembre de 2006, siempre que cumplan los requisitos previstos para su aplicación en la normativa sobre consolidación fiscal vigente a 31 de diciembre de 2001.

En otro orden de cosas, en las operaciones de fusiones y escisiones de empresas en las que los beneficios tributarios, que en su caso procedan, hayan de ser reconocidos por ambas Administraciones, conforme a los criterios de tributación contenidos en la concertación del Impuesto sobre Sociedades (artículo 14), las Diputaciones Forales aplicarán idéntica normativa que la vigente en cada momento en territorio común, tramitándose los correspondientes expedientes ante cada una de las Administraciones (artículo 47).

3.c. Impuesto sobre la Renta de no Residentes

El Impuesto sobre la Renta de no Residentes es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado (artículo 21).

No obstante, a los establecimientos permanentes domiciliados en el País Vasco de personas o entidades residentes en el extranjero les será de aplicación la normativa autónoma de este impuesto, de acuerdo con

bat, araudiko lotura-puntuaren arabera.

lo establecido en el Impuesto sobre Sociedades conforme a su punto de conexión normativo.

Era berean, establezimendu iraunkorren bidez lortutako errentak zergapetzen direnean, administrazioetako batek ordainaraziko du Zerga, edo bestela biek batera, Sozietateen gaineko Zergan ordainarazteko lotura-puntuan adierazitako eran.

Del mismo modo, cuando se graven rentas obtenidas mediante establecimiento permanente, la exacción del Impuesto corresponderá a una u otra Administración o a ambas conjuntamente, en los términos previstos en el punto de conexión para la exacción en el Impuesto sobre Sociedades.

Konturako ordainketak direla eta (23. artikulua), establezimendu iraunkorrek euren errenten zioz egin behar dituzten zatikako ordainketak, atxikipenak eta konturako sarrerak PFEZn eta Sozietateen gaineko Zergan ezarritako arauei jarraituz eskatuko dira.

En lo referente a los pagos a cuenta (artículo 23), los pagos fraccionados que realicen los establecimientos permanentes y las retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto que se les practiquen por las rentas que perciban, se exigirán de acuerdo con las reglas establecidas para el IRPF y el Impuesto sobre Sociedades.

Hori dela eta, establezimendu iraunkorrek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da, baldin eta euskal lurraldean egiten badute euren negozioen administrazio-kudeaketa edo zuzendaritza. Irizpide hori erabilita bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan (43. artikulua).

A estos efectos, los establecimientos permanentes se entenderán domiciliados en el País Vasco cuando su gestión administrativa o la dirección de sus negocios se efectúe en territorio vasco. En los casos en que no pueda establecerse el lugar del domicilio de acuerdo con este criterio, se atenderá al lugar donde radique el mayor valor de su inmovilizado (artículo 43).

Zergadunak, aukerazko araubidea aplikatu ahal izateko, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritako baldintzak betetzen dituela-eta, PFEZ ordaintzea aukeratzen badu, lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiaren arautegia hartuko da kontuan, baldin eta zergadunak lanetik eta ekonomia-jardueretatik euskal lurraldean lortzen dituen etekinek Espainian lortzen duen errenta osoaren zatirik handiena egiten badute. Zergadunak itzulketarako eskubidea duenean, foru-aldundi eskudunak egingo dio itzulketa, berdin da errentak Espainiako zein lekutan lortu dituen.

Cuando el contribuyente ejercite la opción de tributación por el IRPF, por cumplir los requisitos previstos en la normativa reguladora del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, a efectos de la aplicación del régimen opcional, será tenida en cuenta la normativa de la Diputación Foral competente por razón del territorio, siempre y cuando los rendimientos del trabajo y de actividades económicas obtenidos en territorio vasco representen la mayor parte de la totalidad de renta obtenida en España. En el caso de que el contribuyente tenga derecho a la devolución, ésta será satisfecha por dicha Diputación Foral con independencia del lugar de obtención de las rentas dentro del territorio español.

Pertsona fisiko edo erakunde batek establezimendu iraunkorraren bidez diharduela ulertuko da baldin eta, edozein titulu dela bide, edozein motatako instalazio edo lantokiren bat badu, ohikoa eta iraunkorra, eta bere jarduera bertan egiten badu osorik nahiz zati batean; edo bestela, subjektu pasibo ez-egoiliar horren izenean

Se entenderá que una persona física o una entidad opera mediante establecimiento permanente cuando por cualquier título disponga, de forma continuada o habitual, de instalaciones o lugares de trabajo de cualquier índole, en los que se realice toda o parte de su actividad, o actúe en él por medio de un agente autorizado para contratar, en

eta kontura agenteren batek egiten badu jarduera, kontratuak barne, subjektu pasiboak eskuetsita, eta agente horrek ohikoa badu subjektu pasibo ez-egoiliarrak emandako ahalmen hori erabiltzea.

nombre y por cuenta del sujeto pasivo no residente, que ejerza con habitualidad dichos poderes.

Establezimendu iraunkortzat joko dira, bereziki, zuzendaritzen egoitzak, sukurtsalak, bulegoak, lantegiak, tailerrak, biltegiak, dendak eta bestelako establezimenduak, meategiak, petrolio- eta gas-guneak, harrobiak, nekazaritza, basogintza eta abeltzaintzako ustiategiak eta baliabide naturalak ustiatu edo ateratzeko beste edozein gune, eta hamabi hilabete baino gehiago dirauten eraikuntza-, instalazio- edo muntatze-obrak.

En particular, se entenderá que constituyen establecimiento permanente las sedes de dirección, las sucursales, las oficinas, las fábricas, los talleres, los almacenes, tiendas u otros establecimientos, las minas, los pozos de petróleo o de gas, las canteras, las explotaciones agrícolas, forestales o pecuarias o cualquier otro lugar de exploración o de extracción de recursos naturales, y las obras de construcción, instalación o montaje cuya duración exceda de doce meses.

Bestaldetik, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak zergapetzen direnean, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak ordainaraziko du zerga, errentak Euskadin lortuak edo sortuak badira, hau da, ondoko baldintzak betetzen badira:

Por otra parte, cuando se graven rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente, la exacción del Impuesto corresponderá a la Diputación Foral competente por razón del territorio, cuando las rentas se entiendan obtenidas o producidas en el País Vasco por aplicación de los siguientes criterios:

a) Ekonomia-ustiategien etekinak direnean, jarduerak euskal lurraldean egiten badira.

a) Los rendimientos de explotaciones económicas, cuando las actividades se realicen en territorio vasco.

b) Azterlan, egitasmo, laguntza tekniko, kudeaketarako laguntza, zerbitzu profesional eta antzeko beste zerbitzu batzuetatik lortutako etekinak direnean, zerbitzu horiek euskal lurraldean egin edo erabiltzen badira.

b) Los rendimientos derivados de prestaciones de servicios, tales como, la realización de estudios, proyectos, asistencia técnica, apoyo a la gestión, así como de servicios profesionales, cuando la prestación se realice o se utilice en territorio vasco.

Eta euskal lurraldean erabilitako zerbitzuak hauek izango dira: euskal lurraldean gauzatzen diren enpresa-jardueretan edo jarduera profesionaletan erabilitakoak edo lurralde horretan kokatutako ondasunekin burututakoak. Zerbitzu hori ez baldin bada gauzatzen den tokian bertan erabiltzen, non erabiltzen den hartuko da kontuan.

Se entenderán utilizadas en territorio vasco las prestaciones que sirvan a actividades empresariales o profesionales realizadas en territorio vasco o se refieran a bienes situados en el mismo. Se atenderá al lugar de la utilización del servicio cuando éste no coincida con el de su realización.

c) Zuzenean zein zeharka, menpeko lanak ematen dituen etekinak direnean, lan hori euskal lurraldean egiten bada.

c) Los rendimientos que deriven, directa o indirectamente, del trabajo dependiente cuando el trabajo se preste en territorio vasco.

Euskadin garatutako jarduera pertsonal baten ondorio badira.

Cuando provengan de una actividad personal desarrollada en el País Vasco.

Pentsioak eta tankerako gainerako prestazioak, euskal lurraldean egindako

Las pensiones y demás prestaciones similares, cuando deriven de un empleo

enplegu baten ondorio badira.

Era guztietako erakundeetako administrazio-kontseiluetako, ordezko batzordeetako edo beste ordezkaritza-organo batzuetako administratzaileen eta kideen ordainsariak.

d) Artista edo kirolariek, zuzenean zein zeharka, euskal lurraldean egindako lanaldi pertsonaletatik edo lanaldi horiekin zerikusia duen beste edozein jardueratatik ateratako etekinak direnean, baita etekin horiek artistak edo kirolariak berak ez beste pertsona edo erakunderen batek hartzen baditu ere.

e) Euskal erakunde publikoetako fondo propioetan parte hartzetik ateratako dibidenduak zein bestelako etekinak.

f) Kapital higigarriak emandako korritu, kanon eta bestelako etekinak:

Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoek edo euskal erakunde publikoek ordaindutakoak, baita erakunde pribatuek euskal lurraldean edo establezimendu iraunkorrek ordaindutakoek ere.

Euskal lurraldean erabilitako kapital-prestazioak ordaintzeko sariak direnean.

Irizpide horiek ez baldin badatoz bat, kapitala (ordaindutako prestaziokoa) non erabili den hartuko da kontuan.

g) Euskal lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo ondasun horiekin zerikusia duten eskubideetatik zuzenean nahiz zeharka ateratako etekinak.

h) Euskal lurraldean kokatutako hiri-ondasun higiezinen titularrak diren pertsona fisiko zergadunei egozten zaizkien errentak.

i) Pertsonek edo euskal erakunde publikoek jaulkitako baloreetatik eratorritako ondare-irabaziak.

j) Euskal lurraldean kokatutako ondasun higiezinetatik edo lurralde horretan bete behar diren edo gauzatu behar diren eskubideetatik eratorritako ondare-irabaziak. Zehatz-mehatz, honen barruan egongo dira:

prestado en territorio vasco.

Las retribuciones que se perciban por la condición de administradores y miembros de los Consejos de Administración, de las Juntas que hagan sus veces o de órganos representativos en toda clase de entidades.

d) Los rendimientos derivados, directa o indirectamente, de la actuación personal en territorio vasco de artistas o deportistas, o de cualquier otra actividad relacionada con dicha actuación, aún cuando se perciban por persona o entidad distinta del artista o deportista.

e) Los dividendos y otros rendimientos derivados de la participación en fondos propios de entidades públicas vascas.

f) Los intereses, cánones y otros rendimientos del capital mobiliario:

Satisfechos por personas físicas con residencia habitual en el País Vasco o entidades públicas vascas, así como los satisfechos por entidades privadas o establecimientos permanentes.

Cuando retribuyan prestaciones de capital utilizadas en territorio vasco.

Cuando estos criterios no coincidan se atenderá al lugar de utilización del capital cuya prestación se retribuye.

g) Los rendimientos derivados, directa o indirectamente, de bienes inmuebles situados en territorio vasco o de derechos relativos a los mismos.

h) Las rentas imputadas a los contribuyentes personas físicas titulares de bienes inmuebles urbanos situados en territorio vasco.

i) Las ganancias patrimoniales derivadas de valores emitidos por personas o entidades públicas vascas.

j) Las ganancias patrimoniales derivadas de bienes inmuebles situados en territorio vasco o de derechos que deban cumplirse o se ejerciten en dicho territorio. En particular se consideran incluidas:

Erakunde bateko eskubide edo partaidetzetatik eratorritako ondare-irabaziak, baldin eta bere aktiboa, batez ere, euskal lurraldean kokatutako ondasun higiezinez osatuta badago batez ere. Ez da kontuan hartuko erakundea egoiliarra den ala ez.

Las ganancias patrimoniales derivadas de derechos o participaciones en una entidad, residente o no, cuyo activo esté constituido principalmente por bienes inmuebles situados en territorio vasco.

Erakunde bateko eskubide edo partaidetzak eskualdatzetatik eratorritako ondare-irabaziak, baldin eta eskubide edo partaidetza horiek euskal lurraldean kokatutako ondasun higiezinez gozatzeko eskubidea ematen badiote titularrari. Ez da kontuan hartuko erakundea egoiliarra den ala ez.

Las ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión de derechos o participaciones en una entidad, residente o no, que atribuyan a su titular el derecho de disfrute sobre bienes inmuebles situados en territorio vasco.

k) Euskal lurraldean kokatutako beste ondasun higigarri batzuetatik gertatzen badira edo lurralde horretan bete behar diren edo gauzatu behar diren eskubideetatik eratorritako ondare-irabaziak.

k) Las ganancias patrimoniales derivadas de otros bienes muebles situados en territorio vasco o de derechos que deban cumplirse o se ejerciten en dicho territorio.

Aurreko paragrafoan zehaztutako irizpide horien arabera, errentaren bat bi lurraldeetan lortu dela pentsa badaiteke, horien ordainarazpena lurralde historikoei egokituko zaie, ordaindu behar duena pertsona fisikoa bada eta ohiko bizilekua Euskadin badu.

Cuando con arreglo a los criterios anteriores, una renta se pudiera entender obtenida simultáneamente en ambos territorios, su exacción corresponderá a los Territorios Históricos cuando el pagador, si es persona física, tenga su residencia habitual en el País Vasco.

Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunen lortutako errentei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak, berriz, errentak zein lurraldetan lortu, hango administrazioak eskatuko ditu

Las retenciones e ingresos a cuenta correspondientes a las rentas obtenidas por los contribuyentes que operen sin establecimiento permanente se exigirán por la Administración del territorio en el que se entiendan obtenidas las correspondientes rentas.

Erakunde pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaindutako errentak –erakundeetako administrazio-kontseiluetako, ordezko batzordeetako edo beste ordezkaritza-organo batzuetako administratzaileen eta kideen ordainsarietatik zein fondo propioetan parte hartzetik, kapital higigarriak emandako korritu, kanon eta bestelako etekinetatik eta jaulkitako baloreen ondoriozko ondare-irabazietatik eratorritakoak– eta, aurreko irizpideen arabera, bi administrazioetan aldi berean lortutzat jo daitezkeen errentak, euskal lurraldean lortu edo produzitutakotzat joko dira honako kopuru hauetan:

Las rentas satisfechas por entidades privadas o establecimientos permanentes derivadas de retribuciones que se perciban por la condición de administradores y miembros de los Consejos de Administración, de las Juntas que hagan sus veces o de órganos representativos, así como, la participación en fondos propios, intereses, cánones y otros rendimientos de capital mobiliario y ganancias patrimoniales procedentes de valores emitidos, así como cuando, conforme a los criterios antes previstos, una renta se pudiera entender obtenida simultáneamente en ambos territorios, se considerarán obtenidas o producidas en territorio vasco en la cuantía siguiente:

a) Erakunde edo establezimendu iraunkor horiek tributuak Euskadin bakarrik ordaintzen badituzte, ordaintzen dituzten errenta guztiak.

b) Erakunde edo establezimendu iraunkor horiek tributuak bi administrazioetan ordaintzen badituzte, Euskadin egindako eragiketen zenbatekoaren arabera ordaintzen duten errenten zatia.

Hala ere, horrelako kasuetan, likidazioa egoiliarra ez den horren izenean aurkezten duen pertsonaren, erakundearen edo establezimendu iraunkorraren ohiko bizilekua edo zerga-egoitza dagoen lurraldeko administrazioak izango du etekin guztiak ordainarazteko zein beharrezko itzulketak ordaintzeko eskumena, nahiz eta gero, behar bada, beste administrazioari konpentsazioa eman behar izan, beste administrazio horren lurretan egindako eragiketen zenbatekoari dagokion heinean.

Kasu espezifiko horietan, foru-aldundiek eskatuko dituzte atxikipen eta konturako ordainketak, atxikipena egitera behartuta dagoenak Euskadin egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioan eta Ekonomia Itunean Sozietateen gaineko Zergarako jasotako arau espezifikoak aplikatuz.

Erakunde ez-egoiliarren Ondasun Higiezinen gaineko Karga Berezia, ondasun higiezina euskal lurraldean badago, lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiari egokituko zaio.

Establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak kargatzen direnean, eta zergak administrazio biei ordaintzen bazaizkie, Sozietateen gaineko Zerga kudeatzeko aurrez ikusitako arauak aplikatuko dira.

Establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak kargatzen direnean, Administrazio eskudunak egingo du Zergari dagokion ikuskapena, Sozietateen gaineko Zerga kudeatzeko aurrez ikusitako arauak aplikatuz.

a) Cuando se trate de entidades o establecimientos permanentes que tributen exclusivamente al País Vasco la totalidad de las rentas que satisfagan.

b) Cuando se trate de entidades o establecimientos permanentes que tributen conjuntamente a ambas Administraciones, la parte de las rentas que satisfagan en proporción al volumen de operaciones realizado en el País Vasco.

No obstante, en estos casos la Administración competente para la exacción de la totalidad de los rendimientos, así como las devoluciones que proceda practicar, será la del territorio donde tengan su residencia habitual o domicilio fiscal las personas, entidades o establecimientos permanentes que presenten la liquidación en representación del no residente, sin perjuicio de la compensación que proceda realizar a la otra Administración por la parte correspondiente a la proporción del volumen de operaciones realizado en el territorio de ésta última.

En estos supuestos específicos, las retenciones e ingresos a cuenta se exigirán por las Diputaciones Forales en proporción al volumen de operaciones realizado en el País Vasco correspondiente al obligado a retener, aplicando las reglas especificadas para el Impuesto sobre Sociedades en el Concierto Económico.

En cuanto al Gravamen Especial sobre Bienes Inmuebles de entidades no residentes, éste corresponderá a la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el bien inmueble esté situado en territorio vasco.

Cuando se graven rentas obtenidas mediante establecimiento permanente, en los casos de tributación a ambas Administraciones, se aplicarán las reglas de gestión del Impuesto sobre Sociedades.

La inspección del Impuesto, cuando se graven rentas obtenidas mediante establecimiento permanente, se realizará por la Administración que resulte competente aplicando las reglas previstas en el Impuesto sobre Sociedades.

3.d. Kreditu-Erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga

Kreditu-Erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga itundutako tributua da, eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berak erabiliko dira hura eraentzeko (23 ter artikulua).

Aurrekoa gorabehera, lurralde historikoetako erakunde eskudunek Zergaren karga-tasak ezarri ahal izango dituzte, lurralde erkidean une bakoitzean indarrean daudenen mugen eta baldintzen barruan.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, halaber, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko gaitasuna izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Zergaren ordainarazpena Estatuko Administrazioari egokituko zaio, hirugarrenen funtsak mantentzen diren banku-erakundeen egoitza nagusia edo sukurtsalak lurralde erkidean badaude; eta euskal lurraldean badaude, berriz, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiari.

Zergaren konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu, aurreko paragrafoan jasotako irizpidearekin bat.

3.d. Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito

El Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado (artículo 23 ter).

No obstante lo anterior, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán establecer los tipos de gravamen de este Impuesto dentro de los límites y en las condiciones vigentes en cada momento en territorio común.

Asimismo, las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso que contendrán, al menos, los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

La exacción del Impuesto corresponderá a la Administración del Estado o a la Diputación Foral competente por razón del territorio según que la sede central o sucursales donde se mantengan los fondos de terceros estén situadas en territorio común o vasco.

Los pagos a cuenta del Impuesto se exigirán por una u otra Administración conforme al criterio contenido en el apartado anterior.

3.e. Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko Zerga itundutako tributua da, eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko. (23 quarter artikulua).

Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduetako datu berberak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri

3.e. Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica

El Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado. (artículo 23 quarter).

No obstante, las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso que contendrán, al menos, los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que

ahal izango dituzte likidazio-aldi bakoitzerako, baina epe horiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

Zergaren ordainarazpena Estatuko Administrazioari egokituko zaio, energia elektrikoa ekoizteko instalazioak lurralde erkidean badaude; eta euskal lurraldean badaude, berriz, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiari.

Zergaren konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu, aurreko paragrafoan jasotako irizpidearekin bat.

Itzulketak direla eta, administrazio bakoitzak bereak egingo ditu, bakoitzari dagokion kopuruan.

3.f. Energia Nukleoelektrikoa Sortzetik Deribatutako Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Sortzearen Gaineko Zerga, eta Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Instalazio Zentralizatuetan Biltegiratzearen gaineko Zerga

Energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzearen gaineko Zerga eta Erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegiratzearen gaineko Zerga itundutako tributuak dira, eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira haiek eraentzeko. (23 quinquies artikulua)

Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduetako datu berberak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazio-aldi bakoitzerako, baina epe horiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

Energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta

no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

P: Deducción especial por la realización de políticas contempladas en el artículo 22.3 de la LTH.

2.b.4. Banaketa bertikaleko koefizientea

LHLko 22.2 artikuluari jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien eskumenei erreparatuko zaie koefiziente bertikala zehazteko; betiere, Euskadi osoko eskumen guztiak aintzat hartuta.

Azkenik, 2/2007 Legean (6. artikuluan) % 70,04an ezarri zen banaketa bertikaleko koefizientea. Koefiziente hau aurreko bosturtekoarena (%70,44) baino txikiagoa da, toki-erakundeek Ekonomia Itunetik etorritako baliabideetan duten partaidetza igotzearen ondorioz, hain zuzen ere.

Legeko I. eranskinak arautzen du hura kalkulatzeko metodologia, eta taula adierazten da, xeheki:

2.b.4. Coeficiente de distribución vertical

El coeficiente vertical debe determinarse en proporción de las competencias ejercidas por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales respecto del global de competencias del conjunto de la Comunidad Autónoma, conforme al artículo 22.2 de la LTH.

Por último, en la Ley 2/2007 se estableció, en su artículo 6, el coeficiente de distribución vertical en el 70,04%, que resulta inferior al 70,44% del quinquenio anterior, como consecuencia del aumento de la participación de los Entes Locales en los recursos procedentes del Concierto Económico.

La metodología seguida para su cálculo se recoge en el Anexo I de la Ley y se especifica en el cuadro siguiente:

KOEFIZIENTE BERTIKALAREN KALKULUA / CÁLCULO DEL COEFICIENTE VERTICAL			
			°°°€
	f. aldundiak diputac. forales	**eusko jaurlar.** gobierno vasco	**guztira** total
1. Itunaren kudeaketatik sortutako diru-sarrerekin finantzatu beharreko gastuak 1. Gastos a financiar con ingresos derivados de la gestión del Concierto	12.908.242,1	8.016.677,1	20.924.919,2
2. Kenkariak / 2. Deducciones	-9.544.446,6	-153.153,7	-9.697.600,3
Estatuari ordaindu beharreko 2007ko kupo likidoa eta konpentsazioak Cupo líquido al Estado y compensaciones 2007	-1.453.378,8		-1.453.378,8
2006ko kupoaren likidazioa eta konpentsazioak Liquidación cupo y compensaciones 2006	-119.390,7		-119.390,7
2005eko- 10-06ko Ekonomia-Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo akordia Acuerdo primero de la Comisión Mixta del Concierto Económico		-43.592,1	-43.592,1
Ertzaintza Policía Autónoma		-38.240,0	-38.240,0
EAErako ekarpenak Aportaciones a la CAPV	-8.016.677,1		-8.016.677,1
L.H. Legeko 22.3 artikuluko politikoak Políticas art. 22.3 L.T.H.		-26.321,6	-26.321,6
Udal finantaiazio berria (1) Nueva financiación municipal	45.000,0	-45.000,0	0,0
3. Finantzatu beharreko gastuak / 3. Gastos a financiar	3.363.795,5	7.863.523,4	11.227.318,9
Ateratzen den koefizientea / Coeficiente resultante	**29,96%**	**70,04%**	

(1) Eusko Jaurlaritzaren Ekarpena / Contribución Gobierno Vasco

KOADOA / CUADRO V.1

2.b.5. Ekarpen orokorra

Foru-aldundiek Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen zama orokorrei eusteko egin beharreko ekarpena kalkulatzeko (7. artikulua), banaketa bertikalerako koefizientea aplikatuko zaie banatu beharreko baliabideei:

Ekarpen orokorra = % 70,04 [R - (D + P)]

2.b.5. Aportación General

La Aportación General de las Diputaciones Forales (artículo 7) al sostenimiento de las cargas comunes de la Comunidad Autónoma se calcula aplicando el coeficiente de distribución vertical al total de recursos a distribuir:

Aportación General = 70,04% [R - (D + P)]

2.b.6. Ekarpen bereziak

Ekarpen orokorraz gain, beste kontzeptu batzuk finantzatzen ere laguntzen dute aldundiek. Kontzeptu horiek banatzekoak diren diru-sarreren kenkaritzat jotzen dira, baldin eta Euskadiko erakunde orokorrei esleitutako eskumenei badagozkie. Hauek dira ekarpen berezi horiek (8. artikulua):

- Ertzaintzaren plantillaren

2.b.6. Aportaciones Específicas

Además de la Aportación General, las Diputaciones Forales contribuyen a la financiación de los conceptos contemplados como deducciones de los ingresos objeto de reparto, en la medida que estos conceptos correspondan a competencias asignadas a las Instituciones Comunes. Las denominadas Aportaciones Específicas (artículo 8) son las siguientes:

- Financiación de las ampliaciones

handitzeen finantziazioa, 2002ko urtarrilaren 1etik egindakoak, kupoan kendutako zenbatekoagatik.

- Euskadiren eskumenekoak diren eginkizunen eta zerbitzuen ezohiko finantzaketa, baldin eta eskumenean jardutea erakunde erkideei badagokie, kupoan egindako kenkariaren kopuruarekin.

- LHLko 22.3 artikuluan araututako politikak eta eginkizunak gauzatzeko ekarpena, ekarpen bereziengatiko kenkariaren zenbateko berean.

Horrenbestez, foru-aldundiek Euskadiko Ogasun Orokorrari egindako ekarpen osoa kalkulatzeko, ekarpen orokorra eta ekarpen bereziak gehitu behar dira.

2/2007 Legeak, hurrengo artikuluetan, zenbait arau zehazten ditu, ekarpenak aldatzen badira aplikatzeko; hala nola, Euskadiri zerbitzu-transferentzia berriak egiten bazaizkio (9. artikulua), zerbitzu-transferentziak egiten badira Euskadiko erakundeen artean (10. artikulua), Ertzaintzaren finantziazio-modua aldatzen bada (11. artikulua), beregain hartutako eskumenen aparteko finantzaketa aldatzen bada (12. artikulua), eta kupoaren eta konpentsazioen behin betiko likidazioa aldatzen bada (13. artikulua).

2.c. Banaketa horizontalaren eredua

Banaketa bertikaleko ereduaren bidez, ekarpen orokorra eta bereziak zehaztuta, lurralde historiko bakoitzaren ekarpena zehaztu behar da. Banaketa horizontalaren eredua esaten dio eredu horri 2/2007 Legeko II. kapituluak.

Baliabideak banatzeko eredu horrek ehuneko bat esleitzen dio lurralde historiko bakoitzari, eta hura aplikatzen da, Euskadiko erakunde orokorren gastuak estaltzeko egin behar

de la plantilla de la Policía Autónoma, realizadas desde el 1 de enero de 2002, por el importe de la deducción efectuada en el Cupo.

- Financiación extraordinaria de funciones y servicios de competencia del País Vasco, cuando el ejercicio de la competencia corresponda a las instituciones comunes por el importe de la deducción efectuada en el Cupo.

- Contribución a la realización de las políticas y funciones recogidas en el artículo 22.3 de la LTH, por igual importe a la deducción por este concepto.

En consecuencia, las aportaciones totales de las Diputaciones Forales a la Hacienda General del País Vasco están constituidas por la suma de la Aportación General y de las Aportaciones Específicas.

La Ley 2/2007 contiene a continuación una serie de reglas relativas a las variaciones en las Aportaciones derivadas tanto de nuevos traspasos de servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco (artículo 9) como entre las instituciones del País Vasco (artículo 10), así como de modificaciones en la financiación de la Policía Autónoma (artículo 11), en la financiación extraordinaria de competencias asumidas (artículo 12) y de la liquidación definitiva del cupo y de las compensaciones (artículo 13).

2.c. Modelo de distribución horizontal

Una vez definidas las Aportaciones, General y Específicas, derivadas del modelo de distribución vertical, se procede a determinar la contribución de cada uno de los Territorios Históricos. El Capítulo II de la Ley 2/2007 lo denomina modelo de distribución horizontal.

Este modelo de distribución de recursos asigna a cada Territorio Histórico un porcentaje, que se aplica al total de aportaciones para obtener el importe de su

duten ekarpenaren zenbateko kalkulatzeko (15. artikulua). Aurreko legeek araututako aplikatutako metodologiari eusten zaio; hau da, errentari eta ahalegin fiskalari erreparatzen zaie, berariaz arautzen baititu LHLko 22.6. artikuluak.

contribución a los gastos de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma (artículo 15). Se mantiene la metodología aplicada en las leyes anteriores, basada en los criterios de renta y esfuerzo fiscal, por otra parte, expresamente recogidos en el artículo 22.6 de la LTH.

2.c.1. Koefiziente horizontalak

2/2007 Legeko 14. artikuluak arautzen du irizpide hauei erreparatuko zaiela, lurralde historiko bakoitzak Autonomia Erkidegoko erakundeei egin beharreko ekarpenei erantzuteko, 2007-2011 bosturtekoaren ekitaldietan:

- Koefizientearen % 70 lurralde historiko bakoitzaren errenta erlatiboaren arabera aterako da zuzenean.
- Ehuneko 30a lurralde historiko bakoitzaren zerga-ahalegin erlatiboaren alderantzizkoaren arabera aterako da zuzenean, lurralde bakoitzak diru-bilketarako duen gaitasunarekin ahalegin hori haztatuta.

2.c.1. Coeficientes horizontales

En la Ley 2/2007 se especifica (artículo 14) que los coeficientes de contribución de cada Territorio Histórico a las aportaciones a efectuar a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma, con vigencia para los ejercicios del período 2007-2011, se obtendrán conforme a los criterios siguientes:

- El 70% se obtendrá en función directa de la renta relativa de cada territorio histórico.
- El 30% se obtendrá en función directa de la inversa del esfuerzo fiscal relativo de cada Territorio Histórico, ponderado por la capacidad recaudatoria del mismo.

$$A_i = 70\,\frac{Y_i}{Y} + 30\,\frac{CR_i\,\dfrac{T/Y}{T_i/Y_i}}{\displaystyle\sum_{i=1}^{3}\left(CR_i\,\frac{T/Y}{T_i/Y_i}\right)}$$

Ai, Lurralde historiko bakoitzak ekarpenei erantzuteko duen koefizientea da, ekarpen osoaren ehunekoaren arabera.

Yi, i lurraldearen errenta da.

Y, Euskal Autonomia Erkidegoaren errenta da.

Ti, i lurraldearen diru-bilketa da.

T, hiru lurraldeen diru-bilketa osoa da.

CRi, i lurraldeak diru-bilketarako duen gaitasuna da.

2/2007 Legeak 15. artikuluan zehaztutako aldagaiak eta datuak baliatzen dira formula

Ai, es el coeficiente de contribución de cada Territorio Histórico, en % de la aportación total.

Yi, es la renta del territorio histórico i.

Y, es la renta de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ti, es la recaudación del territorio histórico i.

T, es la recaudación total de los tres territorios históricos.

CRi, es la capacidad recaudatoria relativa del territorio histórico i.

Para la aplicación de esta fórmula se utilizan las variables y datos especificados en la

hori aplikatzeko. Lurralde historiko bakoitzak ekarpenei erantzuteko koefizienteak, ekitaldi bakoitzerako kalkulatu ondoren, ez dira aldatuko ekitaldian zehar.

2.c.2. Koefiziente horizontalak kalkulatzeko aldagaiak

Banaketa horizontaleko ereduaren ekarpen-irizpideak aplikatzeko, bosturtekoaren ekitaldi bakoitzean erabili beharreko estatistika-aldagaiak definizio hauetara egokitu beharko dira:

- Errentarako, lurralde historiko bakoitzaren barne produktu gordina hartuko da, merkatu-prezioetan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren guztizkoarekin erkatuta; eta Euskal Estatistika Erakundeak argitaratutako azken lau urteetako datuen pisu erlatiboen batez besteko aritmetikoa hartuko da.

- Ahalegin fiskala, LHLrekin bat etorriz, honela definitzen da: zerga-kontzeptu guztiak direla-eta urteko diru-bilketaren zenbatekoaren eta errentaren artean dagoen erlazioa da, udalen zuzeneko ordainarazpeneko zergak diru-bilketaren barne hartuta. Aipatutako zerga-kontzeptuak foru-aldundietako eta udaletako aurrekontuetako I. eta II. kapituluetan jasotakoak dira. Amaitutako azken ekitaldikoak izan behar dute erabilitako diru-bilketako datuek.

Bilketarako gaitasuna kalkulatzeko, Euskal Autonomia Erkidego osoko zerga-bilketako egitura kontuan hartzen da, eta bilketa orokorrean duen ehunekoa esleitzen zaio zerga-kontzeptu bakoitzari.

Diru-bilketako kontzeptu bakoitzari eta lurralde historiko bakoitzari zergak ordaindu beharra sorrarazten duen ekonomia-adierazle egokia lotuko zaio, Euskal Autonomia Erkidego osoarekiko ehunekoetan.

propia Ley 2/2007 (artículo 15). Los coeficientes de contribución de cada Territorio Histórico calculados para cada ejercicio no serán modificados a lo largo del mismo.

2.c.2. Variables para el cálculo de los coeficientes horizontales

Las variables estadísticas a utilizar en cada ejercicio del quinquenio, a los efectos de aplicar los criterios de aportación del modelo de distribución horizontal, deberán ajustarse a las siguientes definiciones:

- Para la renta se utilizará el Producto Interior Bruto a precios de mercado de cada Territorio Histórico relativo al total de la Comunidad Autónoma, tomándose la media aritmética de los pesos relativos de los datos de los últimos cuatro años publicados por el Instituto Vasco de Estadística-Eustat.

- El esfuerzo fiscal se define, conforme a la LTH, como la relación entre el importe de la recaudación anual por todos los conceptos tributarios, incluidos los de exacción municipal directa, y la renta. Los conceptos tributarios citados son los recogidos en los Capítulos I y II de los Presupuestos de las Diputaciones Forales y Ayuntamientos. Los datos de recaudación y de renta corresponderán a los del último ejercicio finalizado.

Por otro lado, el cálculo de la capacidad recaudatoria se efectúa partiendo de la estructura recaudatoria del conjunto de la Comunidad Autónoma, atribuyendo a cada concepto tributario su parte porcentual en la recaudación total.

A cada concepto se le asocia, para cada Territorio Histórico, y en términos porcentuales respecto al total de la Comunidad Autónoma, el indicador económico adecuado que da origen a la tributación.

Osagai bi horietatik abiatuta eta lehenengoarekin bigarrena haztatuta kalkulatuko da lurralde historiko bakoitzerako adierazle bakoitzaren diru-bilketa teorikoa edo diru-bilketarako batez besteko gaitasuna, guztizkoarekiko ehunekoetan.

Adierazle guztietan lortutako emaitzen baturak adieraziko du lurralde historiko bakoitzaren bilketa-gaitasuna. 2/2007 Legeko II. eranskinak zehazten ditu gaitasun hori kalkulatzeko aintzat hartu behar diren zerga-kontzeptuak eta bakoitzari dagozkion ekonomia-adierazleak. Ondorengo taulan ikus daitezke horiek guztiak.

A partir de estos dos elementos, mediante ponderación del segundo por el primero, se calcula, igualmente en términos porcentuales respecto del total, la recaudación teórica o capacidad de recaudación media de cada indicador para cada Territorio Histórico.

La suma de los resultados obtenidos para cada uno de los indicadores representa la capacidad recaudatoria de cada Territorio Histórico. Los conceptos tributarios a tener en cuenta para el cálculo de esta capacidad, así como los indicadores económicos para cada uno de ellos se detallan en el Anexo II de la Ley 2/2007 que se reproduce a continuación.

DIRU-BILKETARAKO GAITASUNA / CAPACIDAD RECAUDATORIA

KONTZEPTUA / CONCEPTO	**ADIERAZLEA** / INDICADOR
Bakoitzaren lanagatiko atxikipenak Retenciones trabajo personal	**Lansariak eta soldatak** Sueldos y salarios
PFEZaren kuota diferentziala Cuota diferencial IRPF	(1)
Kapitalaren atxikipenak eta ordainketa zatikatuak Retenciones de capital y pagos fraccionados	**Ustiaketaren gaindikin garbia** Excedente neto de explotación
BEZ guztira (bakoitzaren kudeaketa + egokitzapenak) IVA (gestión propia + ajustes)	**Ekarpen-indizea** Índice de aportación
Garraiobideen gaineko zerga berezia Impuesto especial sobre medios de transporte	**Matrikulatutako beribil-kopurua** Número de turismos matriculados
Fabrikazioko zerga berezien guztizkoa (bakoitzaren kudeaketa + egokitzapenak) Total ii. ee. de fabricación (gestión propia + ajustes)	**Ekarpen-indizea** Índice de aportación
Hidrokarburoen txikizkako salmentaren zerga Impuesto s/ las ventas minoristas de hidrocarburos	**Ekarpen-indizea** Índice de aportación

(1) PFEZaren kuota diferentzial garbiari dagokion zenbatekoa proportzioan egotziko zaio zerga horren bilketako osagarri bakoitzari / El importe correspondiente a la cuota diferencial neta del IRPF se atribuirá proporcionalmente a cada uno de los componentes de la recaudación de dicho impuesto.

KOADROA / CUADRO V.2

2.c.3. Lurralde historiko bakoitzaren ekarpena

Lurralde historiko bakoitzak Autonomia Erkidegoko erakunde orokorrei egin beharreko ekarpenen zenbatekoa kalkulatzeko, lurralde bakoitzari dagokion koefiziente horizontala aplikatu behar zaio ekarpen orokorreko eta ekarpen berezietako zenbatekoei.

Bestalde, Estatuari ordaindu beharreko kupo likidoari lurralde historiko bakoitzak egin beharreko ekarpena eta bosturtekoari

2.c.3. Aportación de cada Territorio Histórico

La aportación de cada Territorio Histórico a las Instituciones Comunes se obtiene por aplicación del coeficiente horizontal correspondiente al Territorio Histórico al importe de las Aportación General y Específicas.

Por otra parte, la contribución de cada Territorio Histórico al cupo líquido a pagar al Estado y su participación en las

dagozkion kupoak zehazteko metodologian jasotako konpentsazioetan duten partaidetza zehazteko (18. artikulua), koefiziente horizontala aplikatu beharko zaie bakoitzari dagozkien zenbatekoei.

Balio Erantsiaren gaineko zergagatik, Fabrikazioko Zerga Berezietako bakoitzarengatik eta Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmentaren gaineko Zergagatik benetan biltzen denetik eratorritako diru-sarrerak foru-aldundi bakoitzaren kasura egokitzeko, kenketa bat egin behar da, sortu zireneko urtea kontuan hartu gabe; horretarako, aipatutako zerga-kontzeptu bakoitzarengatik Euskal Autonomia Erkidego osoak lortutako benetako diru-bilketari lurralde historikoaren dena delako ekitaldirako koefiziente horizontala aplikatuta lortutako emaitza hartu, eta zerga-kontzeptu berbera dela-eta lortutako benetako diru-bilketari kendu behar zaio, eta kenduraren arabera egokituko dira. (17. artikulua).

Apirilaren 21eko 7/2014 Legeak burututako Ekonomia Itunaren aldaketak, besteak beste, sektore elektrikoari buruzko tributu berrien adostasuna onartu zuen: Energia Elektrikoa Ekoiztearen Balioaren gaineko Zerga, Energia Nukleoelektrikoa Sortzearen ondorioz Erregai Nuklear Gastatua eta Hondakin Erradioaktiboak Ekoiztearen gaineko Zerga, eta Erregai Nuklear Gastatua eta Hondakin Erradioaktiboak Instalazio Zentralizatuetan Biltegiratzearen gaineko Zerga. Halaber, Ituna egokitu zuen hidrokarburo batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga ordeztuz hidrokarburoen zergaren tarte autonomiko batekin.

Aurrekoa ikusita eta kontuan hartuta Ekonomia Itunaren 2014ko urtarrilaren 16ko Batzorde Mistoak onartutako konpentsazioa, sektore elektrikoaren gaineko zerga berriak adosteko, Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2014ko otsailaren 13ko bileran, hauxe adostu zuen: hitzartutako zerga berriengatik jasotako diru-sarrerei luzatzea indarrean dagoen ekarpenen metodologiaren 17. artikuluan aurrekusitako egokitzapena, baita konpentsazio berria sartzea ere 2.1. a) artikuluan aipatutako kupoaren metodologiatik sortutako kenkarien barruan.

compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del cupo se determinará (artículo 18) por aplicación sobre los respectivos importes del correspondiente coeficiente horizontal.

Los ingresos de cada una de las Diputaciones Forales procedentes de la recaudación real por el Impuesto sobre el Valor Añadido, por cada uno de los Impuestos Especiales de Fabricación y por el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, independientemente del año de su devengo o generación, se ajustarán por la diferencia entre el resultado de aplicar el coeficiente horizontal de su territorio histórico para dicho ejercicio a la recaudación real del conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco por cada uno de dichos conceptos tributarios, y su correspondiente recaudación real por el mismo concepto tributario. (artículo 17).

La modificación del Concierto Económico realizada por la Ley 7/2014, de 21 de abril, aprobó la concertación, entre otros, de los nuevos tributos sobre el Sector Eléctrico: Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica, Impuesto sobre la Producción de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos resultantes de la generación de Energía Nucleoeléctrica, Impuesto sobre el almacenamiento de combustible nuclear gastado y residuos reaciactivos en instalaciones centralizadas. Asimismo, Asimismo, adaptó el Concierto a la sustitución del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos por un tramo autonómico del Impuesto sobre Hidrocarburos.

A la vista de lo anterior, y de la compensación aprobada por la Comisión Mixta de Concierto Económico de 16 de enero de 2014 por la concertación de los nuevos impuestos sobre el sector eléctrico, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas de 13 de febrero de 2014, acordó extender el ajuste previsto en el artículo 17 de la metodología de aportaciones vigente a los ingresos por estos nuevos impuestos concertados, así como incorporar la nueva compensación dentro de las deducciones procedentes de la metodologia del Cupo a las que se refiere el artículo 2.1.

2.d. Egokitzapenerako Funts Orokorra

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak Egokitzapenerako Funts Orokorra eratuko du urtero (funts horrek aurreko Elkartasun Funtsa ordezkatzen du), eta erakunde erkideek eta hiru foru-aldundiek egingo dituzte bertarako ekarpenak; xedea bikoitza izango da: batetik, arauen artean edo kudeaketa egiteko moduan dauden ezberdintasunetatik sortutako arrazoiak salbu, eta funtsera egin beharreko ekarpena kendu ondoren, lurralde historiko bakoitzak Euskadiko diru-bilketa osoan izango duen parte-hartze erlatiboa bere koefiziente horizontalaren % 99ra iritsiko dela bermatzea, eta, bestetik, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren iritziz funts horrekin erantzun behar den ohiz kanpoko beste edozein gorabeherari erantzutea.

20. artikuluak arautzen du zer arau bete behar diren Funtsaren zenbatekoa behin-behinekoz eta behin betiko kalkulatzeko eta hura erakundeen artean banatzeko:

1. Egokitzapenerako Funts Orokorra

Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbatekoa zatiketa honen araberako zatidura izango da:

- batetik, koefiziente horizontalaren % 99aren eta lurralde historiko bakoitzak Euskadiko diru-bilketa osoan daukan parte-hartze erlatiboaren arteko diferentzia 1.1 artikuluan zehaztutako moduan banaketa-gai den diru-bilketari aplikatuta ateratako zeinu positiboko zenbateko guztien batuketa hartuko da; eta

- bestetik, erakunde erkideen eta foru-aldundien koefiziente bertikalen batuketa, baldin eta ekarpen-koefizientearen % 99tik gora badago bakoitzaren diru-bilketa erlatiboa. Ondorio horietarako, lurralde historiko bakoitzari dagokion koefiziente bertikala zehazteko, bakoitzaren

a).

2.d. El Fondo General de Ajuste

El Consejo Vasco de Finanzas Públicas establecerá anualmente un Fondo General de Ajuste, que sustituye al anterior Fondo de Solidaridad, al que contribuirán las Instituciones Comunes y las tres Diputaciones Forales con el objeto de asegurar que, salvo causas derivadas de diferencias normativas o de gestión, la participación relativa en la recaudación total del País Vasco para cada territorio histórico, una vez deducida su contribución al propio Fondo, alcance el 99% de su coeficiente horizontal, así como cualquier otra circunstancia de carácter extraordinario que a juicio del Consejo Vasco de Finanzas Públicas deba atenderse con dicho fondo.

El importe y la distribución institucional del Fondo, para su cálculo tanto provisional como definitivo, se determinará (artículo 20) de acuerdo con las siguientes reglas:

1. Importe del Fondo General de Ajuste

La cuantía del Fondo General de Ajuste se determinará por el cociente entre:

- la suma de los importes de signo positivo que resulten de aplicar a la recaudación sujeta a reparto (artículo 1.1) la diferencia entre el 99% del coeficiente horizontal y la respectiva participación relativa en la recaudación total del País Vasco para cada Territorio Histórico, y

- la suma de los coeficientes verticales de las Instituciones Comunes y de las Diputaciones Forales cuya recaudación relativa se haya situado por encima del 99% de su coeficiente de aportación. El coeficiente vertical de cada uno de los Territorios históricos se deriva de aplicar el

koefiziente horizontala aplikatu behar zaio erakunde erkideen koefiziente bertikalaren osagarriari.

Egokitzapenerako Funts Orokorraren gehienezko zenbatekoak ezingo du gainditu 2/2007 Legearen 5. artikuluak zehazten dituen banatu beharreko baliabideen % 1.

2. Egokitzapenerako Funts Orokorra

- EAEko erakunde orokorrek Egokitzapenerako Funts Orokorrari egin beharreko ekarpena kalkulatzeko, banaketa bertikaleko koefizientea aplikatuko zaio funtsaren zenbateko osoari; betiere, zenbateko hori ez bada hura koefiziente bertikalaren % 99ren eta banatzeko baliabide haietan duten benetako parte-hartzearen arteko diferentzia banatzeko baliabideei aplikatuta lortzen den zenbatekoa (balio absolutuetan) gainditzen, gainduz gero, azken hori izango baita egin beharreko ekarpena.

- Gainerakoa foru-aldundiei egokituko zaie, bakoitzari dagokion koefiziente horizontalaren arabera. Baldin eta aurrekoa aplikatzeagatik funtsaren onuraduna ez den foru-aldundi batentzat suerta dadin kontribuzioak gainditzea haren benetako diru-bilketa eta koefiziente horizontalaren % 99 Euskadiren diru-bilketa guztiari aplikatzearen emaitzaren arteko diferentziaren zenbatekoa, haren kontribuzioa aipatutako aldearen zenbatekoan finkatuko da. Funtsaren onuraduna ez den foru-aldundia aurreko kasuan ez badago, gainontzeko zenbatekoa beregain hartuko du foru-aldundi guztien kontribuzioa bete arte, muga honekin: bere kontribuzioaren zenbateko guztiak ezin du gainditu bere benetako diru-bilketa eta Euskadiren diru-bilketari haren koefiziente horizontala

coeficiente horizontal al complementario del coeficiente vertical de las Instituciones Comunes.

El importe máximo del Fondo General de Ajuste no superará el 1% de los recursos a distribuir definidos en el artículo 5 de la Ley 2/2007.

2. Contribución al Fondo General de Ajuste

- La contribución de las Instituciones Comunes será el resultado de aplicar a la cuantía total del Fondo General de Ajuste el coeficiente de distribución vertical, siempre que este importe no supere la cuantía, en valores absolutos, que se obtiene de aplicar a los recursos a distribuir la diferencia entre el 99% de su coeficiente vertical y su participación real en los recursos a distribuir, en cuyo caso alcanzará esta última.

- El resto corresponderá a las Diputaciones Forales de acuerdo a sus respectivos coeficientes horizontales. En el supuesto de que por aplicación de lo anterior la contribución que resulte para alguna diputación foral no beneficiaria del fondo supere el importe de la diferencia entre su recaudación real y el resultado de aplicar el 99% de su coeficiente horizontal a la recaudación total del País Vasco, su contribución quedará fijada en el importe de dicha diferencia. La Diputación Foral que no siendo beneficiaria del fondo no se encuentre en este supuesto asumirá el importe restante hasta completar la contribución del conjunto de las Diputaciones Forales, con el límite de que el importe de su contribución total no supere la diferencia entre su recaudación real y el resultado de aplicar su coeficiente

aplikatzearen ondorioaren arteko diferentzia.

3. Egokitzapenerako Funts Orokorra

Bi lurralde historikoren diru-bilketa bakoitzaren koefiziente horizontalaren % 99tik beherakoa den kasuetan, Egokitzapenerako Funts Orokorraren zenbateko osoa nahikoa ez bada bermatutako ehunekoa lor dezaten bi lurralde historikok, % 99 lortzeko horietako bakoitzak behar duen besteko proportzioan egingo da funtsaren banaketa, lurralde horien ekarpena kenduta.

4. Aurreko 1. paragrafoan jasotako muga aplikatuta ezin bada lurralde historiko guztietarako koefiziente horizontalaren % 99ko diru-bilketa erlatiboa bermatu, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, azken emaitzak ikusita eta irizpena egin ondoren, ebazten badu ezen, delako lurralde historikoak edo direlako lurralde historikoek Euskadiko diru-bilketa osoan duten parte-hartze erlatiboa bakoitzaren koefiziente horizontalaren % 99tik behera gelditu bada, emaitza hori ez dela izan beste lurralde historikoen aldean beren arauak edo kudeaketa diferenteak izan direlako, egokitu egingo du Egokitzapenerako Funts orokorraren zenbatekoa, artikulu honetako aurreko paragrafoan erakunde bakoitzaren ekarpenerako ezarritako mugak errespetatuz.

2.e. Eragiketa-arauak

Lurralde Historikoen Legeko 25.1 artikuluak berariaz arautzen du ekarpenak sei zati berdinetan ordainduko direla, hain justu, urte bakoitzeko otsailaren, apirilaren, ekainaren, uztailaren, urriaren eta azaroaren lehenengo hamabost egunetan.

Ekarpenen urteko zenbatekoak kalkulatzeko eragiketak arautzen ditu 2/2007 Legeko IV. kapituluak, baita foru-aldundien eta Egokitzapenerako Funts Orokorraren arteko doiketen behin-behineko kalkulua eta haien kitapena egitekoak ere (21. artikulutik 27. artikulura).

Ekarpenen hasierako kalkulua egiteko, zerga itunduengatiko diru-sarreren aurreikuspen

horizontal a la recaudación total del País Vasco.

3. Distribución del Fondo General de Ajuste

En el supuesto de que, situándose la recaudación relativa de dos Territorios Históricos por debajo del 99% de su respectivo coeficiente horizontal, la cuantía total del Fondo General de Ajuste resulte insuficiente para que ambos alcancen el porcentaje garantizado, la distribución, excluida la contribución de dichos territorios, se realizará de forma proporcional al importe que cada uno de ellos necesita para alcanzar dicho 99%.

4. Si por aplicación del límite contenido en el apartado 1 anterior no fuera posible garantizar una recaudación relativa del 99% del coeficiente horizontal para todos los territorios históricos, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas a la vista de los resultados finales y después de dictaminar, previo informe, que la participación relativa en la recaudación total del País Vasco del territorio o territorios históricos que se haya situado por debajo del 99% de su respectivo coeficiente horizontal no ha sido el resultado de diferencias normativas o de gestión respecto al resto de los territorios históricos, adecuará la cuantía del Fondo General de Ajuste, respetando en todo caso los límites a la contribución de cada institución establecidos en el apartado anterior.

2.e. Reglas operativas

La LTH señala expresamente en el artículo 25.1 que las Aportaciones se harán efectivas en seis plazos iguales, fijándose éstos dentro de la primera quincena de los meses de febrero, abril, junio, julio, octubre y noviembre de cada año.

En el Capítulo IV de la Ley 2/2007, se contempla los mecanismos operativos que permiten determinar los correspondientes cálculos anuales de las Aportaciones, así como el cálculo provisional y la liquidación de los Ajustes entre las Diputaciones Forales y del Fondo General de Ajuste (artículos 21 a 27).

Así, se establece que para el cálculo inicial de las Aportaciones de cada ejercicio se realizará

bat onartuko du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, eta hura hartuko dute oinarritzat Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, haien aurrekontu orokorrak egiteko. Ekitaldian zehar ekarpenek izan ditzaketen aldaketak zati berdinetan banatuko dira, Lurralde Historikoen Legeko 25. artikuluak adierazitako epeetan; hau da, ekitaldi horretan muga-egunera iritsi gabeko ordainketa-epeetan.

Ekitaldia amaitu aurretik, azken ordainketa-epean (azaroko lehen hamabostaldian), ekitaldiaren amaierarako aurreikusitako diru-bilketaren aurre-likidazio bat egingo du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, ekitaldiaren hasieran ordaindutako ekarpenen eta behin betiko ekarpenen zenbatekoen artean izan daitezkeen aldeak txikitzeko, azken horien zenbatekoa ezin baita ekitaldiaren hasieran kalkulatu.

Hurrengo ekitaldian egingo da behin betiko likidazioa, otsailaren lehen hamabostaldian. Kontuan hartuko dira erreferentziazko ekitaldian egindako diru-bilketa erreala eta hasierako kalkulua egiteko erabilitako eguneratze-indizeen balio errealak.

Zerga itunduengatik bildutako ondasunak eta eskubideak banatu beharreko diru-sarreretara txertatzeari dagokionez, aurreko legean bezala, hauxe xedatzen da: foru-aldundiek, zorren ordainketarako borondatezko epean, zerga-zorra ondasunak eta eskubideak entregatuz ordaintzea baimentzen badute, kitatutako zorraren zenbatekoa ekitaldi horretako diru-sarreren artean jasoko da.

Ondasun eta eskubide horiek premiamendu-bidea erabiliz biltzen badira, ondasun eta eskubide horiek besterendu edo esleitutakoan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak baloratu egiten ditu. Hala, ekarpenen likidazioa egitean, banatu beharreko sarreren artean jasotzen dira. Dena dela, azken bosturtekoan bildutako esperientziari erreparatuta, aukera eman da Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, komenigarritzat jotzen badu, denbora-epe bat ezar dezan onartutako balorazioak aplikatzeko.

una previsión de ingresos por tributos concertados aprobada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas a los efectos de elaborar los Presupuestos Generales del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales. Las modificaciones de las Aportaciones que se produzcan durante el ejercicio serán distribuidas por partes iguales entre los plazos señalados en el artículo 25 de la LTH aún pendientes de vencimiento.

Antes de la finalización de cada ejercicio, en el último plazo, primera quincena de noviembre, se realiza una preliquidación sobre una estimación de cierre del ejercicio de la recaudación del País Vasco aprobada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, con el objeto de aproximar las aportaciones iniciales abonadas a las aportaciones definitivas, que no pueden ser calculadas hasta el cierre del ejercicio.

La liquidación definitiva se realiza en la primera quincena de febrero del ejercicio siguiente. Se considerará la recaudación real obtenida durante el ejercicio de referencia y los valores reales de los índices de actualización utilizados en el cálculo inicial.

En cuanto a la incorporación a los ingresos a reparto de los bienes y derechos derivados de la recaudación por tributos concertados, y al igual que en la ley anterior, se dispone que en periodo voluntario, cuando son las Haciendas Forales las que admiten el pago de la deuda tributaria mediante la entrega de bienes y derechos, el importe de la deuda cancelada se integre con la recaudación en efectivo del ejercicio.

En la recaudación en vía de apremio de estos bienes y derechos, cuando se realice la enajenación o adjudicación de dichos bienes y derechos, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas procederá a su valoración, al objeto de que a efectos de realizar la liquidación de Aportaciones se incorporen a los ingresos sujetos a reparto. En cualquier caso, y a la vista de la experiencia del último quinquenio, se contempla la posibilidad en este supuesto de que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, cuando lo considere conveniente, periodifique el importe de la valoración aprobada.

Halaber, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako prozedura erabiliko da foru-aldundiek bildutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren, Fabrikazioko Zerga Berezien eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergaren doiketak egiteko. Doiketa horiek apirilean, uztailean eta urrian egingo dira, eta likidazioa, berriz, hurrengo ekitaldiko urtarrilaren lehen hamabostaldian egingo da.

Por otra parte, los ajustes por el Impuesto sobre el Valor Añadido, Impuestos Especiales de Fabricación y por el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos de las Diputaciones Forales se realizarán, de acuerdo con el procedimiento aprobado por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, durante los meses de abril, julio y octubre, practicándose la liquidación dentro de la primera quincena del mes de enero del ejercicio siguiente.

Legearen 26. artikuluak arautzen du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak finkatuko duela, aurrekontu-aurreikuspenak aintzat hartuta, Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zenbatekoa. Hori eginda, erakunde bakoitzari dagokion behin-behineko zuzkidura jarriko du. Ekainean aplikatuko dira, ekarpenaren lehen ordainketa-epean, behin-behineko funtseko bi heren, eta behin betiko likidazioa, berriz, ekarpenen likidazioarekin batera egingo da.

Además, en el artículo 26 se recoge que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, de acuerdo con las previsiones presupuestarias, establecerá el importe provisional del Fondo General de Ajuste, consignando cada institución la dotación provisional que le corresponda. Dos terceras partes del fondo provisional se aplicarán en el mes de junio, coincidiendo con el plazo de pago de la aportación, practicándose la liquidación definitiva simultáneamente a la liquidación de las Aportaciones.

Azkenik, metodologia behar bezala aplikatzeko behar den informazioa emateko betebeharrak arautzen ditu kapituluak.

Por último, en este capítulo se recogen las obligaciones de información para la correcta aplicación de la metodología.

2.f. Bestelako xedapenak

Baliabideak banatzeko barne-eredua finkatuta, zazpi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat jasotzen ditu 2/2007 Legeak. Hau da arau horien funtsezko edukia:

- Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak eskumena finkatzen da, baldin eta Ekonomia Itunean edo zerga-sisteman sartutako aldaketengatik edo ekonomiak edo salbuespeneko beste gorabeheraren batek eragindakoengatik baliabideen banaketa-ereduan eta ekarpenak zehazteko ereduan ere funtsezko aldakuntzak sartu behar badira, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak aldakuntzak proposatu ahal izango ditu metodologian eta kalkuluetan.

2.f. Otras disposiciones

Establecido el modelo interno de distribución de recursos, la Ley 2/2007 incluye siete disposiciones adicionales, una disposición transitoria y una disposición final. Los aspectos más relevantes en ellas contenidos son los siguientes:

- Se fija la competencia del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, en el supuesto de que, por cambios introducidos en el Concierto Económico, en el sistema impositivo o derivados de la economía o cualquiera otra circunstancia de carácter excepcional, fuese necesario introducir alteraciones sustantivas en el modelo de distribución de recursos y de determinación de aportaciones, para proponer las modificaciones metodológicas y de cálculo pertinentes.

- Bigarren xedapen gehigarriak, Ekonomia Ituneko 62. artikuluak Autonomia Erkidegorako finkatutako konpromisoak betetzeko, Euskadiko erakunde publikoen aurrekontu-egonkortasuneko helburuak erabakitzeko ardura eman zitzaion Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari. Halaber, bigarren xedapen horrek 27/1983 Legearen (LHL) xedapen bat jasotzen du, zeinaren bidez Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari esleitzen zaion Euskadiko herri-erakundeetako finantza-jarduerak koordinatzeko eta harmonizatzeko egitekoa.

- Se asigna al Consejo Vasco de Finanzas Públicas la función de acordar los objetivos de estabilidad presupuestaria de las instituciones públicas del País Vasco, en el marco de los compromisos que se adopten para la Comunidad Autónoma en aplicación de lo previsto en el artículo 62 del Concierto Económico (Disposición Adicional Segunda). Así mismo, en esta disposición, también, se recogen las funciones que en materia de coordinación y armonización de la actividad financiera de las Instituciones Públicas del País Vasco ya le asigna al Consejo Vasco de Finanzas Públicas la Ley 27/1983 (LTH).

- Hirugarren xedapen gehigarriak arautzen du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak aho batez zehaztuko dituela zenbait proiektu burutzeko zenbatekoak finantzatzeko modua, bai Estatuko Administrazioaren eskumenetan eragina dutelako, bai Euskadiren sustapenerako eta ekonomia-garapenerako berebiziko garrantzia dutelako, baldin eta garrantzi handiko baliabide-izendapenak behar badituzte eta erakunde guztietan eragina badute.

- Se determina que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordará por unanimidad la forma de financiar determinados proyectos que, bien por incidir en competencias del Estado, bien por tener una relevancia capital para la promoción y el desarrollo económico del País Vasco, precisen de una asignación de recursos muy importante y afecten al conjunto de las Instituciones del País Vasco (Disposición Adicional Tercera).

- Toki-erakundeek Ekonomia Ituna kudeatzetik eskuratutako sarreretan izango duten partaidetzari buruz dihardu Laugarren Xedapen Gehigarriak, eta foru-aldundiek gutxienezko partaidetza % 53tik % 54,70era igo behar dutela gomendatzen da. Aldaketa horrek foru-aldundien aldeko koefiziente bertikalaren aldaketari erantzuten dio, aldaketa hori Ekonomia Itunaren kudeaketatik datozen diru-sarreretan duten partaidetza handitzera bideratu baita oso-osorik.

- En lo referente a la participación de los Entes Locales en los ingresos procedentes de la gestión del Concierto Económico (Disposición Adicional Cuarta), se aumenta la recomendación de la participación mínima del 53% al 54,70% de los recursos correspondientes a cada Diputación Foral. Este cambio responde a la modificación del coeficiente vertical a favor de las Diputaciones Forales, que se traslada íntegramente a aumentar la participación de los entes locales en los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico.

3. EUROPAR BATASUNETIK DATOZEN FUNTSAK

3.a. 2014-2020 aldirako egitura- eta kohesio-politika

Europa 2020 estrategiatik datoz politikaren aldaketak 2014-2020 aldirako.

EBk anbizio handiko hainbat helburu markatu ditu 2020. urterako, bost area nagusitan:

- **Enplegua** - Lana eduki beharko luke 20 eta 64 urte bitarteko herritarren % 75ek.
- **Berrikuntza** - Ikerketan eta garapenean inbertitu beharko litzateke EBko BPGdaren % 3.
- **Klima-aldaketa** - Klima eta energia gaietan «20/20/20» helburua lortu beharko litzateke (emisioen murrizketa % 30era handitzea barne, horretarako baldintzak batuz gero).
- **Hezkuntza** - % 10etik beherakoa izan beharko luke eskola uzten dutenen ehunekoak, eta 30 eta 34 urte arteko pertsonen % 40k, gutxienez, goi mailako ikasketa osoak izan beharko lituzke.
- **Pobrezia** - Pobrezia-arriskuak edo bazterkeriak 20 milioi pertsona gutxiagori mehatxatu beharko lioke.

Kohesio-politikak finantza-markoa eta aplikazio-sistema dakartza Europa 2020ren helburuak lortzeko.

Gauzak horrela, funtsezko bi helburu definitzea ekarri du erreformak:

- Hazkundeko eta enpleguko inbertsioa, helburu komuna da hiru eskualde-kategorietarako: garatuenak, trantsizio-prozesuan daudenak eta garapen txikiagoa dutenak (FEDER, FSE eta Kohesio Funtsaren finantzaketa).

FEDER eta FSE funtsen onuradun izango dira

3. FONDOS PROCEDENTES DE LA UNIÓN EUROPEA

3.a. Política Estructural y de Cohesión para el período 2014-2020

Las reformas de la política para el periodo 2014-2020 se derivan de la Estrategia Europa 2020.

La UE se ha marcado una serie de ambiciosos objetivos, que deben alcanzarse en 2020, en cinco áreas principales:

- **Empleo** - El 75 % de la población de entre 20 y 64 años debería estar empleada.
- **Innovación** - El 3 % del PIB de la UE debería ser invertido en investigación y desarrollo.
- **Cambio climático** - Debería alcanzarse el objetivo «20/20/20» en materia de clima y energía (incluido un incremento al 30 % de la reducción de emisiones si se dan las condiciones para ello).
- **Educación** - El porcentaje de abandono escolar debería ser inferior al 10 % y al menos el 40 % de las personas de entre 30 y 34 años debería tener estudios superiores completos.
- **Pobreza** - El riesgo de pobreza o exclusión debería amenazar como mínimo a 20 millones de personas menos.

La política de cohesión aporta el marco financiero y el sistema de aplicación práctica alcanzar los objetivos de Europa 2020.

Así, la reforma ha dado como resultado la definición de dos objetivos fundamentales:

- Inversión en crecimiento y empleo, un objetivo común para las tres categorías de regiones: más desarrolladas, en transición y menos desarrolladas (financiación del FEDER, FSE y Fondo de Cohesión).

Todas las regiones serán beneficiarias de los

eskualde guztiak; hala ere, bereizi dira garapen txikiagoa duten, trantsizio-prozesuan dauden eta garatuen dauden eskualdeak, funtsak esleitzeko BPGdaren mailaren arabera:

- Gutxiago garatutako eskualdeen barruan sartzen dira EB-27ren batez besteko BPGdaren % 75etik beherakoa duten biztanleko BPGda duten eskualdeak. Aldi baterako finantzaketaren gehieneko tasa % 75-85koa da garapen txikiagoko eskualdeetan eta eskualde ultra periferikoetan.

- Trantsizio-prozesuan dauden eskualdeak, aurreko aldiaren mailaz mailako baztertze- eta sartze-eskualdeak, EB-27ren batez besteko BPGdaren % 75etik eta % 90etik beherakoa duten biztanleko BPGda dutenak dira. Aldi baterako finantzaketaren gehieneko tasa % 60koa da.

- Garatuago dauden eskualdeak, EB-27ren batez besteko BPGdaren % 90etik beherakoa duten biztanleko BPGda duten eskualdeak dira. Aldi baterako finantzaketaren gehieneko tasa % 50koa da.

- **Europako Lurralde Kooperazioa,** 2014tik mantentzen da, eta mugaz haraindiko, estatuz haraindiko eta eskualde arteko lankidetza du ardatz. FEDERren bidez finantzatzen da.

Estrategia hori betetzeko finantzaketa ematea da Europako egiturazko eta inbertsioko funtsen helburua, baita funts bakoitzaren misio espezifikoetarako ere, lurralde-kohesioa eta ekonomia- eta gizarte-kohesioa barne.

3.b. Euskadiren partaidetza 2014-2020 aldirako

Europar Batasuneko Urte anitzeko Finantza Esparrua (2014-2020) finantza programa bat da. Haren bitartez, EBak bere politika ekonomikoak garatzen ditu zazpi urterik behin, sektore guztietako ehunka mila onuradunei finantza arloko laguntza ematen

fondos FEDER y FSE, sin embargo se establece una distinción entre regiones menos desarrolladas, en transición y más desarrolladas, para la asignación de los fondos en función del nivel del PIB:

- Regiones menos desarrolladas, incluye a regiones cuyo PIB per cápita es inferior al 75 % del PIB medio de la UE-27. La tasa máxima de cofinanciación se establece en el 75-85 % para las regiones menos desarrolladas y para las regiones ultraperiféricas.

- Regiones en transición, regiones de exclusión e inclusión gradual del período anterior, incluye a aquellas con un PIB per cápita entre el 75 y 90 % de la media de la UE-27. La tasa máxima de cofinanciación se establece en 60%.

- Regiones más desarrolladas, incluye a regiones cuyo PIB per cápita es superior al 90 % de la media de la UE-27. La tasa máxima de cofinanciación será del 50%.

- **Cooperación Territorial Europea** se mantiene a partir de 2014, y sigue centrándose en la cooperación transfronteriza, transnacional e interregional. Se financia a través del FEDER.

El objetivo de los Fondos Estructurales y de Inversión Europea es proporcionar financiación para cumplir esta estrategia, así como para las misiones específicas de cada fondo, incluida la cohesión territorial, social y económica.

3.b. Participación del País Vasco para el período 2014-2020.

El Marco Financiero Plurianual de la Unión Europea 2014-2020 es el programa financiero mediante el que la UE desarrolla sus políticas económicas cada siete años a través de varios programas y fondos que proporcionan apoyo financiero a cientos de miles de

dioten zenbait programa eta fondoren bitartez, hala arlo publikoan nola pribatuan.

Hauek dira EBko herrialde guztietako garapen ekonomikoa babesteko lan egiten duten funtsak:

EGEF

2014-2020 Euskadiko Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsaren Programa Eragilea 2015eko otsailaren 12an onartu zuen Europako Batzordeak.

2014-2020 Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsaren Programa Eragilea Euskadin agiriak Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsak 2014-2020 zazpiurtekorako kofinantzatutako jardueretan Euskadin ezarriko diren estrategia eta esku-hartze helburuak zehazten ditu. Europako laguntza-programa 176,45 milioi euroz hornituta dago eta aukera emango dio Euskadiri 352,8 milioi euroko inbertsioak egiteko zazpi urte horietan, euskal herri-administrazioen aurrekontuen bitartez.

2014-2020 Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsaren Programa Eragilea Euskadin agiria Euskadiko aurrerabidea bermatzeko plan estrategikoetan oinarrituta diseinatu da, betiere Espainiak Europar Batasunarekin elkartzeko sinatutako akordioarekin eta Europa 2020 Estrategiarekin bat eginez –hazkunde inteligente, jasangarri eta integratzailea sortzea eta Europar Batasuneko eskualdeen gizarte, lurralde eta ekonomia arloko kohesioa bermatzea du helburu estrategiak–.

EGIF

Europako Batzordeak Europako Gizarte Funtsaren Euskal Autonomia Erkidegoko programa operatiboa onartu zuen 2015eko abuztuan. Europar Batasuneko aukera indartzen du hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzailea zein gizarte, lurralde eta ekonomia arloko kohesioa bultzatzeko.

2014-2020 aldirako, programak 107,65 milioi euroko aurrekontua aurreikusten du. Aurrekontuaren erdia, hau da, 54,12 milioi euro, Europar Batasunak jarriko du; beste erdia, euskal erakundeek.

beneficiarios de todos los sectores tanto a nivel público como privado.

Los fondos que trabajan para respaldar el desarrollo económico en todos los países de la UE, entre otros, son:

FEDER

El Programa Operativo FEDER del Pais Vasco 2014-2020 fue aprobado por la Comisión Europea en febrero de 2015.

El POPV FEDER 2014-2020, determina la estrategia y los objetivos temáticos de intervención en Euskadi relativas a las actuaciones cofinanciadas por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER) para el periodo de siete años 2014-2020. El programa de ayudas europeo asciende a 176,45 millones de euros, y va a permitir acometer en Euskadi inversiones por importe de 352,8 millones de euros durante esos siete años, a través de los presupuestos de las Administraciones Públicas Vascas.

El POPV FEDER 2014-2020, ha sido diseñado en base a los planes estratégicos para el progreso de Euskadi y en coherencia con el Acuerdo de Asociación del Estado Español, y con los objetivos de la Estrategia Europa 2020 de la Unión Europea, dirigida a generar un crecimiento inteligente, sostenible e integrador y a la cohesión económica, social y territorial de las regiones de la UE.

FSE

La Comisión Europea aprobó el Programa Operativo del Fondo Social Europeo (FSE) de la Comunidad Autónoma del País Vasco en agosto de 2015. Contribuye a la Estrategia de la Unión para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador y a la cohesión económica, social y territorial.

Horrenbestez, kenkarietan gaineratutako datua banakatu, eta honako hauek eragindako kenkariak identifikatu eta kuantifikatu dira:

Aktibo zirkulatzaile berrietan eginiko inbertsioak

Ikerketa eta garapenerako ekintzak eta berrikuntza teknologikoaren ekintzak (I+G+b)

Ingurumenarekin loturiko inbertsioak eta gastuak

Enplegua sortzea

Kultura sustatzea

Mezenasgoko ekintzak

Kooperatibak

Sozietateen gaineko Zergaren kuotako kenkarien banakatze hori ekitaldian sortu eta aplikatu direnen gainean besterik ez da egiten; hau da, momentuz ez da zabaldu ekitaldian aplikatu diren baina aurreko urteetan sortu ziren kenkarietara, zaila baita kontzeptu bakoitzari zein dagokion zehaztea.

Bestalde, betiere lehen aldiz aplikatu zen urtean (2015ean) erregistratutako emaitzak ezagututa eta erreferentziatzat hartuta, 2016ko aurrekontu honetan kuantifikatu dira lehen aldiz irabazi eta galeren kontuaren emaitzan egindako egokitzapen hauek nabarmendu behar dira:

Merkataritza-funts finantzarioa

Jabetza intelektuala edo industriala ustiatzeagatiko murrizketa

Impuesto sobre Sociedades

En la misma línea de ofrecer un mejor detalle del destino de los gastos fiscales, se incorpora en el Presupuesto de Gastos Fiscales de 2016 un desglose de las principales deducciones en la cuota de Impuesto sobre Sociedades que no se reflejaba en el ejercicio anterior.

Por tanto, se desglosa el dato agregado de deducciones, identificando y cuantificando las deducciones generadas por:

Inversiones en activos corrientes nuevos

Actividades de investigación y desarrollo y actividades de innovación tecnológica (I+D+i)

Inversiones y gastos de carácter medioambiental

Creación de empleo

Fomento a la cultura

Actividades de mecenazgo

Cooperativas

Este desglose de las deducciones en la cuota del Impuesto sobre Sociedades solo se realiza respecto a las que han sido generadas y aplicadas en el ejercicio, sin extenderse por el momento a las deducciones aplicadas en el ejercicio pero que fueron generadas en ejercicios anteriores, por la dificultad que entraña su imputación a cada uno de los diferentes conceptos.

Por otra parte, una vez conocidos y tomados como referencia los resultados registrados correspondientes a su primer año de aplicación 2015, en el Presupuesto de 2016 se cuantifican los siguientes ajustes al resultado de la cuenta de pérdidas y ganancias:

Fondo de comercio financiero

Reducción de ingresos procedentes de la propiedad intelectual o industrial.

Salbuespen partziala duten sozietateek

Enpresen kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa

Ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba berezia

Zerga Bereziak. Elektrizitatearen gaineko Zerga

2015etik aurrera, Elektrizitatearen gaineko Zerga ez da fabrikazioaren gaineko zerga gisa egituratzen (lehen Fabrikazioaren Zerga Berezien baitan sartzen zen), eta orain kontsumorako edo norberak sortutako elektrizitatearen ekoizleen kontsumorako energia elektrikoaren horniduraren zerga ezartzen du. Horregatik egokitu da terminologia eta hurrenkera.

Autonomia Erkidegoan, Gastu Fiskalen 2016rako Aurrekontuak 6.015,34 milioi eurokoa da, hau da, kontuan hartutako zergetan itundutako zergengatik (aurrekontuan sartutako diru-sarreren eta gastu fiskalen batura) aurreikusitako diru-sarrera teorikoen %31,2.

Entidades parcialmente exentas

Compensación para fomentar la capitalización empresarial

Reserva especial para el fomento del emprendimiento y el fortalecimiento de la actividad productiva

Impuesto Especiales. Impuesto sobre la Electricidad

A partir de 2015, el Impuesto sobre la Electricidad, que anteriormente se encuadraba entre los Impuestos Especiales de Fabricación, deja de configurarse como un impuesto sobre la fabricación, para pasar a ser un impuesto que grava el suministro de energía eléctrica para consumo o su consumo por los productores de aquella electricidad generada por ellos mismos. Esta circunstancia motiva la correspondiente adaptación terminológica y de orden.

El Presupuesto de Gastos Fiscales para el año 2016 en la Comunidad Autónoma se eleva a 6.015,34 millones de euros, lo que supone el 31,2% de los ingresos teóricos por tributos concertados (suma de los ingresos presupuestados y los gastos fiscales) en las figuras tributarias consideradas.

GASTU FISKALEN AURREKONTUA. ITUNDUTAKO ZERGAK. 2016 PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES. TRIBUTOS CONCERTADOS. 2016				
				°°°€
	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas	275.002	874.417	613.090	1.762.508
Sozietateen gaineko Zerga Impuesto sobre Sociedades	65.003	203.447	125.907	394.356
Ondarearen gaineko Zerga Impuesto sobre el Patrimonio	34.371	94.752	35.744	164.867
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	374.376	1.172.615	774.740	2.321.732
Balio Erantsiaren gaineko Zerga Impuesto sobre el Valor Añadido	551.241	1.704.203	1.109.886	3.365.330
Ondare Eskualdaketa eta EJDen g/Zerga Impuesto s/Transmisiones Patrimoniales y AJD	44.809	51.480	38.763	135.052
Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia Imp. Especial s/Determinados Medios de Transporte	530	1.452	2.142	4.124
Fabrikazio Zerga Bereziak II. Especiales de Fabricación	26.624	82.312	53.606	162.542
Elektrizitatearen gaineko Zerga Impuestos sobre la Electridad	339	1.047	682	2.068
Aseguru Sarien gaineko Zerga Impuesto sobre Primas de Seguros	4.012	12.405	8.079	24.496
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	627.555	1.852.899	1.213.158	3.693.612
GUZTIRA / TOTAL	1.001.931	3.025.514	1.987.898	6.015.344

KOADROA / CUADRO VII. 71

Gastu fiskalen % 40,8 araudi autonomoaren peko itundutako zergei dagokie: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga (Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga, Gipuzkoan) eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko eta Dokumentatuen gaineko Zerga.

El 40,8% de los gastos fiscales corresponde a tributos concertados de normativa autónoma: Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades, Impuesto sobre el Patrimonio (Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas en Gipuzkoa) e Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (aurrerantzean PFEZ) pertsona fisikoen errenta zergapetzen duen izaera zuzeneko eta mota pertsonal eta subjektiboko araudi autonomoaren peko itundutako zerga bat da. Gastu fiskala sortzen da errentaren osagarrietako bat zergapean ez dagoenean edo errentaren osagarrietako bati nahiz errenta osoari dagozkion zergak egiturazko tarifaren arabera ordaintzen ez direnean.

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

El Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (en adelante, IRPF) es un tributo concertado de normativa autónoma, de carácter directo y naturaleza personal y subjetiva que grava la renta de las personas físicas. Se genera gasto fiscal cuando algún componente de renta no es objeto de tributación o cuando un componente o el conjunto de la renta no tributa en su totalidad según la tarifa estructural.

Banakako zerga-ordainketa da egiturazkotzat jotzen dena. Beraz, baterako zerga-ordainketa gastu fiskaltzat jotzen da, familia-unitatea gutxiago zergapetzen duten berariazko trataerak bezala. Aitzitik, ondarezko irabazien eta galeren zerga-ordainketa egiturazko izaera dutela jotzen da.

Horrez gain, honako hauek ez dira gastu fiskaltzat hartzen: Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergapeko ondare-irabazien kargarik eza; zergapetze bikoitza ekiditeko ezarritako kenkari teknikoak; alokatuko diren etxebizitzak erosteko maileguen interes tasen kenkaria (gastu hori errenta lortzeko ezinbestekotzat jotzen baita); familia kenkariak zein kenkari pertsonalak, egiturazko izaera baitute; eta aitorpena egiteko derrigortasunaren gutxienekoak. Modu berean, ez dira gastu fiskaltzat hartzen denboran irregulartasun nabariaz lortutako errendimenduei aplikatutako murriztapenak edo bi urte baino gehiagoko sorpen-zikloa dutenak, zerga-karga egokitzea helburu dutenak errenta zerga-aldi batzuetan Portu delako.

Halere, honako hauek badira gastu fiskaltzat hartzen: ondasun jakin batzuk dohaintzan ematearen ondorioz agertzen diren ondare irabazi eta murrizketen kargarik eza; errenta batzuen salbuespena; lan errendimenduen hobaria aplikatzeagatik, Pentsio Plan eta BGAEtarako ekarpenengatiko eta inbertsioarengatiko oinarri ezargarriaren gutxipenak; eta baita koiunturazko pizgarriak ere.

Horiek kuantifikatzeko, simulazio teknikak erabiltzen dira, bai aitortzen duten guztiekin bai zerga-oinarriaren tarteen arabera zergadunek osatutako lagin adierazgarri bat hartuta, zerga onuren eragina zehazten da zergadunez zergadun. Kuotako kenkariei lotutako gastu fiskala, benetan aplikatu den zenbateko ekarpena da. Kuota osoa nahikoa ez delako aplikatu ez diren kenkariei dagokienez, izandako galera kenkari bakoitzerako aitortutako zenbatekoari jarraiki proportzionalki banatzea erabaki da. Baina, PFEZn jasotako gastu fiskal guztiak ez dira zenbatzen, batzuetan, datuak ez daudelako eta, bestetan, balorazio bereiztua behar dituzten arazoak sortzen direlako.

Se considera estructural el régimen de tributación individual. Por tanto, la tributación conjunta genera gasto fiscal, al igual que los tratamientos específicos que implican un menor gravamen de la unidad familiar. Por el contrario, la tributación de las ganancias y pérdidas patrimoniales se considera que tienen un carácter estructural.

Además, no constituyen gasto fiscal: la no sujeción de los incrementos de patrimonio gravados en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, las deducciones técnicas para evitar la doble imposición, la deducción de intereses por créditos para la adquisición de vivienda destinada a alquiler (al considerarse gasto necesario para la obtención de renta), las deducciones familiares y personales, por tener carácter estructural, y los mínimos de la obligación de declarar. Tampoco se consideran gasto fiscal las reducciones aplicadas a los rendimientos obtenidos de forma notoriamente irregular en el tiempo o con ciclo de generación superior a dos años, que tratan de adecuar la carga tributaria por generarse la renta en varios períodos impositivos.

Sin embargo, sí son gasto fiscal: la no sujeción de los incrementos y disminuciones patrimoniales que se pongan de manifiesto con motivo de donaciones de determinados bienes, las exenciones de ciertas rentas, las minoraciones de la base imponible debidas a la aplicación de la bonificación de los rendimientos del trabajo, a aportaciones a Planes de Pensiones y EPSVs y por inversión, así como, los incentivos coyunturales.

Para su cuantificación se aplican técnicas de simulación bien con toda la población de declarantes bien con una muestra representativa de contribuyentes por tramos de base imponible, determinando para cada contribuyente el impacto de los beneficios fiscales. El gasto fiscal asociado a las deducciones en la cuota es el montante realmente aplicado. Para la parte de las deducciones no aplicadas por insuficiencia de la cuota íntegra se opta por repartir la pérdida proporcionalmente al importe declarado de cada deducción. Pero, no todos los gastos fiscales considerados en el IRPF son computados, debido a la ausencia de datos, y, en otros casos, se plantean dificultades que precisan de una evaluación individual.

Autonomia Erkidego osorako, zenbatetsitako gastu fiskalak 1.762,5 milioi eurokoak dira, hau da, zerga honen 2016rako diru-sarrera teorikoen (aurrekontuan sartutako diru-sarreren eta gastu fiskalen batura) %26,7.

PFEZri dagozkion gastu fiskalen kontzeptuen araberako xehatzea (mila eurotan) honako hau da:

Para el conjunto de la Comunidad Autónoma los gastos fiscales estimados se cuantifican en 1.762,5 millones de euros, lo que supone un 26,7% de los ingresos teóricos (presupuesto de ingresos + gastos fiscales) por este Impuesto para el año 2016.

El desglose por conceptos de los gastos fiscales correspondientes al IRPF, en miles de euros, es el siguiente:

errenta salbuetsiak / exenciones		198.879
berrinbertsioa ohiko bizilekuan / reinversión en vivienda habitual	11.540	
jasotako dibidenduak / dividendos percibidos	25.367	
loterien gaineko zerga berezia / gravamen especial loterias	42.717	
terrorismo-ekintzen ondorioz jasotako prestazioak / prestaciones por actos de terrorismo	3.213	
kaleratzeagatiko kalte-ordainak / indemnizaciones por despido	20.291	
baliaezintasun pentsioak / pensiones de invalidez	81.926	
seme-alabengatiko eta zurztasunagatiko prestazioak/prestaciones familiares por hijo, orfandad, maternidad	2.430	
atzerrian egindako lanak / trabajos realizados en el extranjero	4.544	
gainerako salbuespenak / resto de exenciones	6.852	
murrizketak zerga-oinarrian / reducciones en la base imponible		1.180.809
lanaren etekin hobariak / bonificación rendimientos del trabajo	774.529	
BGAE-etarako ekarpenak / aportaciones a EPSVs	183.764	
baterako tributazioa / tributación conjunta	218.123	
bizi-aseguruen kontratuen araubide iragankorra / régimen transitorio seguros de vida	4.393	
kenkariak / deducciones		382.820
inbertsioa ohiko bizilekuan / inversión en vivienda habitual	359.531	
inbertsioa jarduera ekonomikoetan / inversión en activ. econ.	2.049	
mezenasgo-jarduerak / actividades de mecenazgo	13.374	
besteak / otras	7.866	
guztira / total		1.762.508

Sozietateen gaineko Zerga

Ekonomia Itunaren 14. artikuluan ezarrita dago Sozietateen gaineko Zerga itundutako zerga dela, eta araudi autonomoaren pean egongo dela zerga-egoitza Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan. Beraz, Zerga honen araudi autonomoa ondorengo baldintza hauetako edozeinetan dauden erakundeei aplikatuko zaie:

- Zerga-egoitza Euskadin dutela, beraien eragiketen zenbateko osoa 7 milioi eurotik gorakoa ez duten erakundeak, ala, horrela balitz, beraien eragiketa osoen %75 edo gehiago lurralde erkidean egiten ez dutenak.

- Eragiketa guztiak Euskadin egiten dituztela, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbateko osoa 7 milioi eurotik gorakoa duten erakundeak,

Impuesto sobre Sociedades

En el artículo 14 del Concierto Económico se establece que el Impuesto sobre Sociedades es un tributo concertado de normativa autónoma para los sujetos pasivos que tengan domicilio fiscal en el País Vasco. Así, la normativa autónoma de este Impuesto se aplica a las entidades que se encuentren en cualquiera de los siguientes supuestos:

- Entidades que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco y su volumen total de operaciones no sea superior a 7 millones de euros, o siéndolo no realicen en Territorio Común el 75% o más del total de sus operaciones.

- Entidades que operen sólo en el País Vasco y su volumen total de operaciones en el ejercicio anterior exceda de 7 millones de euros, independientemente de su domicilio

zerga-egoitza non duten kontuan hartu gabe.

Kontuan hartu behar da honako hauek ez direla gastu fiskaltzat hartzen: "erakunde" publiko ezberdinentzat aurreikusita dauden salbuespenak; subjektu pasiboa eta aktiboa bera izatea eta zergapetze bikoitzarengatiko kenkariak, horiek duten izaera teknikoagatik.

Hala ere, gastu fiskaltzat hartzen dira ondorengo hauek: amortizatzeko askatasuna (nahiz eta ekitaldi honetan kontzeptu honetatik zuzenketarik zenbatu ez diren), aparteko onuren berrinbertsioarengatiko salbuespena, orokorra ez den bestelako karga tasak eta kenkariak. Baita ere, tamaina txikiko enpresentzako zerga pizgarriak eta gertakizun zehatz batzuei lotutakoak, dohaintzak, eta atzerapenerako beste kasu batzuk, bai eta dokumentuan zehaztutako irabazi eta galeren kontuaren emaitzan egindako gainerako egokitzapenak ere.

Gastu fiskala, 2016ko ekitaldian, 394,4 milioi eurokoa izango dela aurreikusi da. Zenbateko hori Euskal Autonomia Erkidego osorako zerga honetarako aurreikusitako diru sarrera teorikoen %25,1en bestekoa da.

SZri dagozkion gastu fiskalen kontzeptuen araberako xehatzea (mila eurotan) honako hau da:

fiscal.

A tener en cuenta que no tienen la consideración de gasto fiscal las exenciones previstas relativas a distintas "entidades" públicas, por coincidencia de sujeto activo y pasivo y las deducciones por doble imposición por su carácter técnico.

Sin embargo, sí constituyen gasto fiscal la libertad de amortización (aunque en este ejercicio no se ha computado corrección por este concepto), la exención por la reinversión de beneficios extraordinarios, los tipos de gravamen distintos del general y las deducciones. También, los incentivos fiscales para empresas de reducida dimensión y los asociados a determinados acontecimientos, las donaciones y otros supuestos de diferimiento, así como el resto de ajustes al resultado de la cuenta de pérdidas y ganancias que se detallan en el documento.

El gasto fiscal estimado para el ejercicio 2016 asciende a 394,4 millones de euros. Este importe equivale al 25,1% de los ingresos teóricos previstos para este Impuesto en el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El desglose por conceptos de los gastos fiscales correspondientes al IS, en miles de euros, es el siguiente:

Irabazi eta galeren kontuaren emaitzan egindako doikuntzak / Ajustes al resultado en la cuenta de perdidas y ganancias	117.026
Zuzenketak gastuen atalean / Correcciones en materia de gastos	17.081
Merkataritza-funts finantzarioa / Fondo de comercio financiero	16.260
Beste zuzenketa batzuk gastuen atalean / Otras correcciones en materia de gastos	821
Zuzenketak sarreren atalean / Correcciones en materia de ingresos	66.150
Salbuespena aparteko mozkinetan egindako berrinbertsioan / Exención reinversión de beneficios extraordinarios	20.003
Jabetza intelektuala edo industriala ustiagatiko murrizketa / Reducción de ingresos procedentes de la propiedad intelectual o industrial	27.391
Salbuespen partziala duten sozietateak / Entidades parcialmente exentas	9.986
Higiezinen errentamenduko sozietateak / Entidades arrendamiento inmuebles	3.104
Tokiko zerbitzu publikoak eskaintzeagatik / Prestación de servicios públicos locales	3.416
Itsas garraioko enpresen araubidea / Régimen de las empresas de transporte marítimo	2.000
Beste zuzenketa batzuk sarreren atalean / Otras correcciones en materia de ingresos	250
Zuzenketak zerga-oinarrian / Correcciones a la base imponible	33.795
Mikroenpreseei zerga konpentsazioa / Compensación tributaria microempresas	18.346
Enpresen kapitalizazioa konpentsazioa / Compensación capitalización empresarial	7.865
Mozkinak nibelatzeko erreserba / Reserva nivelación de beneficios	1.516
Ekintzailetza sustatzeeko erreserba / Reserva fomento emprendimiento	6.068
Zerga-tasa bereziak / Tipos impositivos especiales	54.969
Mikro eta enpresa txikiak / Microempresas y pequeñas empresas	34.800
Kooperatibak / Cooperativas	11.652
Bestelako tasa bereziak / Otros tipos especiales	8.517
Kuota osoari ezarritako kenkariak / Deducciones en la cuota íntegra	222.361
Ekitaldi honetako sortutako eta aplikatutakoak / Generadas y aplicadas en el ejercicio	84.347
Aktibo ez-korrente berrietan egindako inbertsioak / Inversiones en activos no corrientes nuevos	40.207
I+G+i / I+D+i	22.030
Ingurumena / Medio ambiente	426
Emplegua sortzea / Creación de empleo	8.051
Kultura sustatzea eta mesenazgo / Fomento de la cultura y mecenazgo	1.230
Kooperatibak / Cooperativas	12.006
Nekazaritzarako neurri fiskalak (1/97 Arabako FA) / Medidas fiscales agricultura (NF 1/97 Álava)	397
Aurreko ekitaldietan sortutakoak / Generadas y aplicadas en ejercicios anteriores	138.015
guztira / total	394.356

Ondarearen gaineko Zerga / Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga

Pertsona fisikoen ondare zergapetzen duen izaera pertsonal eta zuzena duen zerga bat da hau. Araudi autonomoaren peko itundutako zerga da, beraz, lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek hura arautzeko gaitasuna dute, Itunean jasota dauden harmonizazio arauak bakarrik muga dutelarik.

Muga jakin bat gainditzen duen zergadunen, pertsona fisikoen, ondasun garbia da zergaren oinarri ekonomikoa. Beraz, gastu fiskala egongo da aitorpena egin behar duen pertsona batek zerga ordaintzen ez badu (salbuespena) edo ordaintzen duenean baina ez, guztiz edo hein batean, Zergaren tarifan ezarrita dagoen moduan. Halere, ez dira gastu fiskaltzat hartzen aitorpena egin behar izateko mugapena ezta zergapetze bikoitzarengatiko kenkariak ere.

Impuesto sobre el Patrimonio / Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas

Éste es un tributo de naturaleza personal y directa que grava el patrimonio neto de las personas físicas. Tiene carácter de tributo concertado de normativa autónoma, por tanto, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos disponen de capacidad para regularlo sin otras limitaciones que las propias normas de armonización contenidas en el Concierto.

La base económica del Impuesto está constituida por la riqueza neta de los contribuyentes, personas físicas, que exceda de un determinado límite. En consecuencia, existirá gasto fiscal si la riqueza neta de una persona obligada a declarar no tributa (exención) o lo hace, en todo o en parte, de manera distinta a la fijada en la tarifa del Impuesto. No se consideran, sin embargo, gasto fiscal el límite de la obligación de declarar ni las deducciones por doble imposición.

Gastu fiskaltzat hartzen dira, beraz, ondasun eta eskubide zergagabetuak (bereziki, ohiko etxebizitza), gutxieneko kopuru zergagabetua eta kuota osoaren PFEZrekin baterako muga.

2016 urterako aurreikusi den gastu fiskalak 164,9 milioi euro jotzen du, hau da, Autonomia Erkidego osorako sarrera teoriko guztien %51,6.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Balio Erantsiaren gaineko Zerga Europar Batasunean bateratuta dago eta estatu-kideek duten araugintzarako ahalmena elkartearen araudian berariaz jasota dauden alde zehatz batzuetara mugatzen da. Inguruabar honek dakar, Zergaren berariazko ezaugarriekin batera, Estatuaren eta Euskadiren artean adosteko orduan ordainarazteko ahalmenaren banaketan arreta jartzea, araugintzarako ahalmena kudeaketa aldeetara mugatzen baita.

BEZan gastu fiskalak dira, beraz, Zergaren egitura-elementutzat jotzen den % 21eko tasa orokorra baino txikiagoko zerga-tasan zergapetutako eragiketengatik eratorritakoak, eta baita salbuetsitako eragiketengatik eratorritakoak ere. Horrela, % 10reko tasa murriztuaz eta %4ko tasa oso murriztuaz zergapetutako eragiketak dira, ondorioz, gastu fiskala.

Bestalde, salbuetsitako eragiketen artean gastu fiskala sortzen ez dutenak honako hauek izango dira: arrazoi tekniko edo errazgarriak direla bide baztertu direnak; Zergaren helburutik kanpo daudenak edo aplikatzen den lurraldean kontsumorako bideratzen ez direnak; zergaren funtzionamendu zuzenerako laguntzen dituztenak edo, beste zerga baten zergapetzean dauden eragiketak direlako, zerga bikoiztea ekiditen dituztenak. Egoera honetan daude aseguru-jarduerak, alokairuak, landa-lurren eskualdatzeak, eraikuntzen bigarren edo ondorengo emateak, loteriak, apustuak eta zorizko jokoekin loturiko salbuespenak.

Gastu fiskala sortzen duten salbuetsitako eragiketak hezkuntza eta osasun zerbitzu pribatuak, gizarte-laguntza, kirola, kultura, eta finantza zerbitzuekin eta zenbait lanbide-zerbitzuekin lotetsita daude. Horrez gain, badira ere erkidegoen arteko erosketak eta

Son gasto fiscal, por tanto, los bienes y derechos exentos (en particular la vivienda habitual), el mínimo exento y el límite conjunto con el IRPF de la cuota íntegra.

El gasto fiscal estimado para 2016 alcanza los 164,9 millones de euros, es decir, un 51,6% de los ingresos teóricos por este concepto del conjunto de la Comunidad Autónoma.

Impuesto sobre el Valor Añadido

El Impuesto sobre el Valor Añadido está armonizado en el conjunto de la Unión Europea y la capacidad normativa de los Estados miembros se limita a determinados aspectos expresamente previstos por la regulación comunitaria. Esta circunstancia, junto a las características propias del Impuesto, ha significado que en su concertación entre el Estado y el País Vasco se atienda al reparto de la capacidad exaccionadora, dado que la capacidad normativa se limita a aspectos de gestión.

Constituyen, por tanto, gastos fiscales en el IVA los derivados de las operaciones gravadas a tipos impositivos reducidos distintos del general del 21%, que se considera elemento estructural del Impuesto, y también los derivados de las operaciones exentas. Así, las operaciones gravadas al tipo reducido del 10% y al tipo superreducido del 4% constituyen, por tanto, gasto fiscal.

Por otra parte, de las operaciones exoneradas, se considera que no son generadoras de gasto fiscal aquellas cuya exclusión responde a razones técnicas o simplificadoras, así como por situarse fuera del objeto del Impuesto o no destinarse a consumo en el territorio de aplicación, además de las que favorecen el correcto funcionamiento del tributo o evitan la doble imposición, al tratarse de operaciones gravadas por otros tributos. Este es el caso de las exenciones relacionadas con la actividad aseguradora, arrendamientos, transmisiones de terrenos rústicos, segundas o ulteriores entregas de edificaciones, loterías, apuestas y juegos de azar.

Las operaciones exentas que se consideran constitutivas de gasto fiscal están relacionadas con los servicios educativos y sanitarios privados, asistencia social, deportivos, culturales, financieros, determinados servicios profesionales y

inportazioak ere.

Salbuespenak eraginiko gastu fiskala, zerga-bilketa txikiagoa, 1.413,4 milioi eurokoa da; tasa txit murriztua aplikatzeak 575,7 milioi euro sortu du eta tasa murriztuak 1.376,2 milio euro. Beraz, guztira 3.365,3 milioi euro dira, hau da, diru sarrera teorikoen %38,4.

Ondare-eskualdaketen eta Egintza Jurídico Dokumentatuen gaineko Zerga

Zerga hau itundutako zerga da eta araudi autonomoaren pean dago, sozietate eragiketetan, truke letretetan eta ordezko balioa edo igorpen zeregina duten agirietan izan ezik; halakoetan arau erkideaz beteko dira. Zeharkako zerga bat da, eta kostu bidezko ondare eskualdaketak, sozietate eragiketak eta egintza juridiko dokumentatuak zergapetzen ditu.

Zergapeko egitate berean zerga ezberdinak eta baita Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren irudi ezberdinak ere biltzen direnez gero, horien arteko bateraezintasunak mugatu dira; horrela, zergaren edo zergaren motaren baten kargarik eza sortzen duten bateraezintasun egoera horiek ez dute gastu fiskala sortzeko biderik ematen.

Zergari buruzko foru arauetan onura fiskalak aplikagarriak diren kasuen zerrenda luze bat jasota dago. Onura horiek, kasuen arabera, kontzeptu baten, batzuetan edo guztietan izan dezakete eragina. Zergari buruzko foru arauetan bertan jasotakoak aparte, badira zerga salbuespen eta onurak biltzen dituzten hainbat xedapen. Zerga onura horiek hiru kontzeptupean sailka daitezke: salbuespenak, zerga tasa murriztuak eta hobariak.

Zerga honetarako zenbatetsitako gastu fiskala 135 milioi eurokoa da. Kopuru honek, Autonomia Erkidegoan zerga honetan 2016. urterako aurreikusi den diru-sarrera teorikoei dagokienez, %46,7 hartzen du. Horren banakapena, kontzeptuen arabera,

algunas adquisiciones intracomunitarias e importaciones.

El gasto fiscal, menor recaudación, motivada por las exenciones asciende a 1.413,4 millones de euros, la aplicación del tipo "superreducido" genera 575,7 millones de euros y el tipo reducido 1.376,2 millones de euros, para hacer un total de 3.365,3 millones de euros, lo cual representa el 38,4% de los ingresos teóricos.

Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados

Este Impuesto es un tributo concertado de normativa autónoma, salvo en las operaciones societarias, letras de cambio y documentos que suplan a las mismas o realicen función de giro, que deben regirse por la normativa común. Se trata de un tributo de naturaleza indirecta, que grava las transmisiones patrimoniales onerosas, las operaciones societarias y los actos jurídicos documentados.

Dada la concurrencia sobre el mismo hecho imponible de diferentes impuestos e, incluso, de distintas figuras del Impuesto de Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, se delimitan las incompatibilidades entre los mismos, de forma que estos supuestos de incompatibilidad, que originan la no sujeción al Impuesto o alguna de sus modalidades, no dan lugar, por tanto, a la generación de gastos fiscales.

En las Normas Forales del Impuesto se recoge una prolija relación de supuestos en los que son aplicables beneficios fiscales, pudiendo afectar, dependiendo de los casos, a uno, varios o incluso a todos los conceptos. Además de los contenidos en las propias Normas Forales del Impuesto, existe una gran variedad de disposiciones que recogen exenciones y beneficios fiscales. Estos beneficios fiscales pueden clasificarse bajo tres conceptos: exenciones, tipos impositivos reducidos y bonificaciones.

El gasto fiscal estimado para este Impuesto alcanza los 135 millones de euros, lo que supone un 46,7% respecto a los ingresos teóricos previstos por este impuesto en el año 2016 en la Comunidad Autónoma. Su desglose por conceptos es el siguiente, en

ondorengoa da, mila eurotan:

- Ondare eskualdaketak 84.822
- Sozietate-eragiketak..... 18.886
- Egintza juridiko dokumentatuak .. 31.344

Garraiobide jakin batzuen gaineko Zerga Berezia

Zerga itundua da, eta foru-aldundiek eska dezakete behin betiko matrikulazioa EAEn eginez gero. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek karga-tasak igo ahal izango dituzte, Estatuak ezarritako tasen %15eraino, gehienez.

Horren auto-kitapena garraiobideen lehen matrikulazioarekin egiten da, bai fabrikatuak bai inportatuak izan, berriak nahiz erabiliak, eta bere oinarri zergagarriaren zehaztapena BEZaren eta Ondare eskualdaketen gaineko Zergaren balorazio teknikoei lotuta dago.

Garraiobide jakin batzuen gaineko Zerga Berezian gastu fiskaltzat honako hauek jotzen dira: taxi, autotaxi eta autoturismoak diren ibilgailuentzako salbuespenak; irakaskuntza eta alokatzeko ibilgailuak; eta ezinduen izenean matrikulatuta daudenak beraiek erabiltzeko, besteak beste. Halaber, araudian oinarri zergagarriaren %50eko murriztapena jaso da gutxienez 5 eta gehienez 9 eserleku, gidariarena barne, dauzkaten ibilgailuetarako baldin eta horiek bakarrik familia ugariek erabil ditzaten badira.

Garraiobide jakin batzuen gaineko Zerga Bereziarentzako zenbatetsitako gastu fiskala 4,1 milioi eurokoa da, hau da, Zerga honi dagozkion diru-sarrera teorikoen % 19,3. Horren banakapena, kontzeptuen arabera, ondorengoa da, mila eurotan:

miles de euros:

- Transmisiones patrimoniales..... 84.822
- Operaciones societarias 18.886
- Actos jurídicos documentados…... 31.344

Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte

Es un impuesto concertado exigible por las Diputaciones Forales cuando la matriculación definitiva del vehículo se realice en territorio vasco. Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos pueden incrementar los tipos del impuesto hasta un máximo del 15% de los tipos establecidos por el Estado.

Su autoliquidación se realiza con la primera matriculación de los medios de transporte, sean fabricados o importados, nuevos o usados, y la determinación de su base imponible está ligada a las técnicas de valoración del IVA y del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales.

En el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte se consideran gasto fiscal las exenciones para vehículos automóviles considerados taxis, autotaxis o autoturismos, los destinados a actividades de enseñanza y alquiler, los matriculados a nombre de minusválidos para su uso exclusivo, entre otras. Además, también se considera gasto fiscal la reducción del 50% de la base imponible correspondiente a los automóviles con una capacidad no inferior a 5 plazas y no superior a 9, incluida la del conductor, que se destinen al uso exclusivo de familias numerosas.

El gasto fiscal estimado para el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte alcanza los 4,1 millones de euros, que significa un 19,3% respecto a los ingresos teóricos correspondientes a esta figura tributaria. Su desglose por conceptos es el siguiente, en miles de euros:

- **Salbuespenak /** Exenciones …… 3.642

- **Familia ugarientzako murrizketa**
  Reducciones a familias numerosas …… 481

Fabrikazio Zerga Bereziak

Zuzeneko zergek, eta batez ere Zerga Bereziek, zerga mugarik gabeko Europar

Impuestos Especiales de Fabricación

La adaptación de la imposición indirecta, y en particular de la imposición por Impuestos

Batasunaren egitate berriari egokitu izanak estatukide guztien Europar Batasuneko araudia harmonizatzeko eta bereganatzeko prozesu bat ekarri du. Horrela, eta BEZan bezala, Ekonomia Itunak ezartzen du Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko direla Zerga Bereziak eraentzeko, ereduak eta sarrera epeak izan ezik.

Especiales, a la nueva realidad sin fronteras fiscales de la Unión Europea ha supuesto un proceso de armonización y adopción por todos los Estados miembros de la normativa comunitaria. Así, del mismo modo que en el IVA, en el Concierto Económico se establece que los Impuestos Especiales se regirán por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado, a excepción de los modelos y plazos de ingreso.

Fabrikazio Zerga Berezien itun eremuak ondorengo zerga hauek hartzen ditu: Alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko Zerga (Garagardoaren gaineko Zerga, Ardoa eta irakiniko edarien gaineko Zerga, Bitarteko produktuen gaineko Zerga, Alkohola eta edari deribatuen gaineko Zerga), Hidrokarburoen gaineko Zerga eta Tabako-moten gaineko Zerga.

El ámbito de la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación abarca los siguientes impuestos: Alcohol y bebidas alcohólicas (Impuesto sobre la Cerveza, Impuesto sobre el Vino y Bebidas Fermentadas, Impuesto sobre Productos Intermedios, Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas), Impuesto sobre Hidrocarburos e Impuesto sobre las Labores del Tabaco.

2014. urtera arte, Elektrizitatearen gaineko Zerga kategoria honen baitan zegoen, baina 2015etik aurrera, zerga berezia izaten jarraitzen badu ere, "fabrikazioaren" gaineko zerga bereziaren izendapena galdu du.

Hasta el año 2014 también formaba parte de esta categoría de impuestos el Impuesto sobre la Electricidad, que sin embargo desde 2015, si bien continúa siendo un impuesto especial, ha perdido la calificación de impuesto especial “de fabricación”.

Fabrikazio Zerga Bereziek berariazko kontsumoak zergapetzen dituzte, eta ondasun jakin batzuen fabrikazioa, inportazioa eta, hala badagokio, lurralde barne eremuan sarrera aldi bakar batean zergapetzen dituzte, eta gastu fiskaltzat jotzen dira zerga ordaintzeko salbuetsita dauden salerosketak eta murriztutako zerga tasa pean daudenak.

Los Impuestos Especiales de Fabricación recaen sobre consumos específicos, gravando en fase única la fabricación, importación y, en su caso, introducción en el ámbito territorial interno de determinados bienes, considerándose gasto fiscal las transacciones exentas no sometidas a tributación y las sometidas a tipos impositivos reducidos.

Horrela, Alkohola eta edari deribatuen gaineko Zergan gastu fiskaltzat jotzen dira zentro medikoak hornitzeko eta sendagaiak egiteko alkohola zergagabetzea, edari deribatuak bidaiarien erregimenean inportatu eta sartzeagatiko salbuespena, eta baita, distilatzaile artisauek eginiko edariei ezarritako tasa murriztuen ezarpena ere.

Así, en el Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas se considera gasto fiscal las exenciones por suministro de alcohol a centros de atención médica y para la fabricación de medicamentos y por importación e introducción de bebidas derivadas en régimen de viajeros, además de la aplicación de tipos reducidos a las bebidas elaboradas por destiladores artesanos.

Hidrokarburoen gaineko Zergaren kasuan, gastu fiskaltzat jotzen dira: jolasaldiko pribatua ez den aire eta itsas nabigazioa erregaiaz hornitzea; elektrizitatea sortzeko, trenbideko garraiobiderako, bide nabigagarrien eta portuen dragatze lanerako, eta labe garaietan injektatzeko erabiltzea;

En el Impuesto sobre Hidrocarburos constituyen gasto fiscal el avituallamiento de carburante para la navegación aérea y marítima distinta de la privada de recreo, la utilización para producción de electricidad, transporte ferroviario, operaciones de dragado de vías navegables y puertos,

eta bioerregaien erabilera. Horrez gain, nekazaritzan, motor finkoetan, mehatzetako makinerian eta eraikuntzan, injinerutza zibilean eta lan eta zerbitzu publikoetan erabilitako makinen motorretan erabiltzen den gasolioari ezarritako zerga tasa murriztua gastu fiskaltzat hartzen da.

Tabako moten gaineko Zergan, tabako motak bidaiarien erregimenean inportatu eta sartzea gastu fiskaltzat jotzen da, baina ez da balioesten ez baitu garrantzirik. Elektrizitatearen gaineko Zergan gastu fiskaltzat jotzen da erregimen berezi peko instalakuntzetan fabrikatutako energia elektrikoa eta bertako kontsumoa helburua denean.

Fabrikazio Zerga Berezietarako zenbatetsitako gastu fiskala 162,5 milioi eurokoa da, eta horietako %95 baino gehiago Hidrokarburoen gaineko Zergari dagokio. Guztira, 2016. urterako aurreikusitako diru-sarrera teorikoen %10,7 da.

Elektrizitatearen gaineko Zerga

2015. urtera arte Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziaren kalifikazioa izan badu ere, urte honetatik aurrera kalifikazio hori galdu eta orain zerga berezia da -beraz, hitzartutako zerga da, eta Estatuak kasuan kasu ezartzen dituen oinarrizko arau eta arau formalen arabera egongo da indarrean-, eta orain kontsumorako edo norberak sortutako elektrizitatearen ekoizleen kontsumorako energia elektrikoaren horniduraren zerga ezartzen du.

Elektrizitatearen gaineko Zergan, kontuan hartzen dira zenbait salbuespenen zerga-gastuak, zehazki, zerga-erregimenaren eraginpean dauden energia elektrikoa ekoizteko instalazioetako titularrek kontsumitutako energia elektrikoaren salbuespena edota kontsumo jakin batzuei aplika dakiokeen zerga-oinarriaren % 85eko murrizketa. Nolanahi ere, hori ez da kuantifikatzen Aurrekontuan, berau egitean ez dagoelako hori kalkulatzeko informazio nahikorik.

Zerga honetarako gastu fiskala 2 milioi eurokoa izango dela aurreikusi da. 2016. urterako zenbateko hori aurreikusitako diru sarrera teorikoen %2,6ren bestekoa da.

inyección en altos hornos y como biocarburantes, y la aplicación de tipos impositivos reducidos al gasóleo usado como carburante en agricultura, motores fijos, maquinaria minera y motores de máquinas utilizadas en la construcción, la ingeniería civil, las obras y los servicios públicos.

En el Impuesto sobre las Labores del Tabaco constituye gasto fiscal la importación o introducción de labores de tabaco en régimen de viajeros, si bien no se estima por su escasa incidencia. En el Impuesto sobre la Electricidad se considera gasto fiscal la fabricación de energía eléctrica en instalaciones acogidas al régimen especial y que se destina a su propio consumo.

El gasto fiscal estimado para los Impuestos Especiales de Fabricación asciende a 162,5 millones de euros, de los cuales más del 95% corresponde al Impuesto sobre Hidrocarburos. En su conjunto supone un 10,7% respecto a los ingresos teóricos previstos para el 2016.

Impuesto sobre la Electricidad

Calificado hasta 2015 como Impuesto Especial de Fabricación, a partir de este año pierde esa calificación y pasa a ser un impuesto especial –por tanto, tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado (art. 33 del Concierto Económico)– que grava el suministro de energía eléctrica para consumo o su consumo por los productores de aquella electricidad generada por ellos mismos.

En el Impuesto sobre la Electricidad se consideran gasto fiscal determinadas exenciones, en particular la exención de la energía eléctrica consumida por los titulares de las instalaciones de producción de energía eléctrica acogidas al régimen retributivo específico, así como la reducción del 85% de la base imponible aplicable a determinados consumos, si bien ésta no ha sido cuantificada en este Presupuesto debido a la insuficiencia de información para su cálculo, en el momento de elaboración.

El gasto fiscal estimado para este impuesto asciende a 2 millones de euros, lo que representa un 2,6% de los ingresos teóricos previstos para el año 2016.

Aseguru Sarien gaineko Zerga

Aseguru Sarien gaineko Zergan aseguru eta kapitalizazio eragiketak zergapetzen dira, aldi bakar batean. Zerga-oinarria ordaindutako sari edo kuotaren zenbatekoak osatzen du, eta zerga tasa %6koa da. Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arauak erabiliko dira zerga hau eraentzeko eta, beraz, EAEk araugintzan duen ahalmena kudeaketari dagozkion aldeei buruzkoa da bakarrik.

Zerga honetan gastu fiskaltzat jotzen dira ondoko eragiketei dagozkien salbuespenak: kauzio aseguruak, osasun laguntzako aseguruak, gaixotasun aseguruak eta nekazaritzako aseguru konbinatuak.

Gastu fiskala, 2016. urtean, 24,5 milioi eurokoa izango dela aurreikusi da. Zenbateko hori Euskal Autonomia Erkidego osorako zerga honetarako aurreikusitako diru sarrera teorikoen %24,9ren bestekoa da.

Beste Zerga Batzuk

Foru Ogasunek ordainarazitako zerga batzuetan -nahiz eta ia guztietan aitortzen den araudi-erregulazio jakin batzuk daudela eta horiek aplikatzeak zerga-gastutzat kalifika daitezkeen diru-sarreren murrizketa dakarrela-, ez dagoenez estatistika eta zergei buruzko informazio nahikorik eta esanguratsurik, benetan zaila da gastu hori kalkulatzea. Beraz, arrazoi horregatik, eta garrantzi gutxikoak direla sumatzen denez, ez da aintzat hartu dagokion kuantifikazioa.

Kasu horren barruan daude zerga hauek: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga, Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, Negutegi Efektuko Gas Fluordunen gaineko Zerga, Ikatzaren gaineko Zerga Berezia eta Joko-ekintzen gaineko Zerga. Edonola ere, zerga horietatik eratorritako zerga-gastuen kalkulua ez da bereziki esanguratsua izango kuantitatiboki.

3.e. Zergen ikuskapena

Impuesto sobre las Primas de Seguros

En el Impuesto sobre las Primas de Seguros se gravan, en fase única, las operaciones de seguro y capitalización. La base imponible está constituida por el importe de la prima o cuota satisfecha, siendo el tipo impositivo del 6%. En el Concierto Económico se establece que este impuesto se rige por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado, limitándose, por tanto, la capacidad normativa vasca a aspectos relativos a la gestión.

En este Impuesto se consideran gasto fiscal las exenciones correspondientes a las operaciones de seguros de caución, asistencia sanitaria, enfermedad y agrarios combinados.

El gasto fiscal estimado para el año 2016 asciende a 24,5 millones de euros. Esta cantidad equivale al 24,9% de los ingresos teóricos previstos para este Impuesto en el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Otros Impuestos

En algunos tributos exaccionados por la Haciendas Forales, si bien en prácticamente todos ellos se reconoce la existencia de determinadas regulaciones normativas cuya aplicación conlleva una minoración de los ingresos calificable como gasto fiscal, la carencia de información estadística y tributaria suficiente y significativa dificulta sobremanera la estimación de dicho gasto y por este motivo, así como por intuirse una escasa relevancia, se ha desestimado su cuantificación.

Es el caso del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, el Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito, el Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica, el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, el Impuesto sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero, el Impuesto Especial sobre el Carbón y el Impuesto sobre Actividades de Juego. En todo caso, el cómputo del gasto fiscal derivado de estos impuestos no ha de ser especialmente relevante en términos cuantitativos.

3.e. La inspección de los tributos

Foru-aldundiek 2011-2016 aldian zergak ikuskatzeko egindako jardueren emaitzak adierazten dira VII.72 Koadroan, Euskal Autonomia Erkidego osoko datuak bilduz. Egindako akten zenbatekoa kontzeptuka eta zerga-figurak zehaztuta adierazten da. II.4 eranskinean zehazten dira lurralde historikoei dagozkien zenbatekoak.

En el Cuadro VII.72 aparece, para el conjunto de la Comunidad Autónoma, la actividad de inspección de tributos de las Diputaciones Forales en el período 2011-2016. El importe de las actas levantadas se detalla por conceptos y figuras tributarias. En el Anexo II.4 se presenta el detalle por Territorios Históricos.

GAUZATUTAKO AKTEN ZERGA ZORRA / DEUDA TRIBUTARIA DE ACTAS FORMALIZADAS
EUSKAL AE 2011-2016 CA EUSKADI

000€

Kontzeptuak / Conceptos	**2016**	%16/15	**2015**	%15/14	**2014**	%14/13	**2013**	%13/12	**2012**	%12/11	**2011**
Pertsona Fisikoen Errent. g/ Z. Impuesto s/ la Renta de las P. F.	34.383	-37,3	54.800	39,7	39.220	-16,3	46.860	10,2	42.532	2,4	41.533
Sozietateen gaineko Zerga Impuesto sobre Sociedades	258.792	10,7	233.773	56,2	149.667	-17,3	180.893	31,8	137.296	43,0	96.026
Ondarearen gaineko Zerga Resto de impuestos directos	2.340	-64,2	6.535	380,2	1.361	-37,6	2.182	-41,8	3.747	39,8	2.680
Zuzeneko zergak guztira Total impuestos directos	295.515	0,1	295.108	55,1	190.248	-17,3	229.935	25,3	183.575	30,9	140.239
Balio Erantsiaren gaineko Z. I. sobre el Valor Añadido	45.188	-75,9	187.381	-9,0	205.931	152,2	81.662	-20,2	102.368	-69,3	333.652
Gainerako zergak Resto de impuestos	4.157	-76,0	17.334	364,4	3.732	64,8	2.264	-16,5	2.860	1.941,5	421
ZERGAK GUZTIRA TOTAL IMPUESTOS	344.860	-31,0	499.823	25,0	399.912	27,4	313.861	8,7	288.803	-39,1	474.312

Lurralde Historikoei dagozkien datuak II.4 eranskineko A1, B1, G1 koadroetan
Información correpondiente a los Territorios Históricos en los cuadros A1, B1, G1 del anexo II.4

KOADROA / CUADRO VII.72

2016an zerga-zorraren ondorioz likidatutako akten kopuru osoa ia 500 milioi eurora iritsi zen. Zenbateko horren zatirik handiena, % 95,2 hain zuzen ere, hiru zergaren artean banatu zen: % 75,0, Sozietateen gaineko Zerga, % 13,1, BEZ eta % 10,0, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

Zuzeneko zergei dagokien zerga-zorraren ondorioz kitatutako akten zenbatekoa ez zen aldaketarik izan, 295 milioi eurora gehitu zen.

Bestalde, BEZari dagokien zerga-zorraren ondorioz kitatutako akten zenbatekoak, % 75,9 jaitsiera jasan zuen, 187 millioi eurotik 45 milioi eurora jaitsi baita zenbateko hori.

En 2016 el total de actas liquidadas por deuda tributaria ascendió a casi 345 millones de euros. Casi la totalidad de este importe, concretamente el 98,1%, se distribuyó entre tres impuestos: el Impuesto sobre Sociedades un 75,0%, el IVA un 13,1% y el IRPF un 10,0%.

El importe de actas liquidadas por deuda tributaria correspondiente a impuestos directos no experimentó variación practicamente, ascendiendo a 295 millones de euros.

Por otro lado, el importe de actas liquidadas por deuda tributaria correspondiente a IVA experimentó un descenso del 75,9%, al pasar de 187 millones de euros a 45 millones de euros.

3.f. Zergabilketa ordainarazte bidean

Agentzia exekutiboak 2016. ekitaldian egindako jarraipenaren datu bateratuak adierazten dira VII.73 koadroan. Kontzeptuka eta zerga bakoitzeko zehaztuta adierazten dira datuak. II.4 Eranskinean

3.f. Gestión recaudatoria en ejecutiva

La consolidación, para el conjunto del País Vasco, de los datos relativos al seguimiento de la agencia ejecutiva en el ejercicio 2016, aparece en el Cuadro VII.73. Los datos se detallan por conceptos y figuras tributarias.

zehazten dira lurralde historikoei dagozkien zenbatekoak.

2016. urteari zegokion zorraren azken saldoa, aldi exekutiboan, 1.876 milioi eurokoa izan zen, eta horrek beherakuntza ekarri zuen, aurreko urtekoaren aldean (% 2,6 hain zuzen ere), edo bestela, 51 milioi euro.

Hala ere, bide exekutiboko zergek izandako zorraren beherakada aztertuz gero, oso aldaketa tasa desberdinak ikusiko ditugu.

Beraz, Sozietateen gaineko zergari dagokion aldi exekutiboko zorrak % 1,5eko gehikuntza izan zuen (2,7 milioi euro gehiago); hala ere, aldi exekutiboko zorraren urte arteko pilatutako zenbateko handiena bestelako sarrerarena izan da (20 milioi euro), % 3,2ko gehikuntza izan baitu.

Así mismo, en el Anexo II.4 se presenta el detalle referido a los Territorios Históricos.

El saldo final de la deuda en ejecutiva correspondiente a 2016 ascendió a 1.876 millones de euros, lo que supone un decremento respecto al año anterior del 2,6%, o lo que es lo mismo, 51 millones de euros.

No obstante, si analizamos la caída de la deuda en ejecutiva experimentado por los diferentes tributos, nos encontramos con tasas de variación muy diferentes.

Así, la deuda en ejecutiva correspondiente al Impuesto sobre Sociedades experimentó un incremento del 1,5% (2,7 millones de euros más), sin embargo el mayor volumen acumulado interanual de la deuda en ejecutiva se produce en el ingresos diversos (20 millones de euros), cuyo incremento ha sido del 3,2%.

ZERGABILKETA KUDEAKETAREN AZALPENA EXEKUTIBOAN KONTZEPTUKA EUSKADIN. 2016
DETALLE DE LA GESTIÓN RECAUDATORIA EN EJECUTIVA POR CONCEPTOS EN EUSKADI

000 €

	Hasierako saldoa Saldo inicial	**Karguak** Cargos	**Sarrerak** Ingresos	**Hutseginak** Fallidos	**Amaierako saldoa** Saldo final	
PFEZ	408.662	63.169	47.942	61.227	362.662	IRPF
Sozietateen g/ Zerga	189.206	36.117	17.296	16.028	191.999	Impuesto sobre Sociedades
Gainerako zuzeneko zergak	4.281	6.345	5.993	630	4.003	Resto de impuestos directos
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	601.945	105.630	71.231	77.885	558.664	TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS
Ondare Esk. eta EJDen g/ Z.	8.723	1.269	1.264	507	8.222	I. s/Transm. Patrim. y AJD
Balio Erantsiaren g/ Z.	667.858	81.201	46.461	61.655	640.943	IVA
Gainerako zeharkako zerg.	7.223	5.432	453	4.585	7.618	Resto de imp. indirectos
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	683.805	87.903	48.178	66.746	656.783	TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS
Tasak	12.969	1.483	1.058	1.424	11.970	Tasas
Bestelako sarrerak	629.249	123.878	39.035	64.618	649.474	Ingresos diversos
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	642.220	125.361	40.093	66.042	661.445	TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS
GUZTIRA	**1.927.970**	**318.894**	**159.502**	**210.673**	**1.876.891**	**TOTAL**

Lurralde Historikoei dagozkien datuak II.4 eranskineko A2, B2, G2 koadroetan
Información correpondiente a los Territorios Históricos en los cuadros A2, B2, G2 del anexo II.4.

KOADROA / CUADRO VII.73

Zerga bakoitzak bide exekutiboko zorraren azken saldoan duen pisu erlatiboari erreparatuta, ikusten da zorraren % 29,8, zerga zuzenekoei dagokiela, % 35,0 zeharkako zergei, eta % 35,2, tasei eta bestelako sarrerei. Era berean, aldi exekutiboan dagoen zorraren % 53,5 PFEZri

Analizando el peso de cada tipo de tributo respecto al saldo final de la deuda en ejecutiva, se aprecia que el 29,8% corresponde a tributos directos, los indirectos representan el 35,0% y las tasas y otros ingresos un 35,2%. Así mismo, el 53,5% del saldo final de deuda en ejecutiva corresponde

eta BEZari dagozkio.

4. KUDEAKETA EKONOMIKOA

4.a. Diru-sarrerak

Foru-aldundiek likidatutako diru-sarrerak 14.064 miloi eurora iritsi ziren 2016an. 2011-2016 urteen arteko tartean kapituluka izandako bilakaera VII.74 koadroan jaso da eta Lurralde Historikoen araberako datuak xehetasunekin ikus daitezke III.2 eranskineko A1, B1 eta G1 koadroetan.

al IRPF y al IVA.

4. GESTIÓN ECONÓMICA

4.a. Ingresos

Los ingresos liquidados por las Diputaciones Forales se elevaron a 14.064 millones de euros en el 2016. Su evolución por capítulos en el periodo 2011-2016 se especifica en el cuadro VII.74, y su desglose por Territorios Históricos se proporciona en el Anexo III.2., Cuadros A1, B1 y G1.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUNDIAK. SARRERA LIKIDATUEN BILAKAERA
DIPUTACIONES FORALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI. EVOLUCIÓN DE LOS INGRESOS LIQUIDADOS

000 €

URTEA AÑO	KAP. 1/CAP.1 zuzeneko zergak impuestos directos	KAP. 2/CAP.2 zeharkako zergak impuestos indirectos	KAP. 3/CAP.3 tasak eta bestelako sarrerak tasas y otros ingresos	KAP. 4/CAP.4 transfer. arruntak transfer. corrientes	KAP. 5/CAP.5 ondarezko sarrerak ingresos patrimon.	KAP. 6/CAP.6 inber. erre. besterentzea enajenación de inversiones reales	KAP. 7/CAP.7 kapital transferen. transferen. capital	KAP. 8/CAP.8 finantza aktiboak activos financieros	KAP. 9/CAP.9 finantza pasiboak pasivos financieros	GUZTIRA TOTAL
2011	5.701.988	5.860.731	268.192	788.024	19.422	2.736	150.023	60.844	371.600	13.223.560
2012	5.755.088	5.742.375	527.251	361.559	13.399	1.476	26.452	12.500	348.570	12.788.669
2013	5.907.447	5.948.101	335.482	391.248	9.565	2.029	37.447	2.137	336.340	12.969.725
2014	5.906.020	6.505.459	298.132	402.572	10.104	1.391	46.717	1.913	263.500	13.435.808
2015	6.001.370	6.594.869	280.452	458.113	2.820	1.316	19.431	2.813	265.900	13.627.083
2016	6.254.009	6.820.675	301.430	394.858	2.025	7.940	20.745	7.464	255.388	14.064.534
% 12/11	0,9	-2,0	96,6	-54,1	-31,0	-46,1	-82,4	-79,5	-6,2	-3,3
% 13/12	2,6	3,6	-36,4	8,2	-28,6	37,5	41,6	-82,9	-3,5	1,4
% 14/13	0,0	9,4	-11,1	2,9	5,6	-31,4	24,8	-10,4	-21,7	3,6
% 15/14	1,6	1,4	-5,9	13,8	-72,1	-5,4	-58,4	47,0	0,9	1,4
% 16/15	4,2	3,4	7,5	-13,8	-28,2	503,5	6,8	165,3	-4,0	3,2

Lurralde Historikoei dagozkien datuak III.2 eranskineko A1, B1, G1 koadroetan
Información correpondiente a los Territorios Históricos en los cuadros A1, B1, G1 del anexo III.2.

KOADROA/ CUADRO VII.74

VII.25, 26. eta 27. grafikoetan agerian uzten dira zer-nolako pisu erlatibo handia duten zerga zuzenekoek eta zeharkako zergek (sarreren aurrekontuko I. eta II. kapituluak), guztizko kopuruaren % 44,5 eta % 48,5 baitagokie. Halaber, grafiko horietan ikus daiteke zer-nolako pisu erlatiboa duen Lurralde Historiko bakoitzak, likidatutako sarrera guztiekiko.

Los gráficos VII.25, 26 y 27 ponen de manifiesto la importancia relativa de los impuestos directos e indirectos, Capítulos I y II del presupuesto de Ingresos, que suponen respectivamente un 44,5% y 48,5% del total, así como el peso específico de cada Territorio Histórico sobre el conjunto de los ingresos liquidados.

FORU ALDUNDIAK. SARRERA LIKIDATUAK KAPITULUKA
DIPUTACIONES FORALES. INGRESOS LIQUIDADOS POR CAPITULOS

GRAFIKOA / GRÁFICO VII.25

FORU ALDUNDIEN SARRERA LIKIDATUAK
INGRESOS LIQUIDADOS DE LAS DIPUTACIONES FORALES

GRAFIKOA / GRÁFICO VII.26

FORU ALDUNDIAK. SARRERA LIKIDATUEN BILAKAERA
DIPUTACIONES FORALES. EVOLUCIÓN DE LOS INGRESOS LIQUIDADOS

GRAFIKOA / GRÁFICO VII.27

4.a.1. Zerga itunduen diru-bilketa

4.a.1. Recaudación de tributos concertados

a. Ekonimia-ingurunea

Munduko ekonomiak pixkanaka-pixkanaka suspertuz joan zen 2016an aurreko urtekoan baino erritmo zertxobait apalago batean, bereziki ekonomia aurreratuetan bizi zen moteltzearen ondorioz. Izan ere, ekonomia jarduerak 2016ko bigarren erdian bakarrik hartu zuen bultzada, batez ere azaleratzen ari diren ekonomien hobekuntzari esker. Oro har, BPGaren hazkunde tasa %3,1 izan zen, 2015ekoa baino hiru hamarren txikiagoa, eta krisiaren aurretik zeuden mailen azpitik.

Gertakari politiko garrantzitsu batzuek markatu eta baldintzatu zuten 2016. urtea, munduko ekonomiaren aurreikuspenak ilunduz. Ekainean, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko erabakia hartu izanak ziurgabetasuna sartu zuen herrialde horretako eta Europar Batasun osorako aurreikuspen ekonomikoetan, nahiz eta une hartan ekonomian eta finantzan izan zuen eragina iragankorra izan. Harez geroztik, 2016ko azken hilekoetan, estatubatuar hauteskundeen Donald Trumpen aldeko emaitzak ziurgabetasun ekonomikoko beste pasarte garrantzitsu bat ekarri zuen, nahiz eta horrek ere, oraingoz, ez duen eragin esanguratsurik izan emaitza ekonomikoetan.

Europar Batasunaren BPGa AEBetakoa baino gehiago hazi zen, hark ere moteltzeko joera leuna bizi zuen arren. Zehazkiago adierazita, 2016an %2,0 hazi zen, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago. Herrialdeka egiten den analisian, Erresuma Batuak pairatu zuen moteltzea nabarmendu behar da, erreferendum batean Europar Batasunetik irteteko erabakia hartu zuen urtean. Eremu horretako herrialde handien artean, espainiar ekonomiaren bultzada sendoa (%3,2) nabarmendu zen berriro, aurreko urteko gehikuntza berdinduz. Euroguneko bi motor handienek ia ez zuten aldatu beren hazkunde erritmoa, Alemaniak hiru hamarren gehiago (%1,8) hazi zelako eta Frantziak (%1,2) bat gutxiago.

EAEko ekonomia Europako herrialde askok erakutsi zuten moteltze leuneko joera hartatik aldendu zen eta %3,1eko hazkundea eskuratu zuen, hots, 2015ean lortutako emaitza garrantzitsua baino bi hamarren gehiago. Horri esker, EAEko ekonomiak,

a. Entorno económico

La economía mundial continuó recuperándose gradualmente en 2016 a un ritmo ligeramente inferior al del año anterior, como consecuencia, especialmente, de la desaceleración observada en las economías avanzadas. De hecho, la actividad económica solo cobró impulso en la segunda mitad de 2016, gracias, principalmente, a la mejora de las economías emergentes. En conjunto, el crecimiento del PIB fue del 3,1%, tres décimas inferior a la tasa de 2015, y por debajo de los niveles registrados antes de la crisis.

El año 2016 estuvo marcado y condicionado por varios acontecimientos políticos importantes que ensombrecieron las perspectivas económicas mundiales. En junio, el resultado favorable a que Reino Unido abandone la Unión Europea generó incertidumbre en las perspectivas económicas de ese país y del conjunto de la Unión Europea, si bien el impacto económico y financiero inmediato resultó ser transitorio. Posteriormente, en los últimos meses de 2016, el resultado de las elecciones estadounidenses a favor de Donald Trump dio lugar a otro importante episodio de incertidumbre económica, que, por el momento, tampoco ha tenido repercusiones relevantes en los resultados económicos.

La Unión Europea consiguió un aumento del PIB superior al de Estados Unidos, a pesar de que también conoció un suave proceso de desaceleración. Así, en 2016 creció un 2,0%, cuatro décimas menos que el año anterior. En el análisis por países, destaca la moderación vivida por Reino Unido, en el año en el que decidió en referéndum abandonar la Unión Europea. Entre los grandes países del área, volvió a destacar el fuerte impulso de la economía española (3,2%), que igualó el incremento del año precedente. Los dos grandes motores de la zona del euro apenas variaron su ritmo de crecimiento, en el caso de Alemania con tres décimas más (1,8%) y en el de Francia con una décima menos (1,2%).

En 2016, la economía vasca se alejó de esa tendencia de suave moderación que mostraron muchos de los países europeos y alcanzó un crecimiento medio del 3,1%, dos décimas superior al ya importante resultado de 2015. Gracias a ello, la economía vasca

zortzi urte beranduago, krisiaren aurrean zeukan jarduera maila gainditu zuen, hala termino nominaletan nola errealetan neurtuta.
Eskariaren ikuspegitik egiten den hazkundearen banaketak aurreko txostenetan deskribatu zen modeloa baieztatzen du. Modelo horretan, EAEko ekonomiaren bultzada guztia barne eskariaren ekarpenetik etortzen da eta kanpo saldoak berriro jarrera neutroa erakutsi zuen. Kanpo eskariaren ekarpenaren murrizketa ia etengabea izan da 2009tik eta garrantzi handiagoa hartu du barne eskaria suspertu den heinean.

Barne eskariaren barruan, bi osagai nagusiek antzeko hazkunde tasak eskuratu zituzten, aurreko urtean bezala, nahiz eta kapital eraketa gordinak bizitasun handixeagoa izan zuen. Zehazkiago adierazita, azken agregatu hori %3,3 handitu zen eta kontsumoan eginiko gastua, berriz, %3,0. Inbertsioaren bi atalen artean, ekipamendurako ondasunetan eginikoak berriro eskuratu zituen emaitza bizienak (%7,5). Enpresen igurikimenek izan zuten hobekuntzak, interes tasa txikiek, ekoizteko ahalmenaren erabilera altuak eta eskarien gorakadak, beste arrazoi batzuen artean, lagundu zuten bultzada horretan. Hala eta guztiz ere, gainontzeko inbertsioaren hazkundea, eraikuntzan eginikoa barnean hartzen baitu, apalagoa izan zen (%1,4). Kontsumoaren osagaien artean, kontsumo pribatuak bilakaera hedakorrari eutsi zion (%3,1), enpleguaren gehikuntza garrantzitsuari, inflazio apalari, soldata errealen gehikuntza txiki bati, konfiantzaren hobekuntzari, aktiboek sortutako aberastasunari eta zuhurtziazko aurrezki txikiagoari esker. Aurreko bi urteetan ez bezala, 2016an kontsumo pribatua BPGaren hazkunde tasari egokitu zitzaion.

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek ekarpen positiboak egin zizkioten EAEko balio erantsiaren hazkundeari. Alde batetik, industria eta zerbitzuak hazkunde globalaren bultzagile nagusiak izan ziren, hurrenez hurren %3,3 eta %3,2ko aldakuntza tasak eskuratuta, urteko batez bestekoan kalkulatuta. Beste aldetik, nekazaritza eta arrantza biltzen dituen sektoreak, gorabehera handiak izaten dituen portaera batean, %1,6ko gehikuntza lortu zuen, eraikuntzarako zenbatetsi den tasa

superó, ocho años después, el nivel de actividad que tenía antes de la crisis, tanto medido en términos nominales como reales.

La distribución del crecimiento por el lado de la demanda confirma el modelo ya descrito en informes anteriores, según el cual todo el impulso de la economía vasca proviene de la aportación de la demanda interna, mientras que el saldo exterior mostró de nuevo una posición neutra. La reducción de la aportación de la demanda externa ha sido casi constante desde 2009 y ha cobrado más relevancia a medida que la demanda interna se ha ido recuperando.

Dentro de la demanda interna, los dos componentes principales obtuvieron crecimientos similares, al igual que el año anterior, con un dinamismo ligeramente superior en el caso de la formación bruta de capital. Así, este último agregado aumentó un 3,3%, mientras que el gasto en consumo lo hizo un 3,0%. De los dos apartados de la inversión, la realizada en bienes de equipo volvió a ser la que obtuvo resultados más elevados (7,5%). La mejora de las expectativas empresariales, los bajos tipos de interés, la alta utilización de la capacidad productiva y el aumento de los pedidos fueron algunas de las razones para ese impulso. Sin embargo, el avance del resto de la inversión, que incluye la realizada en construcción, fue más modesto (1,4%). Entre los componentes del consumo, el privado mantuvo su tono expansivo (3,1%), gracias al importante incremento de la ocupación, a la baja inflación, a un pequeño aumento de los salarios reales, a una mejora de la confianza, a la riqueza generada por los activos y a un menor ahorro por precaución. A diferencia de los dos años anteriores, en 2016 el consumo privado se ajustó al crecimiento del PIB.

Desde la perspectiva de la oferta, todas las ramas de actividad contribuyeron positivamente al crecimiento del valor añadido vasco. Por un lado, la industria y el sector terciario se configuraron como los principales motores tractores del crecimiento global, con tasas de variación anual del 3,3% y 3,2%, respectivamente. Por otra parte, el sector agropesquero, dentro de su habitual comportamiento fluctuante, consiguió un avance del 1,6%, el mismo registro que el estimado para el sector de la construcción. El

bera delarik. Eraikuntzak urte askoan pairatu zuen narriadura etengabea atzean geratu da eta sektore horren hazkundea, ahula izan arren, iraunkorra izango dela ematen du.

Ekoizpenaren bilakaera onak eragin nabarmena utzi zuen lan merkatuan, urteko batez bestekoan %1,9ko gehikuntza izan zuelako, aurreko urteko emaitza hiru hamarrenetan hobetuz. Horri esker, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 16.000 lagunetan baino gehiagotan hazi zen eta guztira 900.000 langileetara hurbildu zen. Horri esker, langabezia tasak bilakaera ona izan zuen eta %13,4an kokatu zen, hots, 2015ekoa baino bi puntu beherago.

Egoera hori foru aldundien zerga bilketan islatu da, aurreko urteetan baino gehiago bildu baitute, hau da, aurreko urtean baino 338,1 gehiago bildu dira.

b. Diru-bilketa likidoa, 2016an

2016ko amaieran I-III. kapituluetako tributu itunduengatik foru-aldundietan kontabilizatutako diru-bilketa likidoa 12.950 milioi eurora iritsi da, eta horrek % 2,7ko urte arteko aldakuntza-tasa positiboa ekarri du.

deterioro sufrido durante años en la actividad de la construcción quedó atrás y el avance del sector, aunque débil, parece, a priori, tener un carácter sólido.

La evolución favorable de la producción tuvo un reflejo notable en el mercado laboral, que registró un incremento medio anual del 1,9%, tres décimas superior al del año precedente. Con ello, el número de puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo aumentó en algo más de 16.000 y la cifra global se acercó a los 900.000. Gracias a ello, la tasa de paro registró una evolución favorable y se situó en el 13,4%, dos puntos por debajo del dato de 2015.

Esta situación se refleja en la recaudación tributaria de las Diputaciones Forales, que recaudan más que en el año anterior con unos ingresos tributarios superiores en 338,1 millones de euros a los obtenidos en 2015.

b. Recaudación líquida en 2016

La recaudación líquida contabilizada al cierre de 2016 en las Diputaciones Forales por tributos concertados de los Capítulos I al III, asciende a 12.950 millones de euros, lo que supone una tasa de variación interanual positiva del 2,7%.

ITUNDUTAKO ZERGENGATIKO DIRU-BILKETAREN BILAKAERA
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN POR TRIBUTOS CONCERTADOS

	Diru-bilketa Recaudación ooo.ooo €	Gehikuntza Incremento
2007	13.772	9,7%
2008	12.834	-6,8%
2009	10.792	-15,9%
2010	11.700	8,4%
2011	11.481	-1,9%
2012	11.408	-0,6%
2013	11.752	3,0%
2014	12.320	4,8%
2015	12.613	2,4%
2016	12.951	2,7%

KOADROA / CUADRO VII.75



GRAFIKOA / GRÁFICO VII.28

Hortaz, hitzartutako zergengatik bildutako zenbateko osoak berriz ere gora egin du aurten; hala ere, krisialdiaren aurreko diru-bilketaren mailak ez dira lortu.

Zuzeneko zergei dagokienez, haien

Así pues, la recaudación total por tributos concertados ha vuelto a avanzar este año, sin embargo no se han alcanzado los niveles de recaudación previos a la crisis.

En lo que se refiere a la imposición directa, su

aurrerapena (% 3,5) PFEZaren bilakaeran oinarritu da, batetik, eta bestetik, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Estatuarekiko erregularizazioan izandako itzulketa txikiagoetan, aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero.

avance (3,5%) se ha basado en la evolución del IRPF y en las menores devoluciones extraordinarias derivadas de regularizaciones del Impuesto sobre la Renta de No Residentes con el Estado respecto al ejercicio anterior.

Gainera, sozietateen kanpainaren saldo positiboari eta kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenen jaitsiera gero eta motelagoari esker, zuzeneko zergen bidezko diru-sarrerak erritmo gero eta azkarragoa izaten ari ziren, eta abenduan goia jo zuten (% 3,5), urte amaieran ordainketa zatikatuetan aldaketak egitea onartzeak ekarritako bultzadarekin (zerga-tasak igotzea eta gutxieneko ordainketa berrezartzea).

Además, gracias al positivo saldo de la campaña de sociedades y a la paulatina desaceleración en el ritmo de caída de las retenciones por rendimientos de capital mobiliario, los ingresos por impuestos directos fueron progresivamente aumentando su ritmo hasta alcanzarse el cénit a diciembre (3,5%), con el impulso que supuso la aprobación a final de año de modificaciones en el cálculo de los pagos fraccionados (elevación de tipos impositivos y restablecimiento de un pago mínimo).

Zeharkako zergen bidezko diru-bilketa % 1,9 igo da. Diru-bilketen igoerek bide irregularra izaten jarraitu zuten, baina ekainetik aurrera, zerga horien bidezko diru-bilketak hazkunde jarraitua izan zuen, diru-bilketa metatua % 1,9 izatera heldu arte.

La recaudación derivada de la imposición indirecta se ha incrementado a una tasa del 1,9%. Los incrementos recaudatorios siguieron una senda irregular pero ya a partir de junio, la recaudación por estos impuestos mostró una continuidad en el crecimiento, alcanzando una recaudación acumulada final del 1,9%.

Hala, bada, joan den ekitaldiaren aldean, 338 milioi euro gehiago bildu dira, PFEZk izan du ekarpen berezi positiboa.

Así pues, respecto al ejercicio pasado, se ha obtenido una mayor recaudación de 338 millones de euros, con una aportación especialmente positiva del IRPF.

Diru-bilketaren gehikuntza / Aumento de la recaudación

ooo €

	Zenbatekoa / Importe
PFEZ / IRPF	192.168
Sozietateen gaineko zerga / I. Sociedades	-36.348
Ondarearen gaineko zeerga / I. Patrimonio	161.328
BEZ / IVA	70.047
Fabrikazio zerga bereziak / II EE Fabricación	31.906
O-E eta EJDZ / ITP y AJD	15.184
Bestelako zergak / Otros Tributos	-96.187
GUZTIRA / TOTAL	338.097

KOADROA / CUADRO VII.76

Kopuru gordinetan, norbere kudeaketagatik metatutako diru-bilketak, 2016ko ekitaldia ixtean, % 2,3ko urte arteko bilakaera izan du; itzulketak, berriz, pixka bat txikitu dira (% 0,4). Hartara, norbere kudeaketako bilketa, itxieran, % 3,0 handitua zen. Tasa horrek txarrera egin du, Estatuarekiko

En términos brutos, la recaudación acumulada por gestión propia al cierre de 2016 ha evolucionado interanualmente en un 2,3%, mientras que las devoluciones han caido ligeramente (0,4%), de tal manera que la recaudación de gestión propia cerró con un aumento del 3,0%. Esta tasa empeora con la

doikuntzen ekarpen negatiboa kontuan izanda.

incorporación negativa de los Ajustes con el Estado.

DIRU-BILKETAREN BILAKAERA / EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN			
			ᵒᵒᵒ €
	2016	2015	% 16/15
Diru-bilketa osoa eta hondakinak Recaudación íntegra y residuos	14.903.067	14.574.971	2,3
Itzulketak / Devoluciones	-3.042.873	-3.055.109	0,4
Babezko kudeaketa / Gestión propia	11.860.194	11.519.862	3,0
BEZ egokitzapena / Ajuste IVA	1.337.949	1.299.112	3,0
Zerga Berezien egokitzapena / Ajuste Impuestos Especiales	-247.417	-206.344	-19,9
Estatuarekiko Egokitzapenak / Ajustes con el Estado	1.090.532	1.092.768	-0,2
Diru-bilketa, guztira / Recaudación total	12.950.726	12.612.630	2,7

KOADROA / CUADRO VII.77

Hortaz, 2016 ko amaieran gehitu egin da diru-bilketa.

Así pues, al cierre de 2016 se produce un aumento de la recaudación.

ITUNDUTAKO ZERGENGATIKO DIRU-BILKETA LIKIDOA. EUSKAL AE 2016 RECAUDACIÓN LÍQUIDA POR TRIBUTOS CONCERTADOS. C.A. DE EUSKADI 2016				
				000 €
	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A. EUSKADI
Lanaren eta lanbide-jardueren etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Trabajo y Actividades Profesionales	731.706	2.394.682	1.471.306	4.597.695
Kapital higigarrien etekinen atxikipenak/ Reten.Rdto. Capital Mobiliario	18.129	86.998	45.530	150.658
Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak /Reten.Rdto. Capital Inmobiliario	8.857	44.995	25.616	79.468
Ondare-irabazien atxikipenak / Retenciones Ganancias Patrimoniales	2.950	12.341	14.169	29.460
Loteria batzuetako sarien g/ karga berezia Gravamen Especial s/ Premios Det. Loterias	1.410	4.054	9.882	15.347
Profesional eta enpresarien ordainketa zatikatuak Pagos frac. Profes. y Empresariales	24.907	67.726	56.207	148.841
Kuota diferentzial garbia / Cuota diferencial neta	-41.181	-79.675	-60.765	-181.621
PFEZ Guztira / Total IRPF	746.780	2.531.121	1.561.946	4.839.847
Kapital higigarrien etekinen atxikipenak/ Reten.Rdto. Capital Mobiliario	18.129	86.998	45.530	150.658
Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak /Reten.Rdto. Capital Inmobiliario	8.857	44.995	25.616	79.468
Ondare-irabazien atxikipenak / Retenciones Ganancias Patrimoniales	2.950	12.341	14.169	29.460
Loteria batzuetako sarien g/ karga berezia Gravamen Especial s/ Premios Det. Loterias				
Kuota diferentzial garbia / Cuota diferencial neta	122.929	456.396	163.792	743.117
SZ, guztira / Total IS	152.866	600.730	249.107	1.002.703
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga Impuesto s/ Renta No Residentes	7.308	-22.448	12.751	-2.389
Onordetza eta dohaintzen gaineko zerga Impuesto s/ Sucesiones y Donaciones	11.235	57.937	41.806	110.978
Ondarearen/Aberastasunaren eta F. Handien g/ zerga Impuesto s/ el Patrimonio/Riqueza y Grandes Fortunas	17.431	73.043	70.854	161.328
Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko zerga Impuesto s/ Depósitos en las Ent. de Crédito	3.042	13.680	7.601	24.323
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga Impuesto s/ la producción de la energia eléctrica	5.264	16.273	10.598	32.135
ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	943.926	3.270.337	1.954.663	6.168.926
BEZ (berezko kudeaketa) / IVA (Gestión propia)	602.203	1.861.757	1.212.495	3.676.456
Ondare-eskualdaketen gaineko zerga Impuesto s/ Transmisiones Patrimoniales	13.261	58.663	49.424	121.348
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga Impuesto s/ Actos Jurídicos Documentados	5.694	19.020	14.483	39.197
Zenbait Garraiobideren gaineko zerga berezia I. Especial s/ Determ. Medios de Transporte	3.161	8.561	6.225	17.947
Fabrik.zerga bereziak (berezko kudeaketa) / I. Espec.Fabric.(Gestión propia)				
Alkoh. Erat.k eta Bitartekoak / Alc., Deriv. e Interm.	1.578	4.877	3.176	9.631
Hidrokarburoak / Hidrocarburos	198.065	612.333	398.790	1.209.188
Tabako-motak / Labores del Tabaco	58.152	179.782	117.086	355.021
Garagardoa / Cerveza	509	1.573	1.025	3.107
Elektrizitatea / Electricidad	10.912	33.737	21.972	66.621
Ikatzaren gaineko zerga berezia / I. Esp. s/ el Carbón				
Aseguru-sarien g.ko zerga/ I. s/ Primas de Seguros	9.707	40.757	23.712	74.176
Joku-jardueren g.ko zerga / I. s/ Actividades de Juego	1.358	1.987	1.598	4.943
Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga I. sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero	174	1.123	1.224	2.521
Zerga iraungiak / Impuestos extinguidos	-1.571	-4.854	-3.162	-9.587
ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	903.204	2.819.317	1.848.047	5.570.567
Jokoaren tasa guztira / Total Tasa de Juego	6.892	25.218	12.110	44.219
Bestelako sarrerak guztira / Total otros Ingresos	5.297	47.987	23.198	76.482
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK, GUZTIRA TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS	12.189	73.205	35.307	120.701
BEREZKO KUDEAKETA ZERGAK, GUZTIRA TOTAL TRIB. CON. GESTIÓN PROPIA	1.859.319	6.162.859	3.838.017	11.860.195
Aduanak / Aduanas	162.763	503.194	327.712	993.669
Barne eragiketak / Operaciones interiores	56.393	174.344	113.544	344.280
BEZ Egokitzapena, guztira / Total Ajuste IVA	219.156	677.537	441.256	1.337.949
Alkoh. Erat.k eta Bitartekoak / Alc., Deriv. e Interm.	6.992	21.616	14.078	42.687
Hidrokarburoak / Hidrocarburos	-53.862	-166.518	-108.447	-328.827
Tabako-motak / Labores del Tabaco	3.428	10.597	6.901	20.926
Garagardoa / Cerveza	2.915	9.012	5.869	17.797
Zerga Berezien Egokitzapena, guztira Total Ajuste Impuestos Especiales	-40.527	-125.292	-81.598	-247.417
ITUNDUTAKO ZERGAK, GUZTIRA TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	2.037.948	6.715.104	4.197.674	12.950.726

KOADROA / CUADRO VII.78

ITUNDUTAKO ZERGENGATIKO DIRU-BILKETA LIKIDOAREN BILAKAERA. EUSKAL AE 2011-2016

EVOLUCION DE LA RECAUDACION LIQUIDA POR TRIBUTOS CONCERTADOS. C.A. DE EUSKADI 2011-2016

000 €

	2016	%16/15	2015	%15/14	2014	%14/13	2013	%13/12	2012	%12/11	2011
Lanaren eta lanbide-jardueren etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Trabajo y Actividades Profesionales	4.597.695	2,8	4.473.913	1,6	4.401.917	1,8	4.325.492	-1,8	4.404.481	-1,0	4.448.414
Kapital higigarrien etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Capital Mobiliario	150.658	-13,8	174.821	-11,0	196.337	-8,7	215.028	-11,1	241.769	11,0	217.844
Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Capital Inmobiliario	79.468	-2,9	81.804	-1,8	83.322	-3,3	86.181	-1,8	87.749	3,0	85.191
Ondare-irabazien atxikipenak Retenciones Ganancias Patrimoniales	29.460	-44,5	53.045	59,7	33.210	11,9	29.674	47,6	20.110	36,1	14.780
Loteria batzuetako sarien g/ karga berezia Gravamen Especial s/ Premios Det. Loterias	15.347	-63,8	42.406	25,5	33.797						
Profesional eta enpresarien ordainketa zatikatuak Pagos frac. Profes. y Empresariales	148.841	2,3	145.432	3,8	140.166	-2,6	143.862	-5,1	151.589	-1,9	154.521
Kuota diferentzial garbia / Cuota diferencial neta	-181.621	-43,9	-323.740	-35,1	-498.544	-6,9	-535.246	-7,2	-576.503	-3,8	-599.524
PFEZ Guztira / Total IRPF	4.839.847	4,1	4.647.680	5,9	4.390.205	2,9	4.264.991	-1,5	4.329.195	0,2	4.321.226
Kapital higigarrien etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Capital Mobiliario	150.658	-13,8	174.821	-11,0	196.337	-8,7	215.028	-11,1	241.769	11,0	217.844
Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Capital Inmobiliario	79.468	-2,9	81.804	-1,8	83.322	-3,3	86.181	-1,8	87.749	3,0	85.191
Ondare-irabazien atxikipenak Retenciones Ganancias Patrimoniales	29.460	-44,5	53.045	59,7	33.210	11,9	29.674	47,6	20.110	36,1	14.780
Loteria batzuetako sarien g/ karga berezia Gravamen Especial s/ Premios Det. Loterias					80						
Kuota diferentzial garbia / Cuota diferencial neta	743.117	1,9	729.381	-13,8	846.274	-4,5	886.053	13,3	782.157	-7,2	842.443
SZ, guztira / Total IS	1.002.703	-3,5	1.039.051	-10,4	1.159.223	-4,7	1.216.937	7,5	1.131.784	-2,5	1.160.259
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga Impuesto s/ Renta No Residentes	-2.389	-95,6	-54.610	-669,3	9.593	-77,8	43.135	31,6	32.787	-60,1	82.099
Onordetza eta dohaintzen gaineko zerga Impuesto s/ Sucesiones y Donaciones	110.978	-2,4	113.688	1,2	112.358	6,6	105.417	17,7	89.532	16,1	77.145
Ondarearen/Aberastasunaren eta F. Handien g/ zerga Impuesto s/ el Patrimonio/Riqueza y Grandes Fortunas	161.328	6,8	151.036	-0,9	152.456	10,4	138.076	19,6	115.490		3.432
Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko zerga Impuesto s/ Depósitos en las Ent. de Crédito	24.323	-0,4	24.428	98,6	12.299						
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga Impuesto s/ la producción de la energia eléctrica	32.135	-13,9	37.304	32,2	28.217	15,1	24.509				
ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	6.168.926	3,5	5.958.577	1,6	5.864.350	1,2	5.793.064	1,7	5.698.787	1,0	5.644.160
BEZ (berezko kudeaketa) / IVA (Gestión propia)	3.676.456	0,9	3.645.246	2,5	3.555.395	13,2	3.139.434	6,0	2.962.490	-4,4	3.099.727
Ondare-eskualdaketen gaineko zerga Impuesto s/ Transmisiones Patrimoniales	121.348	19,3	101.716	12,7	90.234	25,5	71.889	-10,0	79.899	-18,9	98.531
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga Impuesto s/ Actos Jurídicos Documentados	39.197	-10,2	43.645	19,3	36.600	-4,9	38.466	-6,9	41.308	-29,4	58.475
Zenbait Garraiobideren gaineko zerga berezia I. Especial s/ Determ. Medios de Transporte	17.947	8,6	16.525	10,8	14.913	9,3	13.645	-21,4	17.350	-29,9	24.753
Fabrikazio zerga bereziak (berezko kudeaketa) I. Especiales Fabricación (Gestión propia)											
. **Alkoh. Erat.k eta Bitartekoak** / Alc. Deriv. e Interm.	9.631	-9,4	10.634	-4,7	11.153	-2,7	11.467	-13,1	13.201	-12,7	15.127
. **Hidrokarburoak** / Hidrocarburos	1.209.188	4,9	1.152.612	3,5	1.114.073	1,0	1.103.295	19,1	926.686	-3,7	961.837
. **Tabako-motak** / Labores del Tabaco	355.021	4,2	340.756	-3,9	354.748	5,7	335.613	-6,0	356.923	15,8	308.323
. **Garagardoa** / Cerveza	3.107	3,6	2.998	-16,5	3.590	-26,2	4.866	-12,8	5.582	-13,4	6.447
. **Elektrizitatea** / Electricidad	66.621	4,8	63.589	-12,9	73.036	-16,3	87.285	-4,6	91.527	2,5	89.312
Ikatzaren gaineko zerga berezia / I. Esp. s/ el Carbón											
Aseguru-sarien g.ko zerga/ I. s/ Primas de Seguros	74.176	2,4	72.462	3,2	70.216	-1,1	71.019	-3,8	73.818	-4,6	77.383
. **Joku-jardueren g.ko zerga** / I. s/ Actividades de Juego	4.943	20,6	4.100	-46,6	7.674						
Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga I. sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero	2.521	-16,3	3.011	266,7	821						
Zerga iraungiak / Impuestos extinguidos	-9.587	-15,0	-11.284	#####	298	-97,6	12.269	-74,7	48.567	0,4	48.359
ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	5.570.567	2,3	5.446.008	2,1	5.332.751	9,1	4.889.247	5,9	4.617.352	-3,6	4.788.275
Jokoaren tasa guztira / Total Tasa de Juego	44.219	6,8	41.420	-11,2	46.655	-4,3	48.734	-0,7	49.102	-9,2	54.100
Bestelako sarrerak guztira / Total otros Ingresos	76.482	3,6	73.857	28,9	57.315	-11,6	64.868	7,0	60.606	8,1	56.072
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK, GUZTIRA TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS	120.701	4,7	115.277	10,9	103.970	-8,5	113.602	3,5	109.708	-0,4	110.172
BEREZKO KUDEAKETA ZERGAK, GUZTIRA TOTAL TRIB. CON. GESTIÓN PROPIA	11.860.195	3,0	11.519.862	1,9	11.301.072	4,7	10.795.913	3,5	10.425.846	-1,1	10.542.607
Aduanak / Aduanas	993.669	26,3	786.902	22,5	642.481	-0,7	647.037	10,6	585.231	-5,9	621.879
Barne eragiketak / Operaciones interiores	344.280	-32,8	512.210	-13,7	593.795	20,6	492.216	0,3	490.537	30,5	375.761
BEZ Egokitzapena, guztira / Total Ajuste IVA	1.337.949	3,0	1.299.112	5,1	1.236.276	8,5	1.139.253	5,9	1.075.769	7,8	997.640
Alkoh. Erat.k eta Bitartekoak / Alc. Deriv. e Interm.	42.687	0,4	42.528	12,8	37.686	3,9	36.276	-0,9	36.610	-15,7	43.414
Hidrokarburoak / Hidrocarburos	-328.827	7,5	-305.874	-7,4	-330.411	31,1	-252.028	10,7	-227.711	-2,9	-234.432
Tabako-motak / Labores del Tabaco	20.926	-50,0	41.833	-34,5	63.848	288,0	16.456	-80,1	82.687	-28,7	115.956
Garagardoa / Cerveza	17.797	17,3	15.169	34,3	11.292	-30,5	16.246	8,2	15.021	-4,5	15.727
Zerga Berezien Egokitzapena, guztira Total Ajuste Impuestos Especiales	-247.417	19,9	-206.344	-5,2	-217.585	18,9	-183.050	96,0	-93.391	57,4	-59.335
ITUNDUTAKO ZERGAK, GUZTIRA TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	12.950.726	2,7	12.612.630	2,4	12.319.763	4,8	11.752.115	3,0	11.408.223	-0,6	11.480.913

Lurralde Historikoei dagozkien datuak III.1eranskineko A1, B1 eta G1 koadroetan

Información correspondiente a los Territorios Históricos en los cuadros A1, B1, G1 del anexo III.1.

KOADROA / CUADRO VII.79

DIRU-BILKETA LIKIDOAREN PORTZENTAJEZKO EGITURA. EUSKAL AE 2011-2016 ESTRUCTURA PORCENTUAL DE LA RECAUDACIÓN LÍQUIDA. C.A. DE EUSKADI 2011-2016						%
	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Lanaren eta lanbide-jardueren etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Trabajo y Actividades Profesionales	35,5	35,5	35,7	36,8	38,6	38,7
Kapital higigarrien etekinen atxikipenak / Retenc. Rdto. Capital Mobiliario	1,2	1,4	1,6	1,8	2,1	1,9
Kap. higiezinaren etekinen atxikipenak / Retenc. Rdto. Capital Inmobiliario	0,6	0,6	0,7	0,7	0,8	0,7
Ondare-irabazien atxikipenak / Retenc. Ganancias Patrimoniales	0,2	0,4	0,3	0,3	0,2	0,1
Loteria batzuetako sarien g/ karga berezia Gravamen Especial s/ Premios Det. Loterias	0,1	0,3	0,3			
Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak / P.frac. Profes. y Empresariales	1,1	1,2	1,1	1,2	1,3	1,3
Kuota diferentzial garbia / Cuota diferencial neta	-1,4	-2,6	-4,0	-4,6	-5,1	-5,2
PFEZ Guztira / Total IRPF	37,4	36,8	35,6	36,3	37,9	37,6
Kapital higigarrien etekinen atxikipenak / Retenc. Rdto. Capital Mobiliario	1,2	1,4	1,6	1,8	2,1	1,9
Kap. higiezinaren etekinen atxikipenak / Retenc. Rdto. Capital Inmobiliario	0,6	0,6	0,7	0,7	0,8	0,7
Ondare-irabazien atxikipenak / Retenc. Ganancias Patrimoniales	0,2	0,4	0,3	0,3	0,2	0,1
Loteria batzuetako sarien g/ karga berezia Gravamen Especial s/ Premios Det. Loterias			0,0			
Kuota diferentzial garbia / Cuota diferencial neta	5,7	5,8	6,9	7,5	6,9	7,3
SZ, guztira / Total IS	7,7	8,2	9,4	10,4	9,9	10,1
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga Impuesto s/ Renta No Residentes	0,0	-0,4	0,1	0,4	0,3	0,7
Onordetza eta dohaintzen gaineko zerga Impuesto s/ Sucesiones y Donaciones	0,9	0,9	0,9	0,9	0,8	0,7
Ondarearen/Aberastasunaren eta F. Handien g/ zerga Impuesto s/ el Patrimonio/Riqueza y Grandes Fortunas	1,2	1,2	1,2	1,2	1,0	0,0
Kreditu-erakundeetako Gordailuen gaineko zerga Impuesto s/ Depósitos en las Ent. de Crédito	0,2	0,2	0,1			
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga Impuesto s/ la producción de la energia eléctrica	0,2	0,3	0,2	0,2		
ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	47,6	47,2	47,6	49,3	50,0	49,2
BEZ (berezko kudeaketa) / IVA (Gestión propia)	28,4	28,9	28,9	26,7	26,0	27,0
Ondare-eskualdaketen gaineko zerga Impuesto s/ Transmisiones Patrimoniales	0,9	0,8	0,7	0,6	0,7	0,9
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga Impuesto s/ Actos Jurídicos Documentados	0,3	0,3	0,3	0,3	0,4	0,5
Zenbait Garraiobideren gaineko zerga berezia I. Especial s/ Determ. Medios de Transporte	0,1	0,1	0,1	0,1	0,2	0,2
Fabrikazio zerga bereziak (berezko kudeaketa) I. Especiales Fabricación (Gestión propia)						
. Alkoh. Erat.k eta Bitartekoak / Alc., Deriv. e Interm.	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
. Hidrokarburoak / Hidrocarburos	9,3	9,1	9,0	9,4	8,1	8,4
. Tabako-motak / Labores del Tabaco	2,7	2,7	2,9	2,9	3,1	2,7
. Garagardoa / Cerveza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1
. Elektrizitatea / Electricidad	0,5	0,5	0,6	0,7	0,8	0,8
Ikatzaren gaineko zerga berezia / I. Esp. s/ el Carbón						
Aseguru-sarien g.ko zerga/ I. s/ Primas de Seguros	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,7
Joku-jardueren g.ko zerga / I. s/ Actividades de Juego	0,0	0,0	0,1			
Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga I. sobre los Gases Fluorados de Efecto Invernadero	0,0	0,0	0,0			
Zerga iraungiak / Impuestos extinguidos	-0,1	-0,1	0,0	0,1	0,5	0,4
ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	43,0	43,2	43,3	41,6	40,5	41,7
Jokoaren tasa guztira / Total Tasa de Juego	0,3	0,3	0,4	0,4	0,4	0,5
Bestelako sarrerak guztira / Total otros Ingresos	0,6	0,6	0,5	0,6	0,5	0,5
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK, GUZTIRA TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS	0,9	0,9	0,8	1,0	1,0	1,0
BEREZKO KUDEAKETA ZERGAK, GUZTIRA TOTAL TRIB. CON. GESTIÓN PROPIA	91,6	91,3	91,7	91,9	91,4	91,8
Aduanak / Aduanas	7,7	6,2	5,2	5,5	5,1	5,4
Barne eragiketak / Operaciones interiores	2,7	4,1	4,8	4,2	4,3	3,3
BEZ Egokitzapena, guztira / Total Ajuste IVA	10,3	10,3	10,0	9,7	9,4	8,7
Alkoh. Erat.k eta Bitartekoak / Alc., Deriv. e Interm.	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3	0,4
Hidrokarburoak / Hidrocarburos	-2,5	-2,4	-2,7	-2,1	-2,0	-2,0
Tabako-motak / Labores del Tabaco	0,2	0,3	0,5	0,1	0,7	1,0
Garagardoa / Cerveza	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Zerga Berezien Egokitzapena, guztira Total Ajuste Impuestos Especiales	-1,9	-1,6	-1,8	-1,6	-0,8	-0,5
ITUNDUTAKO ZERGAK, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

KOADROA / CUADRO VII.80

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Foru-aldundiek, 2016ko ekitaldian, 4.840 milioi euro kontabilizatu dituzte PFEZren bidez.

Bildutako kopuru horrek zera adierazten du:

- % 4,1eko urte arteko aldaketa; bilakaera ez zen berdina izan osagai garrantzitsuenetan.
- Aurrekontu-sabaia gainditu du gauzatze-mailak (% 100,2).
- Zuzeneko zergen eta guztizko zerga-bilketaren % 78,5 eta % 37,4, hurrenez hurren.

1. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

Las Diputaciones Forales han contabilizado durante el ejercicio 2016 por el IRPF un total de 4.840 millones de euros.

Dicha recaudación supone:

- Una variación interanual del 4,1%, con un comportamiento desigual entre sus componentes más significativos.
- Una ejecución por encima de su techo presupuestario (100,2%).
- El 78,5% y 37,4% de los impuestos directos y de la recaudación total, respectivamente.

PFEZ / IRPF

	Diru-bilketa Recaudación ᵒᵒᵒ€	**Gehikuntza** Incremento
2006	3.754.206	10,3%
2007	4.266.304	13,6%
2008	4.458.237	4,5%
2009	3.917.693	-12,1%
2010	4.065.868	3,8%
2011	4.321.226	6,3%
2012	4.329.195	0,2%
2013	4.264.991	-1,5%
2014	4.390.205	2,9%
2015	4.647.680	5,9%
2016	4.839.847	4,1%



KOADROA / CUADRO VII.81

GRAFIKOA / GRÁFICO VII.29

2015eko diru-bilketaren igoera nabarmenaren ostean (% 5,9), urte amaieran, PFEZaren diru-bilketaren hazkunde-erritmoa 1,8 puntutan moteldu da. Bultzada, aurreko ekitaldian bezala, kuota diferentzial garbiaren joera positiboak eragin du, nagusiki (% 43,9).

Lan-etekinengatiko atxikipenen bilketak —PFEZaren bilketa-pisu handieneko osagaia— aurrerapena izan du 2016an, hots, % 2,8koa. Bilakaera hori bat dator EAEko lan-merkatuaren egoerarekin; izan ere, okupazioak zein soldatek izan dute bilakaera positiboa.

Tras el importante incremento de recaudación en 2015 (5,9%), en el cierre de este año, la recaudación por IRPF ha moderado su ritmo de crecimiento en 1,8 puntos porcentuales. El impulso, al igual que en el ejercicio anterior, ha procedido fundamentalmente del positivo comportamiento de la cuota diferencial neta (43,9%).

La recaudación de retenciones por rendimientos del trabajo – el componente del IRPF de mayor peso recaudatorio- ha mostrado en 2016 un avance del 2,8%. Dicha evolución está en sintonía con la realidad del mercado laboral de la CAE, en el que tanto la ocupación como los salarios han evolucionado

positivamente.

Kapital higigarrien etekinengatiko atxikipenen ondorioz izandako diru-bilketaren bilakaera negatiboa izan da 2016an (–% 13,8); jaitsiera horretan eragin dute, batetik, tasak jaisteak (2016an atxikipenen tasa jaitsi zen % 19ra), eta bestetik, banku-gordailuengatiko interesen ordainketa txikiagoa izateak.

La evolución de la recaudación por retenciones por rendimientos de capital mobiliario en 2016 ha sido negativa (-13,8%), con una parte de la caída debida a la bajada de tipos (durante 2016 el tipo de retención se situó en el 19%) y por otra, como consecuencia de una menor remuneración de intereses por depósitos bancarios.

Abendura arte kapital higiezinaren etekinen gaineko atxikipenen bidezko diru-bilketak aldaketa negatiboak izan ditu lurralde guztietan, atxikipen-tasak jaistearen ondorioz; diru-sarrera globalak, hain zuzen, 2015. urtekoak baino % 2,9 txikiagoak dira.

La recaudación hasta diciembre por retenciones por rendimientos de capital inmobiliario ha reflejado en todos los territorios variaciones negativas por el efecto de la bajada de tipos de retención, siendo los ingresos globales un 2,9% inferiores a los de 2015.

Ondare-irabazien gaineko atxikipenen bidezko diru-bilketa nabarmen jaitsi da urte osoan zehar, lurralde guztietan, eta % 44,5eko jaitsierarekin itxi du urtea. Alde batetik, kontuan izan behar da 2015. urtean etekin horiek asko handitu zirela (% 59,7), eta, bestetik, atxikipen-tasen murrizketak ere lagundu zutela jaitsieran.

La recaudación por retenciones sobre ganancias patrimoniales ha registrado durante todo el año disminuciones importantes en todos los territorios, y ha cerrado el año con una caída del 44,5%. Por un lado, hay que tener en cuenta que en 2015 se produjo un fuerte incremento de estos rendimientos (59,7%) y por otro, la reducción de los tipos de retención también ha contribuido a la caída.

Loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga bereziari dagozkion atxikipenen bidezko diru-bilketa 15,3 milioi eurokoa izan da; iaz, aldiz, 42,4 milioi eurokoa. Aldaketa horren oinarrian aurreko aldiei dagozkien 2015. urteko diru-sarreren zenbaketa dago, 2014. urte hasieran karga hori itundu ondoren.

La recaudación por retenciones del gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas ha sido de 15,3 millones de euros frente a los 42,4 millones de euros del año pasado. Esta variación se explica por el computo de ingresos en 2015 correspondientes a periodos anteriores tras producirse la concertación de este gravamen a principios de 2014.

2016an ordainketa zatikatuen diru-bilketak % 2,3ko igoera izan du. Lurraldeen arabera, nolabaiteko desberdintasuna dago enpresa pertsonalen, autonomoen eta profesionalen jarduerei lotutako konturako diru-sarreren bilakaeran.

La recaudación por pagos fraccionados ha registrado en 2016 un incremento del 2,3%. Por territorios se muestra cierta disparidad en la evolución de los ingresos a cuenta vinculados a las actividades de empresas personales, autónomos y profesionales.

Zerga honen arteko ezberdintasunaren kuota garbiaren bilketaren bilakaera, funtsean, Foru Aldundien errenta kanpainetatik dator. Diru-sarrerak eta itzulketak aplikatutako araudien neurriek ekarritako ondorio handiago ala txikiagoen ondorio logikoa dira.

La evolución recaudatoria de la cuota diferencial neta por este impuesto se deriva básicamente de las campañas de renta de las Diputaciones Forales, cuyos ingresos y devoluciones son una consecuencia lógica de la mayor o menor incidencia de las medidas normativas aplicadas.

PFEZ / IRPF Kuota Diferentzial Garbia / Cuota Diferencial Neta Diru-Bilketaren Bilakaera / Evolución de la Recaudación			
			ᵒᵒᵒ €
	2016	2015	% 16/15
Diru-bilketa osoa eta hondakinak Recaudación íntegra y residuos	639.242	553.795	15,4
Itzulketak / Devoluciones	-820.863	-877.535	6,5
Diru-bilketa likidoa / Recaudación líquida	-181.621	-323.740	43,9

KOADROA / CUADRO VII.82

Urtearen amaieran, kuota diferentzial garbiak emaitza hobea izan du (% 43,9) azaroko hilekoan izandako diru-sarreretan urtetik urterako hobekuntza egon delako. Errenta-kanpainan kuota diferentzial positiboa izan duten autolikidazioen diru-bilketaren zati bat (% 40 inguru) jasotzen du horrek.

A final de año, la cuota diferencial neta ha mostrado un resultado más favorable (43,9%) como consecuencia de una mejora interanual en los ingresos registrados en la mensual de noviembre que recoge parte de la recaudación (en torno al 40%) de las autoliquidaciones con cuota diferencial positiva derivadas de la campaña de la renta.

2. Sozietateen gaineko Zerga

Foru-aldundiek, Sozietateen gaineko Zergaren bidez, abenduaren 31n guztira 1.002,7 milioi euro bilduak zituzten, hots, aurreko urtean baino 36,3 milioi euro gutxiago, urte arteko tasa -% 3,5 izanik.

2. Impuesto sobre Sociedades

Las Diputaciones Forales han recaudado por el Impuesto sobre Sociedades a 31 de diciembre un total de 1.002,7 millones de euros, lo que supone 36,3 millones de euros menos que en el año anterior, esto es, una tasa interanual del -3,5%.

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

	Diru-bilketa Recaudación ᵒᵒᵒ€	**Gehikuntza** Incremento
2006	1.692.381	17,5%
2007	2.034.171	20,2%
2008	1.692.233	-16,8%
2009	1.231.686	-27,2%
2010	987.056	-19,9%
2011	1.160.259	17,5%
2012	1.131.784	-2,5%
2013	1.216.937	7,5%
2014	1.159.223	-4,7%
2015	1.039.051	-10,4%
2016	1.002.703	-3,5%

KOADROA / CUADRO VII.83



GRAFIKOA / GRÁFICO VII.30

Zerga honen bilakaera, logikoa denez, bere osagai garrantzitsuenaren portaerak baldintzatzen du, hau da, kuota diferentzial garbiarenak.

La evolución de este impuesto está condicionada por el comportamiento del más importante de sus componentes, la cuota diferencial neta.

Urteko lehen hiruhilekoan, ohi bezala, 2014ko sozietateen gaineko zergaren kanpainari zegozkion itzulketak egiteak eragin dute. Eginiko itzulketen zenbatekoa txikiagoa izan zen 2015eko hasieran egindakoa baino.

El primer trimestre del año vino marcado como es habitual por la realización de devoluciones correspondientes a la campaña del Impuesto sobre Sociedades de 2014. El importe de devoluciones realizadas fue inferior respecto al que se materializó a principios de 2015.

Urteko bigarren hiruhilekoan, zergaren kuota diferentzialaren bidezko diru-bilketa % 64,2 jaitsi zen, araudi erkideari atxikitako enpresen 2016ko lehen ordainketa zatikatuaren bidezko diru-sarreren emaitza txarraren ondorioz. Ordainketa zatikatuaren bidezko diru-bilketaren jaitsieran garrantzi handia izan dute araudietan egin diren aldaketek, tartean, aplikatu beharreko zerga-tasak jaistea indarrean jartzeak eta aurreko urtetako aldi baterako neurriak desagertzeak: tasa altuagoak enpresa handientzat, dibidenduak oinarrian sartzea, gutxieneko tributazioa...

En el segundo trimestre del año la recaudación por la cuota diferencial del impuesto disminuyó un 64,2% debido al desfavorable resultado de los ingresos por el primer pago fraccionado de 2016 de las empresas sujetas a normativa común. En esta caída de la recaudación por el pago fraccionado han tenido una importancia relevante algunas modificaciones normativas como la entrada en vigor de rebajas en los tipos impositivos aplicables y la desaparición de medidas transitorias de años anteriores: tipos incrementados para las mayores empresas, incorporación de los dividendos a la base, tributación mínima,...

Sozietateen kanpainaren diru-bilketaren zatirik handiena sartu ondoren, kuota diferentzial garbiaren bidezko diru-bilketa metatua –% 14,5 zen abuztuan.

Tras ingresarse el grueso de la recaudación de la campaña de sociedades, la recaudación acumulada a agosto por cuota diferencial neta se situó en un -14,5%.

Urteko azken hiruhilekoan, kuota diferentzialaren bidezko diru-sarrerak nabarmen hobetu ziren; izan ere, Estatuak zerga-tasak igo eta gutxieneko ordainketa berrezartzea onartzeak eragina izan zuen sozietateen gaineko zergaren bigarren eta hirugarren ordainketa zatikatuaren diru-bilketan.

En el último trimestre del año, los ingresos por Cuota Diferencial experimentaron una importante mejoría por la incidencia recaudatoria que tuvo en el segundo y tercer pago fraccionado del Impuesto sobre Sociedades la aprobación por parte del Estado de una elevación de tipos impositivos y del restablecimiento de un pago mínimo.

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES
DIRU-BILKETAREN BILAKAERA / EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN

ooo €

	2016	2015	% 16/15
Diru-bilketa osoa eta hondakinak Recaudación íntegra y residuos	1.148.317	1.060.769	8,3
Itzulketak / Devoluciones	-405.200	-331.388	-22,3
Diru-bilketa likidoa / Recaudación líquida	743.117	729.381	1,9

KOADROA / CUADRO VII.84

Azkenik, kuota diferentzial garbiaren bilketa, 2016ko abenduan, % 1,9 igo da.

Finalmente, la recaudación por cuota diferencial neta a diciembre de 2016 se incrementó un 1,9%.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga

BEZerako, kontsumoaren eta ondasunen produkzioaren benetako neurgailurako, guztizko emaitza zera da: zerga-bilketaren

3. Impuesto sobre el Valor Añadido

El resultado total para el IVA, auténtico termómetro del consumo y de la producción de bienes, es de avance recaudatorio al

aurrerapena da. Izan ere, 2016ko itxieran 5.014 milioi euroko zerga-bilketa kontabilizatu zen, eta zera adierazten du:

- Zerga osorako, % 1,4ko urte arteko tasa (% 3,0 BEZaren doikuntzagatik Estatutik jaso gabeko kopuruak kontuan hartu gabe).
- Aurrekontuaren gauzatze-maila % 94,8 izan zen.
- Zeharkako zergen eta itundutako zerga bidezko zerga-bilketa osoaren % 75,3 eta % 38,7 izan zen, hurrenez hurren.

contabilizar al cierre de 2016 una recaudación de 5.014 millones de euros, lo que supone:

- Una tasa interanual del 1,4% para el conjunto del impuesto (3,0% sin tener en cuenta las cantidades no recibidas del Ajuste IVA por parte del Estado).
- Un grado de ejecución del presupuesto del 94,8%.
- El 75,3% y el 38,7% de los impuestos indirectos y de la recaudación total por tributos concertados, respectivamente.

BALIO ERANTSIAREN ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO

	Diru-bilketa Recaudación ººº€	**Gehikuntza** Incremento
2006	4.673.824	11,6%
2007	4.837.429	3,5%
2008	4.265.486	-11,8%
2009	3.528.205	-17,3%
2010	4.515.199	28,0%
2011	4.097.367	-9,3%
2012	4.038.258	-1,4%
2013	4.278.687	6,0%
2014	4.791.671	12,0%
2015	4.944.358	3,2%
2016	5.014.405	1,4%

KOADROA / CUADRO VII.85



GRAFIKOA / GRÁFICO VII.31

2016aren amaieran, kudeaketa propioko BEZaren bidezko diru-bilketaren igoera % 0,9 izan zen. Hazkunde txiki hori bi arrazoirengatik gertatu zen; batetik, zerga horren itzulketak igo zirelako (% 2,9), eta, bestetik, diru-sarreren hazkundea ahula zelako (% 1,5).

El tercer instrumento de participación de las Entidades Locales Alavesas en los recursos disponibles del Territorio se recoge en la Norma Foral 21/2013, de 27 de junio de 2013 que regula los programas de ayudas a las Iniciativas para el Fomento de las Relaciones Vecinales y a la Ejecución de Obras Menores. Financia, el primero de ellos, obras menores realizadas por el sistema de veredas o auzolan en concejos y ayuntamientos de menos de 500 habitantes. Por su parte, el segundo, tiene por objeto la financiación de las actuaciones previstas en la Norma cuyo coste total no supere los 35.000 euros IVA incluido y que no hayan sido objeto de otras ayudas del Departamento de Administración local de la Diputación pudiendo acogerse al programa las Cuadrillas, los Concejos y los Ayuntamientos, excluido el de Vitoria-Gasteiz. Estos programas se dotarán con, al menos, el 0,50% de los recursos disponibles del Territorio Histórico de Álava (Art.3 NF 21/2013). La cantidad presupuestada para estos 2 programas en 2016 es de 1.899 miles de euros.

2.c.2. Bizkaiko Lurralde Historikoa

Udalerriek partaidetzak izango dituzte zerga itunduetako diru-sarreretan; eta partaidetza horiek Udalkutxa - Udalen Finantzaketarako Foru Funtsa osatuko dute. Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2016rako aurrekontu orokorrei buruzkoa da abenduaren 30eko 8/2015 Foru Araua; hor finkatuta dagoenez, 824.062 mila euroko kreditua emango zaio aipatu funtsari,

2.c.2. Territorio Histórico de Bizkaia

Las participaciones de los Municipios en los ingresos por tributos concertados constituyen el Fondo Foral de Financiación Municipal-Udalkutxa. En la Norma Foral 8/2015, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para 2016 se fija el crédito presupuestario destinado a dicho fondo en 824.062 miles de euros,

honako irizpide hauen arabera banatuta:

1) Bilboko Udala finantzatzera zuzenduko den aurrekontu-kreditua 311.986 mila eurokoa izango da.

2) Ustekabeko gastuak eta Udalerrien Elkarteak finantzatzeko erabiliko diren aurrekontu-kredituak 6.180 eta 1.236 mila eurokoak dira, hurrenez hurren.

3) Bilbo kanpoan utzita, gainerako udalerrien finantzaketarako 504.659 mila euroko aurrekontu-kreditua erabiliko da. Honako hauek dira banaketa-irizpideak:

a) Udalerri bakoitzari 81.137 euro emango zaizkio.

b) Gainerakoa honako aldagai eta ehunekoen arabera banatuko da:

- Zenbatekoaren % 80 banatuko da, udalerri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleei erreparatuz.
- % 13 banatuko da, udalerri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleei erreparatuta, ahalegin fiskalaren arabera haztatua.
- Gainerako % 7 honako portzentaje eta aldagaien arabera banatuko da:
  - Haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta hezkuntza berezia aintzat hartuta, % 60, ikastetxe publikoetan dauden unitate-kopuruen arabera.
  - % 18, langabeziaren arabera.
  - Beste % 18, sakabanaketa-mailaren arabera.
  - Gainerako % 4a, hondartzen arabera.

Aurreko zenbakian aipatutako banaketa-irizpideak aplikatuta udalerri bakoitzerako eta Udalerri Elkarterako esleitu behar den aurrekontu-kreditutik, dagokion ordainketa egingo zaio bakoitzari, konturako ordainketa gisa; era horretara, beraz, kreditu horren hamabirena emango zaio bakoitzari hilero.

distribuido con los siguientes criterios:

1) El crédito presupuestario destinado a la financiación del ayuntamiento de Bilbao se cifra en 311.986 miles de euros.

2) Los créditos presupuestarios destinados a la financiación de imprevistos y a la Asociación de Municipios se cifran respectivamente en 6.180 y en 1.236 miles de euros.

3) El crédito presupuestario destinado a la financiación del resto de Municipios, excluido Bilbao, se cifra en 504.659 miles de euros. Los criterios de distribución son los siguientes:

a) Cada municipio percibirá una asignación de 81.137 euros.

b) El resto se distribuirá de acuerdo a las variables y porcentajes siguientes:

- El 80% en función del número de habitantes de derecho de cada municipio.
- El 13% en función del número de habitantes de derecho de cada municipio, ponderado por su esfuerzo fiscal.
- El 7% restante en función de los siguientes porcentajes y variables:
  - El 60% en función del número de unidades escolares de educación infantil, primaria y especial existentes en centros públicos.
  - El 18% en función del paro.
  - El 18% en función de la dispersión.
  - El 4% restante en función de las playas.

Con cargo al crédito presupuestario resultante para cada municipio y para la Asociación de Municipios de la aplicación de los criterios de distribución contenidos en el número anterior, se efectuará un pago a cuenta mensual a cada uno de ellos, por importe de la doceava parte de dicho crédito. El pago se efectuará

Hileko lehen hogei egunetan ordainduko zaie.

Ekainaren 30eko 5/2008 Foru-Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko zerga neurriak, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate arloko aldaketara egokitzeko zerga neurriak eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituenean, udalerriek Lurralde Historikoko tributu itunduetan daukaten partaidetza-portzentajea, % 56 izango dela ezarri da.

Udalerriek tributu ez itaunduetan duten parte-hartzea tributu itunduetan izandako parte-hartzearen ondoriozko ehuneko berberetan banatuko da (2016ko aurrekontuen 8/2015 Foru Arauaren 35. art.).

2.c.3. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak onartzeko eman zen abenduaren 23an 8/2015 Foru Araua; horren bitartez, Udalen Finantzaketarako Foru Funtsari (UFFF) 458.902 mila euro esleitu zaizkio 2016an, Ekonomia Itunaren baliabideetan parte hartzeko. Hori horrela egin da, UFFF arautzen duen 15/1994 Foru Arauaren 2. artikuluak araututakoa betetzeko.

Abenduaren 27ko 12/2012 Foru Arauaren bidez zehaztu zen lurralde honen gutxieneko ehunekoa % 58 izango zela. Hain zuzen, gutxieneko ehunekoari aipu egiten zaio martxoaren 23ko 2/2007 Legearen bidez onartutako Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko aplikatuko den metodologiaren laugarren xedapen gehigarrian.

15/1994 Foru Arauak xedatutakoaren arabera, honela banatuko da Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren zenbateko osoa:

1. Gipuzkoako udalerrien artean banatuko da % 99,85. Hauek dira banaketa-irizpideak:

- 1.100 biztanletik beherako udalerriei % 1,2, zenbateko finko hauek emango zaizkie:

en los primeros veinte días de cada mes.

En la Norma Foral 5/2008, de 30 de junio, por la que se aprueban medidas fiscales para incentivar la actividad económica, de adaptación del Impuesto sobre Sociedades a la reforma contable y otras medidas tributarias, se establece en el 56%, el porcentaje de participación de los municipios en los tributos concertados del Territorio Histórico.

La distribución de la participación de los Municipios en los tributos no concertados se hará con los mismos porcentajes que resulten de la participación en los tributos concertados (Art. 35 N. F. 8/2015, de presupuestos para 2016).

2.c.3. Territorio Histórico de Gipuzkoa

La Norma Foral 8/2015, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa fija la dotación del Fondo Foral de Financiación Municipal, FFFM, para 2016 en la cantidad de 458.902 miles de euros, en concepto de participación en los recursos del Concierto Económico de acuerdo a lo previsto en el artículo 2 de la Norma Foral 15/1994, reguladora del FFFM.

El porcentaje mínimo señalado en la disposición adicional cuarta de la metodología de distribución de recursos y determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aprobada por Ley 2/2007 de 23 de marzo, se fija en este territorio en un 58%. Este porcentaje fue aprobado por Norma Foral 12/2012 de 27 de diciembre.

Según lo dispuesto en la Norma Foral 15/1994, la cuantía total del Fondo Foral de Financiación Municipal se distribuirá del siguiente modo:

1. El 99,85% entre los Municipios de Gipuzkoa según los criterios siguientes:

- 1,2% entre Municipios de hasta 1.100 habitantes, con los importes fijos:

200 biztanle artekoei…….84.141,69 €

201 eta 400 artekoei……72.121,45 €

401 eta 600 artekoei…….60.101,21 €

601 eta 1.000 artekoei….36.060,73 €

1.001 eta 1.100 artekoei.24.040,48 €

- % 90 banatzen da, udalerrien zuzenbidezko biztanleen proportzio zuzenari erreparatuta.

- % 2,15 Donostiari esleituko zaio, hiriburua den aldetik.

- % 3, Udalerri bakoitzaren errentaren alderantzizko proportzioan, zuzenbidezko biztanleen kopuruaren arabera haztatuta.

- % 3,5, udalerri bakoitzeko ahalegin fiskalaren proportzio zuzenean, zuzenbidezko biztanleen kopuruaren arabera haztatuta.

2. Funtseko zenbatekoaren gainerako % 0,15 EUDEL, Euskal Herriko Udalen Elkartea, finantzatzera bideratzen da berariaz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin, hau da, otsailean, maiatzean, abuztuan eta azaroan emango dizkie udalerriei hasieran finkatutako zenbatekoen laurdena, gerora likidazioa egin beharko dela jakinda.

Abenduaren 23ko 9/2008 Foru Arauaren hamahirugarren xedapen gehigarriak 15/1994 Foru Araua aldatzen du, eta paragrafo bat gehitzen dio 6. artikuluari, eta honela idatzita geratuko da:

"4. Salbuespen gisa, aurreko 2. apartatuan aipatutako behin betiko likidaziotik Foru Aldundiaren alde atera daitezkeen saldoak geroratu edo zatikatu daitezke, Diputatuen Kontseiluak kasu bakoitzerako erabakitzen dituen moduan eta baldintzetan."

Ekonomia Ituneko 51. artikuluak araututakoa betez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako toki-erakundeen artean banatu behar ditu itundu gabeko zergen zeharkako

Hasta 200……84.141,69 €

De 201 a 400……72.121,45 €

De 401 a 600……60.101,21 €

De 601 a 1.000……36.060,73 €

De 1.001 a 1.100……24.040,48 €

- 90% en proporción directa a los habitantes de derecho de los Municipios.

- 2,15% se asignará a Donostia-San Sebastián, por razón de capitalidad.

- 3% en proporción inversa a la renta de cada Municipio ponderada por el número de sus habitantes de derecho.

- 3,5% en proporción directa al esfuerzo fiscal de cada Municipio ponderado por el número de sus habitantes de derecho.

2. El 0,15% restante del total de la cuantía del Fondo se destina a la financiación específica de la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL.

Trimestralmente, en los meses de febrero, mayo, agosto y noviembre, la Diputación Foral hará efectivo el pago a favor de los Municipios de la cuarta parte de las cantidades inicialmente previstas, sin perjuicio de la liquidación.

La Disposición Adicional Decimotercera de la Norma Foral 9/2008, de 23 de diciembre, modifica la Norma Foral 15/1994, añadiendo un apartado al artículo 6 en los siguientes términos:

"4. Excepcionalmente, los saldos a favor de la Diputación Foral que, en su caso, resulten de la liquidación definitiva citada en el apartado 2 anterior podrán ser objeto de aplazamiento o fraccionamiento en los términos y en las condiciones que, para cada supuesto, acuerde el Consejo de Diputados."

La aportación indirecta mediante participación en tributos no concertados se distribuirá por la Diputación Foral entre los Municipios de Gipuzkoa, de acuerdo a lo previsto en el

ekarpenetatik izan dituen diru-sarrerak.

2.d. Lurralde erkideko udalerrien finantzaketa

Udalerriek Estatuaren tributuetan duten partaidetza martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuan (LTOLTB) bildutako arauen arabera zehaztuko da.

1. Udalerri bakoitzaren partaidetza dela-eta Finantzaketarako Funts Osagarrian 2016an egin beharreko konturako ekarpenen kopuru osoa berariaz kontsignatutako krediduan jasoko da Toki Erakundeekiko Finantza Koordinazioko Zuzendaritza Orokorreko 942M Programaren 36. sekzioko 21. zerbitzuan. Udalerri horiek Tokiko Ogasunak arautzekoa den martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuko 111. artikuluak araututako eremu subjektibokoak izango dira.

Zenbateko hori zehazteko, 2004ko behin betiko partaidetzaren % 95 hartuko da kontuan, eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuko 120. eta 121. artikuluetan azaldutako metodologia aplikatuko da.

Aurreko zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioen % 95 gehituko zaio; murrizketa horiek, hain zuzen, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ondoko erreformaren ondorio dira. Konpentsazioak Estatuaren 2016ko zergazko diru-sarreren termino berberetan eguneratuko dira: behin betiko konpentsazioak 2004tik 2016ra bitarteko epean eguneratu diren moduan, eta, konpentsazio osagarriak, berriz, 2006tik 2016ra eguneratu diren moduan.

Finantzaketarako Funts Osagarrian 2016an egin beharreko konturako ekarpenak hilero ordainduko dira, zenbateko osoaren hamabirena hilabete bakoitzean, hain zuzen ere.

Estatuko zergen diru-sarreren igoera erabaki ondoren, behin betiko likidazioa egingo da.

Concierto Económico (artículo 51).

2.d. Financiación de los Municipios en Territorio Común

La participación de los Municipios en los tributos del Estado se determinará con arreglo a las normas contenidas en el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo (TRLRHL).

1. El montante global de las entregas a cuenta de la participación de cada municipio incluido en el ámbito subjetivo del artículo 111 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, en el Fondo Complementario de Financiación correspondiente a 2016 se reconocerá con cargo al crédito específico consignado en la Sección 36, Servicio 21, Secretaría General de Coordinación Autonómica y Local. Entidades Locales, Programa 942M.

El citado importe se determinará a partir del 95% de la participación definitiva del año base 2004 y aplicando la metodología de los artículos 120 y 121 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo.

A la cantidad anterior, se le añadirá el 95% de las compensaciones por mermas de ingresos derivadas de la reforma del Impuesto sobre Actividades Económicas actualizadas en los mismos términos que los ingresos tributarios del Estado en 2016 respecto a 2004, las definitivas, y respecto a 2006, las adicionales.

Las entregas a cuenta de la participación en el Fondo complementario de financiación para 2016, serán abonadas mediante pagos mensuales equivalentes a la doceava parte del montante global.

Determinado el incremento de los ingresos tributarios del Estado se procederá a efectuar la liquidación definitiva.

2. Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 122. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako udalerri bakoitzari konturako ekarpenak ordaintzeko zenbateko osoa hauxe izango da: 2004. oinarri-urtean Estatuaren tributuetan duten partaidetza osoaren % 95, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 123. artikuluan aurreikusitako bilakaera-indizearekin eguneratua. Bada, zenbateko hori kontzeptu honetan kontsignatutako berariazko kredituaren kontura ordainduko da: 36. Sekzioa, 21. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia. Toki Erakundeak, 942M Programa.

2. El montante global destinado a realizar las entregas a cuenta a los municipios incluidos en el ámbito subjetivo del artículo 122 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, equivalente al 95% de su participación total en los tributos del Estado para el año base 2004 actualizado por el índice de evolución contemplado en el artículo 123 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se reconocerá con cargo al crédito específico consignado en la Sección 36, Servicio 21, Secretaría General de Coordinación Autonómica y Local. Entidades Locales, Programa 942M.

Estatuko zergen diru-sarreren igoera erabaki ondoren, behin betiko likidatu behar da udalerriek 2016ko Estatuko zergetan izango duten partaidetza.

Determinado el incremento de los ingresos tributarios del Estado, se efectúa la liquidación definitiva de la participación de los Municipios en los tributos del Estado para el 2016.

Zenbateko osoa honako irizpide hauei jarraituz banatuko da:

El importe global se distribuirá de acuerdo con los siguientes criterios:

a. Udalerri bakoitzak, eskuarki, 2003ko Estatuko zergetan izandako partaidetzaren behin betiko likidaziotik esleitutako zenbateko bera jasoko du. Zenbateko hori 2003ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa den abenduaren 30eko 52/2002 Legeko 65. artikuluko bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren paragrafoetan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

a. Como regla general cada Ayuntamiento percibirá una cantidad igual a la resultante de la liquidación definitiva de la participación en los tributos del Estado de 2003 calculada con arreglo a lo dispuesto en los apartados dos, tres, cuatro y cinco del artículo 65 de la Ley 52/2002, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales para 2003.

b. Gainerakoa proportzioan banatuko da, jarraian adieraziko diren aldagaien eta ehunekoen eta a) puntuan finkatutako zenbatekoen artean izandako emaitza positiboari erreparatuta. Hala, honako aldagai eta ehunekoak aplikatuko dira:

b. El resto se distribuirá proporcionalmente a las diferencias positivas entre la cantidad que cada Ayuntamiento obtendría de un reparto en función de las variables y porcentajes que a continuación se mencionan y las cantidades previstas en la letra a) anterior. A estos efectos, las variables y porcentajes a aplicar serán:

- % 75, zuzenbidezko biztanleen arabera; biztanle-kopurua zehazteko orduan, Gobernuak ofizialki onartuta, udalerri bakoitzean 2016ko abenduaren 31n indarrean zegoen udaleko biztanle-errolda hartuko da oinarri. Biderkatzaile batek (1,00-1,40) haztatuko du kopuru hori,

- 75% en función del número de habitantes de derecho de cada Municipio, según el padrón de población municipal vigente a 31 de diciembre de 2016, oficialmente aprobado por el Gobierno, ponderado por un coeficiente multiplicador (1,00-1,40),

biztanleria-geruzei erreparatuz.

- % 12,5, udalerri bakoitzak 2014ko ekitaldian izandako batez besteko ahalegin fiskalari erreparatuz, zuzenbidezko biztanleek haztatuta, betiere, Gobernuak ofizialki onartuta 2016ko abenduaren 31n indarrean zegoen biztanle-erroldaren arabera.

- % 12,5, zerga-gaitasunaren alderantzizkoaren arabera.

Aurreko zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioak gehituko zaizkio; murrizketa horiek, hain zuzen, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ondoko erreformaren ondorio dira. Konpentsazioak Estatuaren 2016ko zergazko diru-sarreren termino berberetan eguneratuko dira: behin betiko konpentsazioak 2004tik 2016ra bitarteko epean eguneratu diren moduan, eta, konpentsazio osagarriak, berriz, 2006tik 2016ra eguneratu diren moduan.

Udalerriek 2016ko ekitaldian Estatuko zergetan izango duten partaidetzaren zenbatekoak hilero ordainduko dira, zenbateko osoaren hamabiren bat emanez.

3. KUDEAKETA EKONOMIKOA

Ondoren, EAEko udalerrietako kudeaketa ekonomikoari buruzko datuak daude ikusgai. Horiek 2015eko ekitaldian likidatutako aurrekontuetatik hartu dira.

Datu hauek erakusten dute udalerriak eta eremu txikiagoetako toki-erakundeak areago batu direla, hau da, udalerriak, batetik, eta toki-erakunde txikiak, Administrazio-organo autonomoak eta Enpresa Publikoak, bestetik, estuago elkartu direla aurrekontuetan (azken bi kasuetan, % 50 baino gehiagoko partaidetza badago).

Atal honen amaieran, udal-sektore publikoaren baterakuntza orokorraren laburpen-datuak ageri dira, betiere, kontuan hartuta bai udalerriaz azpiko eremuetako erakundeak bai udalerriaz gaindikoak ere (mankomunitateak eta partzuergoak).

según estratos de población.

- 12,5% en función del esfuerzo fiscal medio de cada Municipio en el ejercicio de 2014, ponderado por el número de habitantes de derecho de cada Municipio según el padrón municipal vigente a 31 de diciembre de 2016 y oficialmente aprobado por el Gobierno.

- 12,5% en función del inverso de la capacidad tributaria.

A la cantidad anterior, se le añadirá las compensaciones por mermas de ingresos derivadas de la reforma del Impuesto sobre Actividades Económicas actualizadas en los mismos términos que los ingresos tributarios del Estado en 2016 respecto a 2004, las definitivas, y respecto a 2006, las adicionales.

Las entregas a cuenta de la participación en los tributos del Estado para el ejercicio 2016 serán abonadas mediante pagos mensuales equivalentes a la doceava parte del respectivo crédito.

3. GESTIÓN ECONÓMICA

Los datos sobre la gestión económica de los Municipios del País Vasco que se exponen a continuación han sido tomados de los presupuestos liquidados del ejercicio 2015.

Estos datos contienen la consolidación de los Municipios con las Entidades de ámbito inferior al Municipio, es decir, con las Entidades Locales Menores, los Organismos Autónomos Administrativos y las Empresas Públicas (en los dos últimos casos cuando el Ayuntamiento participa en más de un 50%).

Al final de este apartado se presentan los datos resumen de la consolidación global del Sector Público Municipal, teniendo en cuenta tanto las entidades de ámbito inferior al Municipio como las supramunicipales (Mancomunidades y Consorcios).

Baterakuntza orokorraz ez da azterketa zehatzik egiten; izan ere, mankomunitateek eta partzuergoek udalerriei esleitutako aurrekontua ezin da partaidetza ekonomiko edo aurrekontu bidez egin, eta zerbitzu publikoaren eskaintzari buruzko balioztapenak (biztanleria, adibidez) aintzat hartuta egin behar da. Udal-baterakuntza bakoitzaren emaitza ez litzateke, beraz, udalerri bakoitzaren egoera ekonomikoaren isla zehatza, ezin delako inola ere datu horiek gainerako udalerriek dituztenekin konparatu.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan likidatutako aurrekontuek 2008 eta 2015 artean izan zuten bilakaera VIII.1 koadroan azaltzen da. Azken urte horretan likidatutako diru-sarrerak eta gastuak -% 0,4 eta -% 0,2 jaitsi ziren, hurrenez hurren, 2014koekin alderatuz.

2015ean, diru-sarrerak Gipuzkoan hazi ziren, Araban eta Bizkaian, ordea, jaitsi ziren. Gastuak, aldiz, Araban hazi ziren, eta beste bi lurraldeetan, ordea, jaitsi.

El análisis detallado no se realiza con la consolidación global, dado que la atribución presupuestaria de las Mancomunidades y Consorcios a los Municipios no puede hacerse según la participación económica o presupuestaria, sino sólo en función de estimaciones sobre la prestación del servicio público (por ejemplo, población). El resultado de cada consolidación municipal no sería, por tanto, estrictamente el reflejo económico de cada Municipio, planteando innumerables problemas de comparación entre Municipios.

La evolución entre los años 2008 y 2015 de los presupuestos liquidados de los Municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco se presenta en el Cuadro VIII.1. En este último año los ingresos y los gastos liquidados bajaron un -0,4% y un -0,2%, respecto a 2014.

En 2015, los ingresos crecen en Gipuzkoa mientras caen en Álava y Bizkaia. En cuanto a los gastos, aumentan en Álava y disminuyen en los otros territorios.

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERA ETA GASTUEN BILAKAERA
LURRALDE HISTORIKOKA ETA URTEKA 2008-2015
INGRESOS Y GASTOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 2008-2015
POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y AÑOS

000€

URTEAK AÑOS	SARRERAK / INGRESOS				GASTUAK / GASTOS			
	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE CAE	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE CAE
2008	699.596	1.933.831	1.280.796	3.914.223	653.227	1.815.929	1.249.399	3.718.555
2009	708.157	2.024.713	1.451.720	4.184.590	681.594	2.057.952	1.460.724	4.200.271
2010	678.107	1.877.894	1.365.563	3.921.565	639.816	1.911.805	1.332.837	3.884.458
2011	575.702	1.699.357	1.134.837	3.409.896	589.225	1.708.867	1.242.780	3.540.871
2012	511.149	1.598.347	1.076.445	3.185.941	494.231	1.579.632	1.053.161	3.127.023
2013	541.267	1.507.797	1.088.637	3.137.701	519.939	1.508.815	1.058.134	3.086.889
2014	583.284	1.556.928	1.139.861	3.280.074	538.123	1.515.005	1.085.758	3.138.886
2015	569.923	1.551.175	1.146.642	3.267.739	566.235	1.490.944	1.076.548	3.133.727
% 09/08	1,2	4,7	13,3	6,9	4,3	13,3	16,9	13,0
% 10/09	-4,2	-7,3	-5,9	-6,3	-6,1	-7,1	-8,8	-7,5
% 11/10	-15,1	-9,5	-16,9	-13,0	-7,9	-10,6	-6,8	-8,8
% 12/11	-11,2	-5,9	-5,1	-6,6	-16,1	-7,6	-15,3	-11,7
% 13/12	5,9	-5,7	1,1	-1,5	5,2	-4,5	0,5	-1,3
% 14/13	7,8	3,3	4,7	4,5	3,5	0,4	2,6	1,7
% 15/14	-2,3	-0,4	0,6	-0,4	5,2	-1,6	-0,8	-0,2

KOADROA / CUADRO VIII.1

EAEko udalerrien diru-sarreren eta gastuen zenbatekoen bilakaera eta ehuneko-tasen aldaketaren eboluzioa ikus daitezke VIII.1 eta VIII.3 grafikoetan. Lurralde historikoen 2015eko diru-sarrerak eta gastuak alderatzen

En los Gráficos VIII.1 y VIII.3 se presenta la evolución de los importes totales de ingresos y gastos del conjunto de Municipios del País Vasco y sus tasas porcentuales de evolución. La comparación por Territorios Históricos,

ditu VIII.2 grafikoak.

ingresos y gastos en 2015, aparece en el Gráfico VIII.2.



GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.1



GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.2



GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.3

3.a. Diru-sarrerak

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek 3.267,7 milioi euroko diru-sarrerak likidatu zituzten 2015ean, aurreko urtean baino -% 0,4 gutxiago. Diru-sarrera horien bilakaera VIII.2 koadroak irudikatzen du kapituluka sailkatuta, 2008-2015 aldiari dagokionez.

2015ean hazten dira diru-sarrerarik gehienak eskaintzen dituzten hiru kapitulutik bi.

3.a. Ingresos

El importe de los ingresos liquidados en 2015 por los Municipios del País Vasco ascendió a 3.267,7 millones de euros, con un descenso del -0,4% respecto al año anterior. El Cuadro VIII.2 muestra, desglosado por capítulos, la evolución de los mismos en el período 2008-2015.

En 2015, crecen dos de los tres capítulos que aportan el mayor volumen de ingresos:

Zuzeneko zergak, % 1,3 eta transferentzia arruntak, % 3,0. Hirugarrena, tasak eta bestelako diru-sarrerak % -6,5 jaitsi dira. Zeharkako zergak, ondarearen diru-sarrerak eta finantza-pasiboengatiko diru-sarrerak ere hazi egin dira. Gainerako kapituluak gutxitu dira. Tasen eta bestelako diru-sarreren kapitulua da gehien jaitsi dena.

Impuestos directos, 1,3% y transferencias corrientes, 3,0%. El tercero, tasas y otros ingresos, cae un -6,5%. También aumentan los impuestos indirectos, los ingresos patrimoniales y los ingresos por pasivos financieros. El resto de capítulos disminuye. Por volumen, es el de tasas y otros ingresos el capítulo con mayor caída.

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERAK KAPITULUKA ETA URTEKA 2008-2015
INGRESOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 2008-2015 POR CAPÍTULOS Y AÑOS

000€

AÑOS	CAPÍTULOS									TOTALES
	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	
2008	537.296	114.416	794.455	1.767.699	104.247	163.596	218.530	15.912	198.071	3.914.223
2009	561.954	90.082	744.086	1.563.222	129.076	136.917	601.741	63.782	293.731	4.184.590
2010	588.269	81.825	776.018	1.525.322	73.148	165.392	474.444	43.552	193.595	3.921.565
2011	596.287	71.463	736.772	1.519.123	89.237	106.188	213.940	4.140	72.746	3.409.896
2012	616.166	54.724	716.087	1.458.169	87.394	67.444	111.770	3.996	70.191	3.185.941
2013	645.373	42.142	707.471	1.450.134	61.817	82.976	84.645	13.312	49.831	3.137.701
2014	657.788	37.081	723.272	1.558.902	57.903	71.428	113.764	8.954	50.981	3.280.074
2015	666.125	44.288	676.377	1.605.299	61.967	57.798	91.564	7.496	56.826	3.267.739
% 09/08	4,6	-21,3	-6,3	-11,6	23,8	-16,3	175,4	300,8	48,3	6,9
%10/09	4,7	-9,2	4,3	-2,4	-43,3	20,8	-21,2	-31,7	-34,1	-6,3
%11/10	1,4	-12,7	-5,1	-0,4	22,0	-35,8	-54,9	-90,5	-62,4	-13,0
%12/11	3,3	-23,4	-2,8	-4,0	-2,1	-36,5	-47,8	-3,5	-3,5	-6,6
%13/12	4,7	-23,0	-1,2	-0,6	-29,3	23,0	-24,3	233,1	-29,0	-1,5
%14/13	1,9	-12,0	2,2	7,5	-6,3	-13,9	34,4	-32,7	2,3	4,5
%15/14	1,3	19,4	-6,5	3,0	7,0	-19,1	-19,5	-16,3	11,5	-0,4

KOADROA / CUADRO VIII.2

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERAK KAPITULUKA 2015. EKITALDIAN
INGRESOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI EN 2015 POR CAPÍTULOS

%



GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.4

Udalerriz udalerri jasota, IV.2 eranskinean adierazten dira diru-sarrerak, eta bertan ikus daiteke Arabako diru-sarreren % 76,3 Gasteizi dagokiola. Beste bi euskal hiriburuei, hots, Bilbori eta Donostiari, beren lurralde historikoko diru-sarreren % 35,0 eta % 32,8 dagokie. Era berean, 100.000 biztanletik gorako udalei (EAEko hiru hiriburuei, beraz) diru-sarrera guztien % 41,4 dagokie.

Analizando el Anexo IV.2, en el que se recogen los ingresos por Municipios, se observa que en Álava el 76,3% de los ingresos correspondieron a Vitoria-Gasteiz. En el caso de las otras dos capitales vascas, Bilbao y Donostia-San Sebastián, representaron el 35,0% y el 32,8% respecto de su Territorio Histórico. Así mismo, los Ayuntamientos de más de 100.000 habitantes (las tres capitales vascas) representaron el 41,4% sobre el total de los ingresos.

3.a.1. Tokiko zergen bilketa

Toki-zergen bilketen zenbatekoak, 2008 eta 2015 bitartekoak, VIII.3 taulak adierazten ditu; aldi horretan datuek urtetik urtera izandako aldaketa ere bertan azaltzen da. EAEko udalerrietan, 2015eko ekitaldian, 710,4 milioi euro bildu ziren toki-zergen bidez. Horrek % 2,2eko igoera ekarri zuen, 2014. urtearen aldean.

Ondoren, VIII.4 taulan, tokiko zergen bilketak aurkezten dira lurralde historikoka eta EAE osokoak, halaber, bere pisu espezifikoa jasotzen da.

Tokiko zergen zenbateko osoaren % 38,6 bildu dute EAEko hiru hiriburuek, eta zenbateko oso hori likidatutako diru-sarrera guztien % 21,7 izan da (% 21,2 2014an). Zerga-bilketaren datuak lurraldeka adierazten ditu VIII.5 grafikoak, tokiko zergei erreparatuta.

3.a.1. Recaudación de tributos locales

La recaudación por tributos locales en el período 2008-2015 y su variación interanual se recoge en el Cuadro VIII.3. En el ejercicio 2015 la recaudación por tributos en los Municipios del País Vasco ascendió a 710,4 millones de euros. Esto supuso una subida del 2,2% respecto al año 2014.

En el Cuadro VIII.4 se presentan las recaudaciones por tributos locales, consolidados por Territorios Históricos y para la Comunidad Autónoma, así como su peso específico.

La recaudación por tributos locales, de la cual la correspondiente a las tres capitales vascas supuso el 38,6%, representó un 21,7% sobre el total de ingresos liquidados (21,2% en 2014). En el Gráfico VIII.5 se aprecia la distribución de la recaudación de los tributos locales por Territorios Históricos.

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERAK BILTZEA. I. ETA II. KAPITULUAK ZERGA ZUZENAK ETA ZEHARKAKO ZERGAK, LURRALDE HISTORIKOKA ETA URTEKA RECAUDACIÓN CAPÍTULOS I Y II DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI IMPUESTOS DIRECTOS E INDIRECTOS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y AÑOS				
				000€
URTEAK AÑOS	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE CAE
2008	113.980	315.101	222.631	651.712
2009	111.204	324.352	216.479	652.036
2010	121.864	324.876	223.355	670.094
2011	124.554	315.676	227.521	667.750
2012	121.510	315.184	234.195	670.889
2013	121.401	321.063	245.052	687.515
2014	123.712	320.012	251.146	694.869
2015	135.440	317.360	257.612	710.412
% 09/08	-2,4	2,9	-2,8	0,0
% 10/09	9,6	0,2	3,2	2,8
% 11/10	2,2	-2,8	1,9	-0,3
% 12/11	-2,4	-0,2	2,9	0,5
% 13/12	-0,1	1,9	4,6	2,5
% 14/13	1,9	-0,3	2,5	1,1
% 15/14	9,5	-0,8	2,6	2,2

KOADROA / CUADRO VIII.3

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRIETAKO TOKIKO ZERGEN BILKETA LURRALDE HISTORIKOKA 2015. EKITALDIAN RECAUDACIÓN DE TRIBUTOS LOCALES EN LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI EN 2015 POR TERRITORIOS HISTÓRICOS								
								000€
TOKIKO ZERGAK IMPUESTOS LOCALES	ARABA / ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE / CAE	
	ZENBATEKOA IMPORTE	LH % % T.H.	ZENBATEKOA IMPORTE	LH % % T.H.	ZENBATEKOA IMPORTE	LH % % T.H.	ZENBATEKOA IMPORTE	EAE % % CAE
Ondasun Higiezinen g/ Zerga Impuesto s/ Bienes Inmuebles	65.415	48,3	166.183	52,4	137.705	53,5	369.303	52,0
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen g/ Zerga Impuesto s/ Vehículos Tracción Mecánica	18.483	13,6	63.704	20,1	48.368	18,8	130.555	18,4
Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren g/ Zerga Impuesto s/ Incr. Valor Terrenos Nat. Urbana	23.199	17,1	17.168	5,4	25.261	9,8	65.628	9,2
Jarduera Ekonomikoen g/ Zerga Impuesto s/ Actividades Económicas	19.805	14,6	49.900	15,7	30.933	12,0	100.639	14,2
Eraikuntza, Instalazio eta Obren g/ Zerga Impuesto s/ Construcción, Instalación y Obras	8.536	6,3	20.404	6,4	15.345	6,0	44.286	6,2
Beste zerga batzuk Otros impuestos	2	0,0					2	0,0
1. ETA 2. KAPITULUEN BATURA (1) SUMA CAPÍTULOS 1 Y 2 (1)	**135.440**	100,0	**317.360**	100,0	**257.612**	100,0	**710.412**	100,0
SARRERAK GUZTIRA (2) / TOTAL INGRESOS (2)	569.923		1.551.175		1.146.642		3.267.739	
% (1) / (2)	23,8		20,5		22,5		21,7	
% (1) / EAE-ko 1. eta 2. kapituluen batura % (1) / Suma Capítulos 1 y 2 de la C.A.E.	19,1		44,7		36,3		100,0	

KOADROA / CUADRO VIII.4

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gainekoa eta Jarduera Ekonomikoen gainekoa dira derrigorrez ezarri beharreko hiru tokiko zergak. Hiru zerga horiek tokiko zergek bildutakoaren % 84,5 jaso zuten.

Los tres impuestos de implantación obligatoria, es decir, los Impuestos sobre Bienes Inmuebles, sobre Vehículos de Tracción Mecánica y sobre Actividades Económicas, significaron el 84,5% de la recaudación por tributos locales.

Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren pisua % 52,0koa izan zen EAEn. Gipuzkoan, % 53,5 izan zen; Araban, % 48,3koa, eta Bizkaian, berriz, % 52,4koa.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergak zerga guztien % 18,4 bildu zuen EAEn; zehazki, % 13,6 Araban; % 20,1 Bizkaian eta % 18,8, Gipuzkoan.

2015eko ekitaldian, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren pisuak % 14,2 izan zen. Bizkaiko udalerriak nabarmendu ziren (% 15,7). Bestalde, Arabakoak eta Gipuzkoakoak izan ziren %14,6 eta % 12,0, hurrenez hurren.

Hiri-lurren Balio Igoeraren gaineko Zergaren partaidetza, tokiko zergetan guztira bildutako zenbateko osoarekin alderatuta, % 9,2koa izan zen, udalerri guztiei dagokienez. Ehuneko hori, Araban, handiagoa izan zen, % 17,1, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 5,4koa eta % 9,8koa, hurrenez hurren.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergak pisu espezifikoa % 6,2 izan zen.

El Impuesto sobre Bienes Inmuebles representó el 52,0% en la CAE. En Gipuzkoa el 53,5%, en Álava el 48,3% y en Bizkaia el 52,4%.

El Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica supuso un 18,4% para el conjunto del País Vasco, un 13,6% en Álava, el 20,1% en Bizkaia y el 18,8% en Gipuzkoa.

En el ejercicio 2015 la importancia del Impuesto sobre Actividades Económicas se sitúa en un 14,2%. Destacaron los Municipios de Bizkaia con un 15,7%. Álava y Gipuzkoa, por su parte, se situaron en un 14,6% y en un 12,0%.

La participación del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana con relación a la recaudación total por tributos locales fue del 9,2% para el conjunto de los Municipios. En Álava se situó por encima con un 17,1% y en Bizkaia y Gipuzkoa fue de un 5,4% y un 9,8% respectivamente.

El peso específico del Impuesto sobre Construcción, Instalaciones y Obras se sitúa en el 6,2%.

ZERGEN BILKETA EAE-KO UDALERRIETAN. BANAKETA ZERGAKA ETA LURRALDE HISTORIKOKA 2015. URTEAN

RECAUDACIÓN DE TRIBUTOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI. REPARTO POR TRIBUTOS Y TERRITORIOS HISTÓRICOS EN 2015



GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.5

3.a.2. Beste diru-sarrera batzuk

Tasa eta beste diru-sarrera batzuei buruz, 3. kapituluan, honako hauek dira kontzeptu garrantzitsuenak: salmentak, zabor-bilketa eta ur-horniketa. 3. kapituluaren pisuak Euskal Autonomia Erkidego osoan % 20,7koa izan zen. Lurralde historikoei dagokienez Araban, % 21,5ekoa; Bizkaian, % 18,7koa; eta Gipuzkoan, % 22,9koa.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 4.kapitulua. (transferentzia arruntak) 1,6 puntu gehitu zen 2014. urtearen aldean, eta diru sarreren % 49,1 izan zen. 2015ean, kapitulua hazi da hiru lurraldeetan: Araban, 3,9 puntu, Bizkaian puntu 1 eta Gipuzkoan 1,2 puntu, beraz, kapituluaren parte-hartzea % 39,3, % 55,3 eta % 45,6 da hurrenez hurren.

5. kapituluak (ondare sarrerak) sarrera guztien % 1,9 eragiten ditu, eta garrantzi handiagoa dauka Araban (% 3,4) Bizkaian eta Gipuzkoan baino (% 1,8 eta % 1,3).

6. kapituluak (inbertsio errealen besterentzea) aurreko urtean baino pisu gutxiagoa izan du, eta diru-sarreren % 1,8 bildu du. Lurralde historikoen artean, Gipuzkoan dugu ehunekorik altuena (% 2,7), eta Araban, baxuena (% 0,8). Bizkaian, berriz, ehunekoa % 1,4ra iristen da.

3.a.2. Otros ingresos

Dentro del capítulo 3, tasas y otros ingresos, los conceptos más importantes son Ventas, Recogida de Basuras y Suministro de Agua. La importancia relativa del capítulo 3 en el conjunto del País Vasco fue del 20,7% del total de ingresos. En cuanto a los Territorios Históricos, señalar que en Álava se situó en un 21,5%, en Bizkaia el 18,7% y en Gipuzkoa el 22,9%.

El peso del capítulo 4, transferencias corrientes, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco creció 1,6 puntos respecto a 2014 y representó un 49,1% de los ingresos. En 2015 el capítulo crece en los tres Territorios: En Álava 3,9 puntos, en Bizkaia 1 punto y en Gipuzkoa 1,2 puntos, quedando la participación del capítulo en el 39,3%, el 55,3% y el 45,6% respectivamente.

El capítulo 5, ingresos patrimoniales, representa un 1,9% del total de los ingresos siendo mayor su entidad en Álava con un 3,4% mientras su peso disminuye en Bizkaia y Gipuzkoa hasta el 1,8% y el 1,3%.

El peso del capítulo 6, enajenación de inversiones reales, disminuye respecto al año anterior y supone un 1,8% del total de ingresos. Por Territorios Históricos el porcentaje más alto lo encontramos en Gipuzkoa con un 2,7%, y el más bajo en Álava, 0,8% mientras que el de Bizkaia se sitúa en el 1,4%.

EAEko UDALERRIEN DIRU-SARRERAK LURRALDE HISTORIKOKA ETA KAPITULUKA 2015. URTEAN INGRESOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 2015 POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y CAPÍTULOS								
								000€
KAPITULUAK CAPÍTULOS	ARABA / ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE / CAE	
	SARRERAK INGRESOS	LH % % T.H.	SARRERAK INGRESOS	LH % % T.H.	SARRERAK INGRESOS	LH % % T.H.	SARRERAK INGRESOS	EAE % % CAE
1. kapitulua. Zuzeneko Zergak Capítulo 1. Impuestos directos	126.902	22,3	296.956	19,1	242.267	21,1	666.125	20,4
2. kapitulua. Zeharkako zergak Capítulo 2. Impuestos indirectos	8.538	1,5	20.404	1,3	15.345	1,3	44.288	1,4
3. kapitulua. Tasak eta bestelako sarrerak Capítulo 3. Tasas y otros ingresos	122.671	21,5	290.845	18,7	262.861	22,9	676.377	20,7
4. kapitulua. Transferentzia arruntak Capítulo 4. Transferencias corrientes	223.817	39,3	858.550	55,3	522.932	45,6	1.605.299	49,1
5. kapitulua. Ondare sarrerak Capítulo 5. Ingresos patrimoniales	19.449	3,4	27.685	1,8	14.833	1,3	61.967	1,9
6. kapitulua. Inbertsio errealen besterenganatzea Capítulo 6. Enajenación inversiones reales	4.703	0,8	21.983	1,4	31.113	2,7	57.798	1,8
7. kapitulua. Kapital transferentziak Capítulo 7. Transferencias de capital	31.114	5,5	29.523	1,9	30.928	2,7	91.564	2,8
8. kapitulua. Finantza aktiboak Capítulo 8. Activos financieros	690	0,1	1.841	0,1	4.965	0,4	7.496	0,2
9. kapitulua. Finantza pasiboak Capítulo 9. Pasivos financieros	32.040	5,6	3.389	0,2	21.397	1,9	56.826	1,7
SARRERAK GUZTIRA / TOTAL INGRESOS	**569.923**	**100,0**	**1.551.175**	**100,0**	**1.146.642**	**100,0**	**3.267.739**	**100,0**

KOADROA / CUADRO VIII.5

Kapital-transferentziak biltzen dira 7. kapituluan, eta kontzepturik garrantzitsuena foru aldundietatik jasotako transferentziek osatzen dute. 2015ean, diru-sarrera guztien % 2,8 bildu zen 7. kapituluan, 2014an % 3,5. Lurralde historikoei dagokienez, Arabak, % 5,5, Bizkaiak % 1,9 eta Gipuzkoak % 2,7.

El concepto más importante del capítulo 7, transferencias de capital, es el de transferencias recibidas de las diputaciones forales. En 2015 el capítulo 7 supuso un 2,8% del total de ingresos frente al 3,5% de 2014. En cuanto a los Territorios Históricos, Álava un 5,5%, Bizkaia el 1,9%, y Gipuzkoa el 2,7%.

8.kapitulua finantza-aktiboei buruzkoa da: horko diru-sarrerek % 0,2ko partaidetza-maila eman zuten EAE osorako; hau da, 2014koa baino 0,1 puntu gutxiago.

Los ingresos procedentes del capítulo 8, activos financieros, presentan un nivel de participación del 0,2% para el conjunto del País Vasco, 0,1 puntos inferior al del 2014.

9. kapituluaren garrantzi erlatiboa, diru-sarreren guztizkoarekiko, % 1,7 izan da. Araba izan da partaidetza handieneko lurraldea (% 5,6), jarraian, Gipuzkoa izan da (% 1,9) eta azkenik, Bizkaia izan da (% 0,2).

La importancia relativa del capítulo 9 en el conjunto de ingresos se sitúa en el 1,7%. Álava es el Territorio con mayor participación de este capítulo, 5,6%, Gipuzkoa le sigue con el 1,9% y en Bizkaia queda en el 0,2%.

3.b. Gastuak

VIII.6 koadroan, 40.000 biztanletik gorako udalerrien gastuak azaltzen dira. IV.3 eranskinetik hartu dira datuak. 40.000 biztanletik gorako udalerri hauei EAE osoko gastuen % 55,7 dagokie. Bestalde, EAEko hiru hiriburuek (Gasteiz, Bilbo eta Donostia) zenbateko guztiaren % 41,2 gastatu zuten. Lurralde historikoei dagokienez, nabarmentzekoa da Arabako hiriburuaren, hots, Gasteizen, gastua, lurralde horretan

3.b. Gastos

En el Cuadro VIII.6 se recogen los gastos de los Municipios de más de 40.000 habitantes, extraídos del Anexo IV.3. Estos Municipios supusieron el 55,7% del total de los gastos del conjunto de la Comunidad Autónoma. Por otra parte, el gasto de las tres capitales vascas (Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia-San Sebastián) alcanza el 41,2% del total. Por Territorios Históricos, cabe señalar que en Álava, la capital, Vitoria-Gasteiz, representó

egindakoaren % 77,3koa izan zela.

el 77,3% del total de gastos.

EAE-KO 40.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIETAN LIKIDATUTAKO GASTUAK 2015. URTEAN GASTOS LIQUIDADOS EN MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI EN 2015 MUNICIPIOS CON MÁS DE 40.000 HABITANTES				
				000€
UDALERRIAK / MUNICIPIOS	2015EKO BIZTANLERIA POBLACIÓN 2015	GASTUAK / GASTOS		
		ZENBATEKOA IMPORTE	LH % % T.H.	EAE % % CAE
BILBAO	342.481	510.656	34,3	16,3
VITORIA-GASTEIZ	241.451	437.817	77,3	14,0
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	180.179	342.016	31,8	10,9
GUZTIRA > 100.000 BIZTANLE TOTAL > 100.000 HABITANTES	**764.111**	**1.290.489**		**41,2**
BARAKALDO	98.403	121.230	8,1	3,9
GETXO	77.759	99.406	6,7	3,2
IRÚN	59.673	73.497	6,8	2,3
PORTUGALETE	46.372	49.575	3,3	1,6
SANTURTZI	45.703	55.755	3,7	1,8
BASAURI	40.876	54.042	3,6	1,7
TOTAL 40.000-100.000 HABITANTES	**368.786**	**453.505**		**14,5**
TOTAL > 40.000 HABITANTES	**1.132.897**	**1.743.994**		**55,7**

KOADROA / CUADRO VIII.6

EAE-KO UDALERRIEN GASTUAK KAPITULUKA ETA URTEKA 2008-2015 GASTOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 2008-2015 POR CAPÍTULOS Y AÑOS									
									000€
URTEAK AÑOS	KAPITULUAK / CAPÍTULOS								GUZTIRA TOTAL
	1.	2.	3.	4.	6.	7.	8.	9.	
2008	1.016.065	1.399.472	32.537	256.741	859.926	27.464	26.478	99.872	3.718.556
2009	1.079.640	1.383.513	21.486	286.153	1.265.051	29.560	15.658	119.209	4.200.272
2010	1.090.288	1.373.320	16.680	250.714	1.001.304	37.899	17.457	96.795	3.884.458
2011	1.079.204	1.363.368	21.994	241.279	664.907	29.136	9.552	131.431	3.540.871
2012	997.873	1.283.811	21.272	229.034	412.844	20.712	10.853	150.624	3.127.023
2013	1.027.389	1.277.694	18.303	240.910	327.339	15.523	18.320	161.411	3.086.889
2014	1.049.109	1.258.095	15.263	262.739	408.585	25.300	12.258	107.537	3.138.886
2015	1.085.807	1.265.143	15.228	252.832	349.753	19.306	9.706	135.952	3.133.727
% 09/08	6,3	-1,1	-34,0	11,5	47,1	7,6	-40,9	19,4	13,0
% 10/09	1,0	-0,7	-22,4	-12,4	-20,8	28,2	11,5	-18,8	-7,5
% 11/10	-1,0	-0,7	31,9	-3,8	-33,6	-23,1	-45,3	35,8	-8,8
% 12/11	-7,5	-5,8	-3,3	-5,1	-37,9	-28,9	13,6	14,6	-11,7
% 13/12	3,0	-0,5	-14,0	5,2	-20,7	-25,1	68,8	7,2	-1,3
% 14/13	2,1	-1,5	-16,6	9,1	24,8	63,0	-33,1	-33,4	1,7
% 15/14	3,5	0,6	-0,2	-3,8	-14,4	-23,7	-20,8	26,4	-0,2

KOADROA / CUADRO VIII.7

EAEko udalerriek gastuen kapituluetan urtetik urtera izandako bilakaera (2008 eta 2015 bitartean), VIII.7 Taulan adierazten da. 2015.

La evolución interanual, entre los ejercicios 2008 y 2015, de los gastos por capítulos de los Municipios del País Vasco se presenta en el Cuadro VIII.7. El año 2015, bajan los

urtean, -% 0,2 jaitsi dira.

Hauxek dira gastua handitu duten kapituluak: 1. kapituluak (pertsonal gastuak), % 3,5eko gehikuntza izan du, 2.ak (Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa) % 0,6koa, eta 9.ak (Finantza pasiboak) % 26,4koa.

Gainerako kapituluak jaitsi dira. Zenbatekoa dela eta, aipatzekoa da 6. kapituluen jaitsiera (Inbertsio errealak): -58,8 milioi.

VIII.8 koadroan, 2015ean likidatutako gastuak ageri dira kapitulu eta lurralde historikoka banatuak, baita EAEkoak ere. Gastuen banaketa kapituluka irudikatzen du VIII.6 grafikoak.

gastos en un -0,2%.

Los capítulos que aumentan el gasto son el 1 (gastos de personal), con un crecimiento del 3,5%, el 2 (gastos en bienes corrientes y servicios), con el 0,6%, y el 9 (pasivos financieros) con el 26,4%.

El resto de capítulos desciende. Destacar por su volumen, -58,8 millones, el del capítulo 6 (Inversiones reales).

En el Cuadro VIII.8 se recogen los gastos liquidados en el año 2015, desglosados por capítulos y Territorios Históricos, así como para el conjunto de la Comunidad Autónoma. En el Gráfico VIII.6 se proporciona el desglose de gastos por capítulos.

EAE-KO UDALERRIEN GASTUAK LURRALDE HISTORIKOKA ETA KAPITULUKA 2015. URTEAN
GASTOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI EN 2015 POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y CAPÍTULOS

000€

KAPITULUAK / CAPITULOS	ARABA / ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE / CAE	
	GASTUAK GASTOS	LH % % T.H.	GASTUAK GASTOS	LH % % T.H.	GASTUAK GASTOS	LH % % T.H.	GASTUAK GASTOS	EAE % % CAE
1. kapitulua. Pertsonal gastuak Capítulo 1. Gastos de personal	197.101	34,8	535.488	35,9	353.218	32,8	1.085.807	34,6
2. kapitulua. Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan Capítulo 2. Gastos en bienes corrientes y servicios	209.982	37,1	631.880	42,4	423.281	39,3	1.265.143	40,4
3. kapitulua. Finantza gastuak Capítulo 3. Gastos financieros	4.635	0,8	5.055	0,3	5.538	0,5	15.228	0,5
4. kapitulua. Transferentzia arruntak Capítulo 4. Transferencias corrientes	28.951	5,1	127.515	8,6	96.366	9,0	252.832	8,1
6. kapitulua. Inbertsio errealak Capítulo 6. Inversiones reales	70.183	12,4	151.915	10,2	127.655	11,9	349.753	11,2
7. kapitulua. Kapital transferentziak Capítulo 7. Transferencias de capital	651	0,1	6.880	0,5	11.775	1,1	19.306	0,6
8. kapitulua. Finantza aktiboak Capítulo 8. Activos financieros	518	0,1	3.941	0,3	5.247	0,5	9.706	0,3
9. kapitulua. Finantza pasiboak Capítulo 9. Pasivos financieros	54.215	9,6	28.270	1,9	53.467	5,0	135.952	4,3
GASTUAK GUZTIRA / TOTAL GASTOS	**566.235**	**100,0**	**1.490.944**	**100,0**	**1.076.548**	**100,0**	**3.133.727**	**100,0**

KOADROA / CUADRO VIII.8



GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.6

EAE osoari erreparatuta, 2. kapituluak (ondasun eta zerbitzuen erosketa) eragin zuen gastu handiena; gastu osoaren % 40,4, hau da, 1.265,1 milioi euro. Portzentajea lurraldeka: % 37,1 Araban, % 42,4 Bizkaian eta % 39,3 Gipuzkoan.

Para el conjunto de la Comunidad Autónoma el capítulo 2 (gastos en bienes y servicios) es el de mayor importancia relativa en el conjunto de gastos: un 40,4%, 1.265,1 millones de euros, siendo el porcentaje por territorios: 37,1% en Álava, 42,4% en Bizkaia y 39,3% en Gipuzkoa.

1. kapitulua dator ondoren (pertsonal gastuak): 1.085,8 milioi euro, hau da, gastu osoaren % 34,6, iazko ehunekoa baino 1,2 puntu handiagoa. Nabarmentzekoak dira Arabako % 34,8 eta Bizkaiko % 35,9. Gipuzkoakoa, berriz, % 32,8 izan zen.

Le sigue el capítulo 1 (gastos de personal), 1.085,8 millones de euros, que representó un 34,6% del total de gastos, 1,2 puntos superior al porcentaje del año anterior. Destacan el 34,8% de Álava y el 35,9% de Bizkaia. Gipuzkoa se sitúa en el 32,8%.

6. kapituluaren (inbertsio errealak) guztizko gastuetan izandako parte-hartzea % 11,2 da (2014an, % 13,0). Hiru lurraldeetan jaitsi da: 1,1 puntu Araban, 2,5 Bizkaian eta 1,3 Gipuzkoan.

La participación en los gastos totales del capítulo 6 (inversiones reales) es de un 11,2% (en 2014 un 13,0%). Ha bajado en los tres territorios: 1,1 puntos en Álava, 2,5 en Bizkaia y 1,3 en Gipuzkoa.

4. kapitulura (transferentzia arruntak) % 5,1 bideratu zuen Arabak, % 8,6 Bizkaiak eta % 9,0 Gipuzkoak; Euskal Autonomia Erkidego osorako, berriz, % 8,1ekoa izan zen 4. kapituluaren pisua.

En el capítulo 4 (transferencias corrientes) el porcentaje de Álava fue de un 5,1%, el de Bizkaia de un 8,6% y el de Gipuzkoa de un 9,0%, siendo para el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco de un 8,1%.

9. kapituluak (finantza pasiboak) gastuen % 4,3 biltzen du. Lurraldeka, Bizkaian du

El peso del capítulo 9 (pasivos financieros) es de un 4,3%. Por Territorios, Bizkaia es donde

garrantzi erlatibo txikiena (% 1,9), eta Araban, handiena (% 9,6).

